


1990eko otsailak 4 — 1.278. zenbakia — 175 pezeta (BEZ barne) / 10 liber

ARGIA



**AZERBAIDJAN
INPERIOAREN MUGAK**

EKO ALTZA
Larratxo ibilbidea, 96 zbk.
ALTZA

**AUTO SERVICIO
DURANGO**
Retenlxu kalea 30
DURANGO

**MERKEK
IGLESIAS**
TRINTXERPE

EKO AIETE
Grupo Etxadi. Telf.: 21 14 88
AIETE. DONOSTIA

BETI MERKEK
Loiola kalea 12.
DONOSTIA

SUPER AMARA
Isabel II.a, 16 zbk. Telf.: 46 11 77
DONOSTIA

**S. JUAN BAUTISTA
Kooperatiba**
Villas auzoa. Telf.: 55 01 99
HERNANI

EKO ASTEASU
Keelavite poligonoa z/g.
Telf.: 69 25 26. ASTEASU

**AUTOSERVICIO
VILLALBA**
Urkizu, 13. Telf.: 12 05 73—71 61 60
San Juan, 9. Telf.: 70 26 38
EIBAR

EKO TOLOSA
TOLOSA


EKO

Vivodist



AZERBADJAN: Nagornou Karabaj-eko eskualdean armeniar eta azerien artean gertatu tirabirek 14 alarma gorria piztu dute Sobiet Batasunean.



ABORTOA: Iruñeko epaiketak ekarri du abortoarene gaineko polemika denon ahotara. Legea eta poltsikoa bide dira abortatzeko oztopoak. 24



UNIBERTSITATEA: 203 irakasleren beharrari ez dio erantzuten ez UPVko errektoretzak ez Hezkuntza Sailak. Ikasleak greban eta euskararen egoera geldo. 46

EMIL ZATOPEK: Zubietako krossa dela medio etorri da Donsotiara 'giza lokomotorea' ezizenez famatu egin zen korrikalari txekoslovaquiarra. Politikaz hitzegin dugu batik bat. 27



4. Irakurleak mintzo.

POLITIKA

- 5. Laburrak.
- 6. Kronika politikoa. N. ARRAS-TOA.
- 8. Martin Auzmendirekin elkar hizketa. X. LEKUONA.
- 11. Autodeterminazio eskubidea herri borondateak aginduko. P. MITXELENA.
- 12. Cristina Cuesta: «Gobernuak interes politikoak bizitzaren aurretik jartzen ditu». B. ARTOLA.
- 14. Moskurentzat zabalik Kaukasoko frontea. A. GOSTIN eta P. SASTRE.

ERREPORTAIK


- 19. Europara bidean errepideak kezkarri. I. CAMINO.
- 22. Gazte Kontseiluak autonomia osoa omen. J. OLAIZOLA.
- 24. Poltsikoa eta legea abortoa- ren aferan. A. MUJIKA eta I. AR- TOLA.
- 27. Emil Zatopek: «Irabaztea ona da gozatzeko, baina galtzea ere bai pentsatzeko». I. MURUA eta A. GOSTIN.
- 39. Ziklo Krossa, bizikletaren ahaide txiroa. S. MADARIAGA.
- 42. Oraindik euskal berri agen- tziarik gabe. J.L. AIZPURUA.

KULTURA


- 45. Kultur ataria.
- 46. U.P.V.ko fakultateak greban 203 irakasleren faltan. E. IRAZO- KI.
- 48. Ikas eta Ari, Nafarroan eta Araban euskalduntze lanean. I. CAMINO.
- 49. Edorta Jimenez: «Eklektikoa naiz, ez dut eskolarik eta ez bide- rik». L. AGIRRE.
- 50. Egungo argazkigintza 141 fo- togramatan. G. ARRESE.
- 53. Bertolucci Ifar Afrikan erro- datzen. J.M. HERITZ.
- 54. Aste giroa.
- 64. Kultur kronika.
- 66. Azkena: Azeri axkarra eta in- dependentzia berdeegia. P. ZUBI- RIA.



M.AUZMENDI: Autodeterminazio eskubidearen inguruan eta tripartito baten posibilitateaz arituko zaigu 8 Euskadiko Ezkerrako kide hau.



ERREPIDEAK: Leitzarango autobideaz gain bada Euskal Herrian eztabidagarri den beste projekturik. Nafarroako Sakana eta Aldundeko autobideen gaia ekarri ditugu 19 orriotara.



ARGAZKIGINTZA: Dagerre-k lehen teknika fotografikoa idoro zuela 150 urte aurtan beteko direla eta, «Euskal argazkilariak: 150 urte gero» erakusketa zabaldu da 50 Donostian.

Mitxelenaren adiskideak eta Josu Landaren sakelaren zuloa

ARGIA aldizkariaren 1.275. zenbakian ageri da Josu Landak «Mitxelenaren adixkideak» izenburuarekin idatzitako lan-txo bat. Bertan, gutxi gorabehera, honako hau esaten da: Errenteriako udalak berriki eratu duen 'Koldo Mitxelena saria' dela eta, epaimahaikoak omen ziren, besteak beste, Euskaltzaindiako eta Gasteizko Fakultateko ordezkariak. hauek ez omen ziren epaimahaikoek egindako bileretara agertu, antza denez, mahaikide hauen lana ordaintzeko dirurik ez baitzen, nonbait. Hori bai, hauen ezezkoa ez zen hain gordina izan eta beti ere erraz aurkitu omen zuten aitzakia (autoa, lana...). «Hildakoek ez dute oroimenik. Horri esker salbatzen dira haren gerizpean hazi zirenak», barkatzen gaitu Landa horrek. Ikusiko denez, Sariarekin gertatur-

koak eta Landak kontatzen ditugunak ez dute zerikusi handigirik elkarrekin, jaun honek ez baditu behintzat sakeleko zulotik eskapatu zaizkion bere informazio iturriak agerian uzten: nor dagoen lanak itoa, nork daukan autoa 'enpanatua', e.a.

Sariaren oinarrietan zehazten da nola osatuko den epaimahaia: alkateaz gain, Kultura batzordeko zinegotzi bat, historigile bat, Euskararen ordezkari bat, Euskaltzaindiako ordezkari bat eta Euskal Herriko Unibertsitateko beste ordezkari bat. Sari hau 'euskara bere inguru sozial, historiko eta linguistikoa landu eta garatuko diren ikerketa-lanak sustatzeko' egiten denez eta Mitxelena Gasteizko Fakultatearekin oso loturik egon zenez, Josu landa delakoak bezala nik ere uste nuen gutariko norbait deitua izango zela hara. Ez, gutaz ez zen inor ere oroitu.

EHuko ordezkaria ordezkaria izendatzeko prozedura hauxe izan zen: Batzorde buruak 1989ko irailaren 29an (data gaizki dago: abuztuaren 29a esan behar baitu) karta bat bidali zion, erdaraz, EHUko Donostiako Filosofia Fakultateko Dekanoari, bertan eska-

tuz 'asigne la persona que estime oportuno y competente como miembro de dicho Jurado'. Dekano jaunak, iraleko 6ko gutun batean adierazten zion, honek ere erdaraz, Joxe Azurmendi Otaegi irakaslea proposatzen zuela mahaiko.

Erabaki agiria azaroaren 6an egin zen eta bertan esaten denez, han bildu ziren alkatea eta beste hiru lagun: Arantza Urbietza, José Azurmendi eta José Ramón Cruz Mundet. Hauen artean ez zegoen Euskaltzaindiaren ordezkariarik eta Gasteiztik ere ez zegoen inor. Akta hau erdaraz dago.

Euskaltzaindian izan dugun azkenetako bilera batean azaldu zigun Patxi Altunak zergatik ez zen Errenteriara agertu: inork ere ez ziolako abisatu noiz izango zen bilkura hori, nahiz eta Udalarri urriaren 31eko gutun batean adierazi zitzaion ofizialki nor den Euskaltzaindiaren ordezkaria, eskutitz berean zehaztuz Altunaren helbidea eta telefonoa. Eskutitza euskaraz dago. Guri dagokigunez, esan bezala, ez gintuen inork ere gonbidatu.

Landa jaunak gauzak hain arinki idatzi beharrean, hobe luke informazioa jasoko balu, horixe baita bere burua kaze-

taritzat hartu nahi duen orok egiten duena. Panfletoak idazteko, jakina, ez da informazio beharrik eta burua lau ideia nahasiez betetzearekin nahikoa izaten da.

Begira: Landak hartu duen kezka bera izan genuen guk ere gasteizen Sari hori emana zela jakin genuenean, ez bait genekien nor joan ote zen Unibertsitatearen izenean. Hortaz, eta gure harridura Udalarri adierazi baino lehenago (Landak bezala guk ere uste baitugu hemengo norbaitek egon beharko lukeela han, kontuan izanik Mitxelenak izan zituen loturak gurekin) informazioa eskatu genuen Errenteriara. Informazio hau orain dela egun gutxi eskuratu digute bertako artxibotik. Eta nik handik hartu ditut hemen paratu ditudan datu guztiak. Hori nola jaso behar duen hurrengoan Landak informazioa salatu nahi duen hori fikziozko errealitate bihur ez dadin. Ez da zeren.

PELLO SALABURU
EUSKAL FILOLOGIAKO
SAILBURUA

Jabea: Zeruko ARGIA S.A.L.

ARGIA egiten dugu:

Donostian: Mikel Arntza, Gorka Arrese, Mikel Arrieta, Josu Landa, Xabier Lekuona, Joxan Oiz, Juan Jose Petrikorena, Pablo Sastre, Iñaki Uribe, Pello Zubiria.

Bilbon: Jesus Artetxe, Arturo Izarzelai, Luis Fernandez, Ermine Madariaga, Laura Mintegi, Imanol Murua, Jon Sarasua, Iñaki Uriarte, Pello Urzelai.

Gasteizen: Txotxe Andueza, Irantzu Iriondo, Pablo Ruiz de Aretxabaleta.

Iparaldean: Isabel Etxeberria, Tala.

Iruñean: Iñaki Camino, Maria Diez, Joxe Martin Gogortza, Imanol Haranburu, Itziar Mendibe.

Kolaboratzaileak: Xabier Agirre, Enrike Amonarri, Jon Mikel Arano, Ladix Arrosagarai, Antton

Azkargorta, Joxe Azurmendi, Balere Bakaikoa, M.J. Barandiaran, Bota Puntutaba, Amaia Elozegi, Enbido, Xarlot Etxezaharreta, Joxean Gezalaga 'Zaldubi', Mielanjel Harana, Iñaki Irazabalbeitia, Mikel Iribarren, Gure Irratikoak, Irulegi Irratikoak, Xiberoko Boza Irratikoak, Koldo Izagirre, Kanko Izpizua, Edorta Jimenez, Karmelo Landa, Emilio Lopez Adan 'Beltza', Bego Montorio, Morau eta Mattin, Allande Sokarros, Joan Mari Torrealda, J.L. Alvarez 'Txillardegui', Asisko Urmeneta, Mikel Zabaleta eta Patxi Zarautz.

Dizainu eta montajoa: Eneko Abrego, Leire Al-bisu, Jon Barandiaran eta Patxi Puertas.

Fotomekanika: Agus Barandiaran.

Azala: Garbiñe Ubedá.

Publizitatea: Lema 7

Promozioa: Txumai Iturria.

Administrazioa: Txumai Iturria.

Ardura teknikoak: Smeon Barroso, J. Jose De Marcos, Xabier Agirre.

D.L.: 80-1963.

Helbideak: ARGIA, Mundaiz bidea z/g. 20012 Donostia./ Ibañez de Bilbao 3, 7. a. 48009 Bilbo.

Telefonoak: (943)283399, (94)4248543.


Telefona: (943)293613.

Inprimategia: ANTZA inprimategia.

1989. urterako harpidetza sariak: (BEZ barne)


Hego Euskal Herria	6.500
Ipar Euskal Herria	430
Estatu Espainola	6.500
Beste atzerriak	8.600
Airez	13.000

Hitzez hitz



«Etsenpluzko epairik ez bada honetan ematen, daitekeena da [Jarrai-ko] pertsona hauek ekintza larriagoengatik prozesatu behar izatea».

Ignacio Gordillo
(fiskala)
(90-1-25)



«Presoren baten heriotza ez zaio dohainik gertatuko PSOeri».

Victor Dieguez
(GRAPOko preso ohia)
(90-1-26)

«Nazionalista eta sozialisten arteko paktua PSOeren koartada xingle bat da gobernuan segitu ahal izateko».

Mayor Oreja
(90-1-27)

«Nafarroako gobernu argudio faltaz indarra erabiltzen ari da, gizarte honen funtzionamendutik kanpo izan beharko lukeena».

Autobiaren aurkako koordinakundekoek
(90-1-24)

Gordetzekoak



BBV BANKUAREN KONTSEILUAN GARAIKOETXEAREN JARRAITZAILEA

BANCO Bilbao-Vizcayak jasaten duen botere krisia gairiditu nahian Banco de España-ko Mario Rubio lehendakariak hartu dituen neurrien artean BBV Administrazio Kontseiluan bost kontseilari independente sartzeari proposatu du. Horien artean, UCD gobernuko bi ministrari badaude, Manuel Clavero Arevalo eta José Lladó Fernández-Urrutia hain zuzen, bada ere Garaikotxearen gobernuan Hezkuntza sail-burutza eraman zuen Juan Urrutia, egun EAKo gizona. Zerrenda honetatik kanpo gelditu diren beste bi gizon, hauek ere Garaikotxearen jarraitzaileak, Mario Fernández eta Pedro Luis Uriarte dira.

COORDINADORA POR LA PAZ-EN HERRI GUZTIETARA ZABALDU NAHI

CCOORDINADORA Gesto por La Paz erakundeak urrats berri eman du bere antolaketa lanean. Egun Hego Euskal Herriko herri guztietara iristeko asmoa dute eta herri bakoitzean talde bat sortzeko ahaleginetan Euskadiko Ezkerrako militanteei txosten bana igorri die zertan diren eta zein lan egiten duten azalduz.

Ezpalak

GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAK LEITZARAN EROSI

● GIPUZKOAKO Foru Aldundiak Papelera Zikuñaga S.A.ri Leitzarango 2.390 hektareako lur eremua erosi dio 1.950 milioi pezetetan. Erosketa honekin Diputazioa Leitzarango lurren %68aren jabe egin da. Lur eremu hau pinuz josia badago ere, Diputazioaren asmoa pinuak saldu eta bertako zuhaitzekin birrabolaztea da, Leitzarenek duen maila askotako aberastasunak zaindu asmoz parke naturala ere bilakatu nahi du Imanol Muruak.




JOEL CATALA PARISE ZAITZERA

● PIRINEO Atlantiar Departamenduko PAFeko komisario buru den Joal Catalak, Iparraldean eginitako merituei esker, ardura hau utzi eta Pariseko Roissy aireportua zaintzeko ardura nagusia jaso du. Guardia zibil espainiarrarekin harreman oso estuak zituen polizi honek zazpi urte egin ditu gure artean, 250 polizi bere aginduetara zitularik.

NAFARROAKO AURREKONTUEI EA-K 83 EMENDAKIN AURKEZTU

● EUSKO ALKARTASUNAK Nafarroako aurrekontu proiektuari 83 emendakin aurkeztuko dizkio aurreten. 1990erako gobernu nafarrak 124.000 milioi pezetako aurrekontua izatea nahi du, EAK 6.620ko kopurua gehitzea eskatu duelarik. Iñaki Cabasés parlamentari foralak ez du daturik ahaztu eta aurkeztutako proiektu osoari ohizko 'errepasoa' eman dio, UPN-PSOEek lortutako akordioaren mugak salatuz.

Keinuen truke itsualdi arriskutsua



JELTZALE eta sozialisten arteko liskarrak barretu omen dira dagoeneko. Sozialisten eskakizunei amore eman die PNVk, azken finean, sinatutakoa baino amore ematea bilatzen bait zuten, oraingo honetan J.M. Benegas Haddad jaunak. Hala ere, inortxok —eta Joseba Egibarrek, PNVko bozeramaleak hala zioen— ez du pentsatuko jeltzaleak esku hutsik irten direnik, musutruke sinatu dutenik alegia. Xabier Arzalluzek sinaduraren ostean Ajuria Eneara eraman nahi zituen sozialistak, bertan 'atzeraturik' dauzkaten konpetentzien transferentziak bizkortu daitezzen; eta horixe lortu du.

PNVk etekinak atera ditzakeen moduan dagoen bakoitzean Ertzantzaren gaiari heltzen dio, Madrilek gai honez duen errezeloaren jakitun. Oraingo honetan ere, errepliege-despliegea ahotan dabil, jeltzale iturriek urte bukaerarako beste urrats berri bat emango dela azkar asko iragarri dutelarik. Bestalde, Komunitate autonomoko azpiegitura ere tartean dago, PNVko nazionalistek nahiz PSOEko sozialistek elkar konpon-

tzen ez badira ere; milaka milioi pezetako azpiegiturazko 'akordio' honek datozen urteetan izan dezakeen garrantzia bitan da, baina euskaldunontzat hain ezagun den Barrionuevo ministraria ardura honen buru Madrilengoteak ez die batere laguntzen.

HAINBAT gai hortxe dago Legealdi honetan ezin trataturik, gutxienez oinarritzko hamazazpiren bat lege izango dira, tartean Euskal Eskola Publikoarena eta Kreditu Ofizialarena daudelarik, eta lege hauek bultzadaxo bat ezagutzeko gobernukideen arteko elkar hizketetan leku bat izanez, Herri baten autodeterminazio eskubidearekin jokatzeko bada, gobernukideen jatorrasuna gutxienez zalantzan ipintzekoa da, nahiz guztia pragmatismoaren izenean egin. Are gehiago hainbat transferentziak sozialisten keinu bat besterik be-

har ez dutela onartzen denean; keinuen truke asko entregatzea litzateke emandakoa, gehiegizkoa seguruen.

Ezer askatzen ez duena Gabriel Urralburu nafarra dugu; elkar ulertzeko pertsonen eta erakundeen arteko lehen oinarriko baldintza elkar hizketa denean Nafarroako gobernu-buruak ez du horrezaz ezertxo ere jakin nahi. Irurtzun-Andoain autobidearen inguruan elkar hizketei leku uzteko burutu zuen Koordinakundeak larunbatean manifestaldia, milaka nafarrek esku hartu zutelarik. Herriaren zati bati jaramonik ez egiteak ez du arazoa konponduko, gerora okertu baizik. Hala ere, bistan da Urralburuk eskuin navarristaren presioak herritar xehearnak baino kontu handiagoz neurtzen dituela.

BILBON, eta larunbatean ere, Adolfo Villosladaren aldeko manifestaldia burutu zuen 'Coordiadora Gesto por la Paz'ek, Gasteizko paktoa osatzen duten alderdi guztien laguntzaz. Bahiketaren honek daraman martxaz —bi hilabetez darama entpresariak Euskadi Ta Askatasunaren eskuetan— bahiketa hau sosa kontuaz gain ekintza politiko baten adierazgarri dela pentsa daiteke.

Eta Urralburu bere onean sartzeko Iruñean eginko manifestaldiak izan ditu txinpartak bezperan. Espainiako Sofia de Grezia erreginaren 'bisitaldia' baretasunez ospatu nahian zuhurtasun neurriak hartu ditu poliziak, horien artean epaileak onartu ez zuen mihaketa agiria lortzeko ahaleginak eta horren ezean aizkora hartuz, Herri Batasunaren egoitzara jo eta bertan zeuden kideak atxilotzea izan da bat. Bestea balkoitik zintzilik zegoen eta 'Kanpora. Autodeterminazioa.' idatzirik zuen pankarta berehala kentzea bestea. Hirugarrena kalean bisita horren kontra protestaka ari ziren nafarrei egurra banatzea. Parlamentuan —eta Gasteizkoan soilik— eska daiteke autodeterminazioa, bestalde Erregina, Errege espainiarra bezalatsu, ukiezina dela frogatu da.

GRAPO-ko eta euskal preso politikoen aurrera daramaten borroka hortxe dirau, lehenak bizitza galtzeko arrisku bizian daude, dagoeneko GRAPO-ko pertsona preso bat koman sartu delarik. Besteek berriz, ETAkoek, heuren eskubideen aldeko borrokan txapeoa erabaki zuten, bapatean hiltzeko arriskurik ez badute, gerora begira ondorioak osasunez ordaindu beharko dituztela ere.

Euskal Herriko politikak mantso baina aurrera jarraitzen duen heinean, ELA sindikatoaren 7. Kongresua, joko eta Diagraman S.A.aren aferen bapateko isiltasuna —helburuak bete ostean—, abortoarekin navarrista eskuindarren presio erakuste indartsua, Gipuzkoako gobernadore zibila den —edota zen— Goñi Tirapuren aldaketa, Joël Catalá Iparraldean PAFeko komisari buruaren Pariseko Roissy aireportuko arduradun berria izendatzea, Donostiako ospitalean Guardia zibilak balaz zauritutako gaztea oraindik sendatzen aritzeak, aste honetako nondik norakoak ezagutarazten dituzte.

N. ARRASTOA

BETAURREKORIK GABE

Ongi, gaizki, edo eta itxurakarki



ERABAKIAK eta ekintzak, ontzat, txartzat ala erdipurdikotzat jo daitezke, norberaren aburu eta gustora; ongi ala gaizki egina dagoenari buruzko eritzia librea da. Baina begi bistakoa gertatzen da itxurosoa ala itxura traketskoaren arteko diferentzia. Betaurrekoak kenduta ere, adibide frango ikus ahal izan dugu azken egunotan.

INFLUENTZIEKIN trafikatzan omen da. Jakina. Baina influentziak milaka milioietakoak direnean, trafiko arazoak istripu laztzak izan daitezke, ez patuaren esku irristasuetan gelditzen diren halabeharrak, arduradun eta errundunak dituztenak baizik. Indarrean dagoen legediak badu horretan zeresanik, bai eta aginte judizialak hileroko soldatak justifikatzeko biderik ere. Baina honetaz gain, berez dagoen agintea izen-abizenak dituzten ordezkariengan utzi duen gizarteak jakiteko, ezagutzeko eskubidea du, bai eta bere 'sententzia' politikoak emateko eskubiderik ere, ohizko prozesu amaigaberen baten bukaeraren zain egon gabe. Batez ere, hainbat ekintza itsusik legea bete-betean betetzen duela jakinik. Eta, horretarako, kaxa ilunak eduki arren 'gardentasunaren' joko egiten duten demokraziek batzorde ikertzaileak sortarazten dituzte. Euzko Alderdi Jeltzaleari guztiz interesgarria iruditzen zaio formula hau Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Diagrama enpresaren salmenta dela eta. Gasteizen, jokoaren inguruko kontuak argitzeko ez omen da hori biderik egokiena, ez eta Madrilen ere... Polita benetan, itxura bikainekoa guztiz.

TXAKURRA eta katua bezala ibili dira EAJ eta alderdi sozialista non eta noiz sinatuko. Sozialistek gobernuakideek dieten maitasunaren frogak behar zituzten, eta jeltzaleek, pakearen izenean Agur Maria egiteko prest. Azkenan, protokolo hutsera mugatu dute ustez funtsezkoa den diferentzia: bi alderdiek autodeterminazioari buruz duten jarrera, ustez desberdina... Eta gutxitxok ongi ulertzen duena izenpetzen zuten bitartean, hitzerdirik ere ez Legealdia amaitzeko dagoenean aidean dauden arazo larriak buruz.

Iruñean, 'bizitzaren defendatzaileek' Inksiziokide amorratuaren 'gozotasunarekin' aldarrikatzen dute beren biziarekiko maitasuna, bide batez jaio zenetik errenka dabilen Legea (beste zerbaiten faltan emakumearen eskubide garrantzitsuenetakoa defendatzeko lortu den apur bakarra), ezertan utzirik. Eta Goñi Tirapu, Gipuzkoako PSOEkin laudorioen artean, kanpainak salbatu du. Bikaina astea, estiloso guztiz.

NEREA AZURMENDI
(kazetari)

Martin Auzmendi, Euzkadiko Ezkerrako exekutibakoa

«Konstituzioa aurrerakoiagoa da egiten ari den politika baino»

Euzkadiko Ezkerra sorreratik ezagutzen duen Martin Auzmendik autodeterminazioaren inguruan sortu den aferaren bere ikuspegia eman digu Euzkadiko Ezkerrak Donostian duen egoitzan. Honezaz gain, datozen hauteskunde autonomikoetatik aterako den gobernuaz eta PNV eta PSOerekin dituen harremanez aritu gara.



«Aukera handiak ditugu etorkizuna gure eskuetan izateko baina irteera pasatzen da pakto politiko batetik ez pakto juridiko batetik».

ARGIA.— Zergatik ekin dio, zure ustez, PNVk une honetan autodeterminazio eskubidearen aldeko proposamen horri?


Martin Auzmendi.— Politikan askotan gauzak simple gertatzen dira, aldeztu aurretikako estrategia baten barruan egon gabe, eta PNVri oraingoan horrelako zerbait gertatu zaio, zeren Catalunyako parlamentuko proposamenaren onarpenarekin buruan ez zuen erabakia hartu behar izan bait du. Ez dut uste barne arazoak dituelako, edota hausnarketa baten ondorioz hartutako erabakia denik, fortzatua etorri zaio. Heuretako batzuk aitortu dutenez gainera, beraiek kontu honi heltzen ez bazioten, beste batzuk ekingo ziotela zekiten, beraz... Eta kontutan hartu behar da ere, PNV historia honekin hasten dela eta handik egun batzuetara atzera egiten duela. Honen zergatia galdetu beharko litzateke.

A.— Zuk zeuk erantzun.

M.A.— Hau ikusi beharko litzateke Euzkadiko Ezkerrak hartu duen erabakiarekin. EEk aspaldi pentsatua zeukan arazo hau Parlamentura eramatea, ikusten bait zen behin eta berriz kaleratzen ari zen arazoa zela eta egunen batean Parlamentura ere eraman behar zela argi zegoen. Gainera garbi zegoen bai batzuk eta bai besteek ez zutela era oportunistak, alderdi bakoitzaren momentuko beharrei erantzunez erabili behar, era serio batez eztabaidatu behar zela baizik; bide batez alderdiek gai honi buruz zuten eritzia argitzeko balio lezake. Gu jarrera honekin, Parlamentura eramateko jarrera honekin, bi urtez aritu gara.

A.— Zergatik diozu 'eraman beha-

“**I**ndependentziara ezik, daukagun ordenamendu honek edonolako beste antolamenduetara iristeko aukera ematen du”



«PNVk gurekin batera aurkeztuko duen autodeterminazioaren ez legezko proposamena gurea da, EErena. Hori badakite jeltzaleek».

rra'; badirudi eskubideaz eztabaidatu eta nola lortu baino 'eraman behar' horrek ukitu nahi ez den betebeharrak bat behingoz ukitu eta nolabait gaia tratatua dagoela adierazi nahi dela.

M.A.— Ez. Autodeterminazioz Madrilgo gorteetan hitz egin da, hain zuzen eztabaida konstituzionalean Euskadiko Ezkerrak aurkeztutako emendakinak zirela medio, eztabaidatu da komunikabideetan, udal-txeetan, leku guztietan... orduan guretzat anormala zen Parlamentu hau 10 urte indarrean jarri zenetik gai hau oraindik bertara ez joatea. Horregatik esan dut Parlamentura eraman behar zela.

Guretzat erreibindikapen pendiente bat baino ejerzitzen ari garen eskubidea da. Hori ere eztabaidatu behar genuen, zeren autodeterminazioa ulertzeko era bakarra ez bait dago.

A.— Esan duzunaren testuinguruan ulertu behar da jeltzale lerroetatik 'biolentoei kendu beharreko ikurra' zela adierazi denean?

M.A.— Ez. Hori ondorioa izan zitekeen, baina helburua hainbeste eritzi eta hitzen artean hiritarra argitzea izan da, zeren batzuk orain arte uste bazuten autodeterminazioa eskatzea KAS alternatiba defendatzea zela orain ikusiko da ez dela horrela.

Testuingurutik atera den eztabaida da eta Parlamentuan ezik leku guztietan eztabaidatu den gaia denez Parlamentura ere eraman beharra zegoen, eta hartuko den erabakiarekin ikusiko da nola ulertzen den eta alderdiek zer pentsatzen duten.

A.— Beraz, nola ulertzen du Euskadiko Ezkerrak autodeterminazio eskubidea?

M.A.— Herri guztiek izan behar dute autodeterminatzeko eskubidea eta hau Herri batek bere etorkizuna askatasunean erabakitzeko eskubidea da, bai barne erakuntza mailan bai nazioarteko harremanen kontuan. Guretzat, azkenean, autode-

terminazioa hiritarrok gure etorkizuna askatasunean erabakitzeko gaitasuna da, gure etorkizuna askatasunean egunero erabakitzea da. Zentzu honetan esaten dugu autodeterminazioa ezin dela bakarrik begiratu herri batek independentzia izateko edo ez duen eskubidearekin, nahiz hau ere onartu behar den.

Une honetako ordenamendu juridikoak independentziarako eskubidea jaso behar du eta independentziarako eskubide honetara ezik gure eritzi daukagun ordenamendu honek edonolako beste antolamenduetara iristeko aukera ematen du, baina borondate politikoen arazoa dago medio. Zentzu honetan Herri hau erabakitzen, hitz egiten ari da, Estatutua onartzeko bere etorkizuna erabakitzen ari da, hauteskundeetan ere bai. Eta eremu juridiko honetan oraindik garatzen jarraitzeko aukerak daudela baieztatzen dugu eta gero gure etorkizuna gure erara antolatzeke oztopoak baditugu eremu honen barruan bitartekoak aldatu beharko genituzke, Estatutua bera aldatuz eta Konstituzioa ere bai. Herriaren borondatea aldatzeko den bezala autodeterminazioa ere prozesu mugikor bat da.

A.— Baina aurkeztu diren proposamenen edukinak eta gertatu diren erreakzioak kontutan izanik, aipatzen duzun egungo eremua hau nahikoa ez dela eta, adibidez Gasteizko parlamentuak Konstituzio espainiarra aldatu behar dela erabakiko balu, horretarako borondaterik ba al dago?

M.A.— Hortxe dago arazoa. Gaur egun euskaldunon kontra oztopo nagusia gure etorkizuna eraikitzeke garaian ez da Konstituzioa. Nik Konstituzioaren kontra botatu nuen eta egun erreferenduma egingo balitz aldeko jarrera ez nuke agertuko. Zer gertatzen da? Gaur Konstituzioa bera aurrerakoiagoa dela egiten ari den politika baino; hainbat kasu dago zeinetan Auzitegi konstituzionalaren babesa eskatzen den Konstituzioan agertzen diren aukerak lortu ahal izateko. Orduan egindako galderaren harian arazoa ez da bakarrik euskaldunok konstituzioa aldatzea eskatuko bagenu honetarako borondate politikorik ote dagoen, uste dugu ez dagoela borondate politikorik ere dugun konstituzio hau garatzeko. Ondorio zuzena eta hausnarketa sakon baten ondoren, horrek esaten dit dagoen marko juridiko aldatzearen alde borrokatzeak pena ez duela merezi, konponketa ez dagoelako hor.

A.— Ezin delako?

M.A.— Ezin delako eta beharrik ere ez dagoelako. Abertzale guztiok dugun benetakako borroka ea nola aldatzen dugun Madrilék duen Estatuaren kontzeptioa da.

A.— Aipatu duzun borondate politikozarekin eta Madrilék duen Estatuaren kontzeptioarekin euskaldunon etorkizuna gure eskuetan dagoenik esan al daiteke?

M.A.— Bai eta ez. Espainiarren etorkizuna espainiarren eskuetan dago? Madrilék Bruselas eta Estrasburgora gero eta gehia-



Martin Auzmendiren ustez, Euskal Herrian alderdi sozialista indartsu bat sortu behar da.

go begiratzen du, interdependentzia handiago da eta han egiten den legedia bertan aplikatzen hasi da. Hala ere, jasotzen ditugun murrizketa guztiak borondatez onartzen ote ditugun galdetzen badidadzu erantzuna ezezkoa da. Gauza asko dago tartean, kontzeptu asko, gure eztabaida politikoei adierazten duten baino konplexutasun handiagoa dago guzti honetan.

Konbentzimendu osoa daukat aukera handiak ditugula etorkizuna gure eskuetan izateko baina irteera pasatzen da pakto politikoa batetik ez pakto juridiko batetik.

A.— Eta zuk ez diozue beldur nazionalismo espainiarrari?

M.A.— Nik beldur diot baina hemen ere problema gehiago dago, Estatuak nola erabiltzen duen nazionalismo espainiar hori ere kontutan hartu behar da, militarren adierazpenen destinatarioak nortzu diren jakin behar da. Bestalde, PSOEek Espainiaren batasun sakratuaz diharduenean zein helburu duen ere ikusi behar da, zeren PSOEek politika egiteko era bat dauka eta Partido Popular-arekin (PP) duen borroka benetakoa. Harrigarria bada ere, PPK autonomietatik kendu nahi dio boterea PSOERI eta sozialistek bereari eusten diote.

A.— Autodeterminazio eskubidea aldera batera utziaz, orain urte t'erdi ge-

la honetan bertan Kepa Aulestiari egini- niko elkar hizketa batean errenka zebilen gobernuari ez zenietela makulurik jarriko esaten zigun, baldintza batzu bete behar zirela. Badirudi orain tripartitorean sartzeko ahaleginetan ari zaretela, zer aldatu da?

M.A.— Aldatu ezer ez. Guk hauteskunderen ostean gure programa aurrean genuela negoziatu genuen, ez ginen akordio batera iritsi eta ez ginen tripartitoin sartu. Hala ere, hau esan beharra daukat, Euskadiko Ezkerrak nahi izan balu garai hartan gobernuan sartuko zen, eta beranduago ere bai.

Aurtengo hauteskunderen ondoren ikusiko dugu zer gertatzen den, guk ez dugu ez baiezkorik ez ezezkorik esan.

A.— Komunikabide batzuetan ez duite horrela jaso.

M.A.— 'Egin' en agertu dena ez da egia. Guk erabaki dugun bakarra da baldintza egokiak gertatzen badira gobernatzeko borondatea dugula, ez besterik. Hauteskunderetara joan eta emaitzak aztertuko ditugu; guk gure programa gainontzekoenekin erkatu eta adostasunera iristen garen ikusiko da.

A.— Hala ere, garai batean gobernuan sartzeko baldintzak ipintzen zeni-

tuzten eta egun nola edo hala sartzeko irudia saltzen duzue.

M.A.— Irudiak irudi dira eta Euskadiko Ezkerra gobernuan egoteko unean jarriko dituen baldintzak betetzen badira eta bestela ez. Eta tartean arrazoien sinple bat dago: gobernuan egotea ez dago gure eskuetan bakarrik.

A.— Garai batean PSOEek keinuak maiz egiten zizkion EERI, orain aldatu da.

M.A.— Orain ere egiten dizkio.

A.— Eta Euskadiko Ezkerraren PSOErekiko jarrera ere aldatu da.

M.A.— Gure arteko harremanak beti izan dira liskartsuak. Oposizioan gaude eta PSOE ere balego gure arteko harremanak goxoagoak liriateke seguruén. Bestalde, Euskadiko Ezkerra alternatiba bezala egiteko dago oraindik eta, batzuk nahi ez badute ere, Euskadiko Ezkerrak indar autonomo bat izan nahi du, garen bezala gure ikuspegiarekin lan egin nahi dugu eta alderdi guztiarekin harremanak izan.

A.— Eta garai honetan PNVren itzalean dagoen itxura dauka.

M.A.— Irudi hori ematen bazaigu ere, PNVk gurekin batera aurkeztuko duen autodeterminazioaren ez legezko proposamena gurea da, EERena. Hori badakite jeltzaleek. Bihar norekin egongo garen? Agian, konponduko bagina Herri Batasunarekin.

A.— Euskadiko Ezkerrak ez al zuen saiorik egin PSOEekin fusionatzeko; Ezkerrak eta Mario Onaindiak, besteak beste, ez al zuten bilerarik egin; nork egin zuen atzera?

M.A.— Erreka-rena beste historia bat da, nik dakidala ez zen horrelakorik gertatu. Askotan gai asko jende artera nola iristen den ere denok dakigu. Beste gauza bat da ezkerreko alderdiek Ezker handi batean konfiguratzea eta abar. Nire eritzia da Euskal Herrian alderdi sozialista indartsu bat sortu behar dela.

A.— Hori zioen Recalde kontseilariak ezta?

M.A.— Baina arazoa da alderdi sozialista hori Euskal Herrikoa edota beste historia bat den, kontzeptio gisa Euskal Herria duen ala ez. Sozialki ordezkariak handiago duen alderdi sozialista hori ateratzen bada abertzaletasunak zuzendu du.

XABIER LEKUONA

Herria 2000 Eliza-k 'Gizabanako eta kolektiboen eskubideen II. Batzarrea' iragarri

Autodeterminazio eskubidea Herri borondateak aginduko

Herria 2000 Eliza-k iazko urrirako pentsatua zuen 'Giza eskubide indibidual eta kolektiboen II. Batzarrea' martxoaren hasiera arte atzeratu behar izan du, iaz ez bait zen posible izan honen gauzatzea. Egun, ordea, autodeterminazio eskubidearen ez legezko proposamenen Gasteizko Parlamentuaren aurkezpenarekin, erreferentzi puntu izatera deitua dago II. Batzarre hau, gai honezaz aipatu Parlamentuak erabaki ostean hausnarketa sakona egiteko parada izango bait da.

Estatu espainiarrean aurreratu ziren hauteskunde orokorrak zirela medio, Herria 2000 Eliza-k ezin izan zuen sasoi hartarako prestaturik zuen Batzarrea burutu ahal izan. Gizabanakoaren giza eskubideak eta kolektiboarenak zuen gai nagusizat, horien artean autodeterminazio eskubidea ere sartzen zelarik. Martxora atzeratu behar izan zen, eta oraingoan ere, Hego Euskal Herriko egoera dela bide, garrantzi berezia erdietsi du II. Batzarre honek, otsailen burutzekoa den PNV-EEren eta Eusko Alkartasunaren ez legezko proposamenak zertan gelditu diren argitua izango bait da.

«Independentziak interesatzen du»

Batzarrea bi hiri eta bi saiotan burutuko da, lehena martxoaren 5ean Bilbon hasi eta 9an amaituko da eta bigarrena 12an Donostian hasi eta 16an bukatuko da. Etorriko diren hizlarien artean Denis Langlois frantsesa, Piero Basso, Aureli Argemi (katalandarra), Javier Sadaba, Robert Louvin, Guiles Perrault, Hector Gros Spiell, Eva Klotz, Jokin Apalategi... eta beste hainbat hizlarik esku hartuko dute.

Batzarrea aurkezten egon den Ruiz de Olabuenaga soziologoaren ustetan, jurista

ez denez, autodeterminazioaren definizioa alde batera utzi eta honen aurrean herritarrek zer nolako nahia azaltzen duen interesatzen zaiola aitortu digu. «*Batzuentzat autodeterminazioa Estadudun independentzia da, beste batzuentzat ez hainbeste... beraz independentziari buruzko zein eritzi dagoen baieztatu behar da. Hau orain arte ezkutatu edota itxuraldatu egin dute; alde batetik, euskal izatearen definizio artifiziala erabili izan delako, eta bigarrenik, independentziaren gaiak interesatzen ez duela aitortzen delako, aldizkarietan agertzen ez bait da*». Olabuenagaren eritziz hau hanka sartze bat da, «*inkestak ongi eginak dira, baina gaizki irakurriak; adibide gisa, nahiz aldizkarietan ez agertu, nori ez zaio interesatzen heuren semeak bortxatuak izan ez daitezzen?*», galdetzen du soziologo honek. «*Euskal Herriko historia ofizialak datu ugari ezkututatu ditu eta gure lana, soziologoena, herritarren nahia zein den igartztea da*».

Herria markoaren atzetik, markoa Herriaren atzetik?

Gaia Parlamentura eraman eta bertako parlamentariak erabaki eta kitto egitearen kontrakoak da Olabuenaga soziologo eta

irakaslea, politikariek Herriaren ordezkartza badute ere, «*Herriaren nahiak zehaztu, xehetu eta formulatu egin behar dituzte baina politikariek ez dakite zein den Herriaren nahia, norberaren alderdiaren ikuspegitik hitz egiten bait dute, beraz hausnarketa sakonak behar dira ez arinak*» esanez amaitzen du.

Jokin Apalategiren ustetan autodeterminazioaren afera ez datza eskubide honen definizioan, hau onartua bait dago orohar, Herrian, hau da, sujeto horretan baizik. «*Estatua eta Herria ez zen bereizten orain gutxi arte baina egun Estatu batean Herri desberdinak izan daitezkeela bereizten da, Nazio desberdinak eta hauek beren ibilbideak hautatzeko eskubidea ere badute; era berean, gutxiengo etniko batzu ere badira Estatu horietan eta hauek beren eskubideak izan behar dituzte*».

«*Marko juridiko-politikoak —jarraitzen du— giza kolektibo sozialarekin batera irristatu behar du eta hau aldatzen doan neurrian juristek aldatetak ezarri behar dituzte, Konstituzioan edo edonon, bestela haustura dator... Ez dute balio 'markoak ez du hortik pasatzen uzten, hori ez da legezko marko honetan'... eta horrelakoak; hau esatea astakeria bat da, horrek esan nahi bait du Herria markoari makurtu behar zaiola eta alderantziz izan behar du, derrigorrez*».

Martxoan, Herriak 2000 Eliza-k loturik makina bat jurista, soziologo, politikari eta pentsalarik heuren hausnarketak egingo dituzte, Gasteizko Parlamentuan autodeterminazioaren eskubidearen aldeko proposamenei euskal politikariek boza eman ostean.

Kristina Cuesta, «Gesto Por La Paz»eko lehendakari

«Gobernuak interes politikoak bizitzaren aurretik jartzen ditu»

Kristina Cuesta «Coordinadora Por La Paz»eko partaide da eta GRAPO eta PCE(r)ko kideek daramaten gose grebalariei buruzko iritzia eskatu diogu. Politika munduan bakearen alde tinko ekin nahi duen emakume gazte honek, gose grebalarien bizitzarekin jokatzeko ari dela uste du.



Kristina Cuesta.

ARGIA.— Une honetan GRAPOko preso politikoei gose greba bat daramate aurrera, zer deritzozu honetaz?

Kristina Cuesta.— Hau elkartasun arazo bat da. Ezin dezakegu begirik itxi, larritasun handieneko kontua bait dugu. Bizitzak daude jokoan eta berehalako konponbidea behar da. Orduak aurrera doaz eta eta nire bakegile lanean sinesten dudanez, balore handiena denarekin, bizitzarekin, jokatzeko ari dela uste dut.

A.— Nola konpon daiteke arazoa?

K.C.— Argi eduki behar da, konponbidea ez dela bakarrik eskubidearen mailan hartu behar eta niretzat soluzioa berehala hartu beharko litzateke. Niretzat, Gobernu eta Justizi ministeritzek beraien jarrera malgutasunez hartu beharko lukete eta espetxeratuena nahiak onartu, hilketarik ger-

ta ez dadin. Edozerren gainera, bizitzak daude jokoan eta asmo politiko guztien gainera, bizitza hauek errespetatu behar dira. Instituzio guztiek, eta batipat DGIPk, zeinak bere kargu duen espetxeratuena bizitza, pertsonen osotasun fisiko eta moralaz arduratu beharko luke.

A.— Zerk bultzatzen du talde hau erabaki hau hartzera?

K.C.— Ezin dezaket arazoia zein den esan. Gustora egingo nuke gose greba partaide hauetariko batekin elkarrizketatxo bat. Badakit beraien egoera limitea dela baina ezin dut beraien kontzientzietan sartu.

A.— Zer iruditzen zaizu, Moscosok luzatutakotako agindua. Indarrez elikatzea legezkoa ez dela dioten epai-leen erabakia errekurritzeko agindua luzatu dio fiskalei...

K.C.— Gose grebalariek, beraien bizitzak erabakitze askatasuna dute, errespetatu beharra dago. Baina hori bai, konortea galdu ezker, nik elikatu egingo nituzke, ekintza humanitario bat litzateke. Baina, lehenik beste neurriak hartuko nituzke, beraien eskaerak onartu.

A.— GRAPOkoek, jarrera baketsu baten aurreran indarrezko jarrera bat ezarri zaiela diote...

K.C.— Ulertezina da. Interes konkretuak daude jokoan.

A.— Bizitza hauek jokoan daudela ikusiz, ez al duzue konponezinezkorik gertatu aurretik, bizitza hoien alde ekitea pentsatzen?

K.C.— Erakunde bezala, komunikatu bat kaleratu dugu baina ez dugu planteatzen inolako ekintzarik egiterik. Gure eginkizuna biolentzia politikoaren erradikalizazioaren aurka ekitea da, ez ordea honetaz lan egitea. Hala ere bi arazoetatik arduratu gara honetaz; batetik hurbiltasun geografikoetatik eta bestetik bizitzak daudela jokoan. Baina horregatik bakarrik. GRAPOk azken denboran egin dituen atentatuak eman direnean ere ez gara mobilizatu. Egoera erabat larria da baina ez dugu mobilizaziorik egingo.

A.— Baina presoekin jokatzeko ari direla uste al duzu?

K.C.— Nire ustez, bizitza hauek «moneda de cambio» deritzaiona bihurtu dituzte. Egia esan lehen komunikatua urgentziakoa izan zen eta orain arazoa aztertzeko beste bilerak bat egitekotan gara.

A.— Beraz, joko politikoa bilakatu al da?

K.C.— Mota honetako egoera baten aurrean ekin beharra dago. Bizitzekin jokatzeko ari dira. Interes politikoak ari dira aurrejartzen, giza bizitzak baino lehen.

Banan-bana

TRASLADOAK

Eloi Uriarte, euskal errefuxatu politikoa, Bretainiatik Mosellera izan da trasladatua. Bosgarren aldia da frantses poliziak euskal

errefuxatu hau lekuz aldatzen duena eta gainera honako honetan, Mamarru dagoen hotel berdineran eraman dute Eloi Uriarte. Orain, Delmes herriko hotel batean aurkitzen dira bai Mamarru eta Uriarte, bakoitzak polizi bijilantzi oso hestua duelarik.

CASSABONNE

Jean Philippe Cassabonneren berehalako eta inolako baldintzarik gabeko askatasuna eskatzen diharduen martxak frantses Estatu osoa iragango du. Pautik hasita, igande honetan Parisen amaituko da mar-txa, zeinak hiri bakoitzean manifestaldi ezberdinak burutuko dituen Frantziako sindi-

katuen, ikasle sindikatuen, Giza Eskubi-deen Liga eta beste zenbait taldeek lagunduta. Frantzia eta Espainiaren arteko elazioak kolokan jartzen dituen kasu honetan, ahalegindu izan da Espainia «propuestas de gracia» ezberdinak eskaintzen, baina frantses gazteak uko egin dio beti. Igan-dean mitina eta kontzertua antolatu dira, ondoren espainiar kontsulatura abiatuz, frantziarraren askatasuna eskatzeko.

ELKARTASUNA

Otxandioko udaletxea, euskal preso politikoen eskubideen alde agertu da. Herri honetako lau euskal preso politioen seni-deek aurkeztu zuten mozioak, PNV eta

HBren elkartasuna lortu du. Erabaki honek, herriko presoek jasan beharreko egoera salatzen du eta Otxandioko udal-txean harturiko erabaki honetan, espetxe-ratuen senideek, presoek jasan behar izaten duten «giza eskubideen zapalketa»ren berri eman zuten.

Arrastoa

Justizi ministeritzak elkarrizketa ukatu grebalariekin

Espainiar justizi ministeritzak zenbait erakunde sozial eta erlijiosoek luzatu dien eskaintzari uko egin dio, GRAPOko gose grebalariekin inolako negoziatorik onartu gabe. Talde honetako gose grebalaria batzuk laister hilko direnean, Madril erabat gogor eta malgutasunik gabe aurkeztu da, sektore ezberdinetatik esakaturiko elkarrizketak baztertzeko orduan.

Bitartean eta Moscosok agindu bezala, gose grebalaria indarrez elikatzen ari dira Madril aginduetara dauden funtzionariak. Hilzorian dauden grebalaria batzuk jarrera utzi duten bitartean, beste kide batzuk gose greba hasi dute. Baina Madril ez dago bere kargu legokeen inolako hilketarik gertatzeko prest eta hilzorian dauden borrokalari indarrez sartzen diete janaria. Basurtoko hospitalean dauden grebalariekin artean dagoen Teresa Gonzalez kideari, bere gogoz kontrako eta beharrezko elikadura ezarri zaiola azaldu zuen, hospitaleko zuzendaritza berak.


Ixilpekoak

«Barrutik» kalean

Euskal Preso politikoez egiten duten «Barrutik» aldizkariaren bigarren zenbakia atera da kalera. Aldizkari hau Estatuan espetxeraturik dauden euskal preso egiten duten aldizkaria da eta Madrilera idatziak kanpora ateratzeko oztipo guztiak jartzen dituen arren, lortu dute bigarren zenbakia ateratzea. Lan ezberdinen artean, Euskal Herriari zuzenduriko agiri bat aurkitzen da. izan zaio Iparraldeko 9 departamentuetan egotea.

Urdian Zirizarren extradizioari, baiezkoa

Armaz buruturiko lapurretaren salaketa dela eta, Espainiak Frantziari Jose Ignazio Urdian Zirizarren extradizioa eskatu dio, eta honek baiezkoa eman du. Epaitegiak hala ere, Zirizarrek 10 bat atentatuetan parte hartu omen zuenaren Madril leporaketa eskaera, frogarik gabekoa dela aipatu du.



EEk gose greba uzteko eskatu

Euskadiko Ezkerrak gose greba aurrera daramaten GRAPOko presoek ekingiza hau utz dezatela eskatu die. Talde politiko honek kaleratu duen agirian, giza bizitza balore handiena dela aldarrikatzen du eta beraz jarrera hau utziz, administrazioarekin elkarrizketetan hastea eskatzen die. Beraien ustez grebalariek helburu batzuen lorpenagatik ari omen dira borrokan eta beraz bizirik jarraitu eta gose greba uztea dela bide bakarra aipatzen du.

Sovietar Armadak nolabait eusten hegoaldeko mugei

Moskurentzat zabalik

Kaukasoko frontea

Mijail Gorbaxov Lituaniar Baltikoko errepubliken independentzia nahia eztabaidatzen zuen bitartean, Nagornu Karabaj-eko eskualde autonomoan azken urteetan, eta bi hilabeteotan bereziki, armeniar eta azerien artean gertatu tirabirak alarma gorria pizteraino heldu dira.

Komunitateon arteko borroka etnia eta erlijio arazoetan oinarritu gatazka historikoa izanik ere, azken egunotan izandako istiluek areagotu egin dute bertako egoera, kolokan utziz perestroika eta bere eragilearen doktrina guztia.

Istiluak Gorbaxov Soviet Batasuneko bigarren foko konfliktiboa baretzera abiatu zen momentuan gertatu ziren, lituaniarren independentzia eskaerei erantzutera joan zen une berdinean alegia. Armeniar eta azerien enfrentamendu bortitzak, gutxietsia ordura arte, gerra zibil tajua hartu zuen bi hilabeteren buruan, eta Baltikoko arazoa konpontzeke, Soviet Goreneko Presidiumak Nagornu Karabajen espezio egoera ezartzea erabaki zuen urtarrilaren 15ean, botere bereziak eskainiz honela ejerzito soviatarri. Izanez ere, bi egun lehenago 34 hildako gertatu ziren Bakun, Azerbaidjango hiriburuan, «pogrom» deituraz ezagutzen den armeniarren aurkako erabateko sarraski batean. Ekintza honen aurretik, Karabajek jaki eta kontsumo ondasunen isolamendu egoera nozitu zuen, iturri atzeritarrek 660 emakume eta umeen ebakuazioa plazaratzen zutenaldi berean.

Gerra zibiletik gertu

Moskuk aldarrikatutako larritasun egoera mantendu arren, Azerbaidjango Fronte Herritarrak boluntarioak onartzeari ekin zion hurrengo egunetan, be-

re gerrila ekintzei jarraitu ahal izateko. Soviet Gorenak mitin eta ikuskizunak debekatuko ditu, eta Moskuk tropa berriak bidaliko ditu bertakoei laguntzeagatik, Afganistango soldadu herriratu berriak bertan lerrotuko diren bitartean. Gunerik gatazkatsuen Xaumain eta Getaxenk erregioen artekoa bihurtuko da. Parisetik, une berean, armeniar komunitateek, Xarles Aznavur buru delarik, alarma gutuna bidaltzen diote Gorbaxovi.

Buruzagi soviatarrek ordea, soldaduen interbentzio militarra agintzen duen agiria sinatuko du urtarrilaren 19an, «bake kanpaina»ren hirugarren egunean juxtu. Erabakia Barne Ministraritza, Ejerzito eta KGBko tropek jasan erasoen ondoren gertatu zen, soldaduei «hiltzera jaurtitzeko» aginduz. Gerra zibila gertu, bost mila armeniar ebakutzen dituzte, eta Tass agentzia ofizialak 56 hildakoren berri argitaratzen du.

Gorbaxoven agindua egun bereko ilunabarrean bete zen. Soldaduen sarre-
rak Azerbaidjango Fronte Herritarra mugiarazten du, eta egoeraren aurrean, greba orokor mugagabea antolatzea erabakitzen du hildako guztien hileta egunean. Azken datuen arabera, zerraldoen kopurua 83ra iristen da, bertako buruzagiek «ehundaka hilez hitzegiten duten bitartean. Horrez gain, desobediencia zibila azalduko dute, hari eta «tropa sobietarrak bertatik irten arte»:

«Inork ez du lanik egingo Ejerzitoa hemen dagoen bitartean, ezen hau okupazio militar hutsa besterik ez bait da», adieraziko du Fronteak komunikatu batean.

Greba egunean, urtarrilaren 22an, kasik milioi bat azeri biltzen da beren hildakoei azken agurra eskaintzera; Azerbaidjango Osasun Ministraritza, 78 pertsona zibilen heriotza salatuko du; Errepublikako Legebiltzarrak bestalde, soldaduen irteera eta larritasun egoeraren amaiera eskatuko ditu. Azeriak ultimatum ezarriko diote Soviet Gorenari: *«Ejerzitoak ez badu egun baten buruan aldegiten, Parlamentuan SESBeko sesioa eztabaidatuko da».*

Mosku ixildu egiten da momentuz, baina gertaeren norabideak mendebaldeko buruzagien kezka aregotzen du, Gorbaxoven amaieraz beldur. Mijail bakarrik aurkitzen bide da. Larritasun egoeraren erabakia bere sinadurapean agertzen da soilik eta Ieltsinek Tokiotik bidalitako kritikek ez badute astoratzen ere, kapitain azeriek Itsaso Kaspiar ondoko beren petroleo untiak ondoratzeke mehatxuek otxandu egin dute bere agindua. Garry Kasparov munduko xake txapelduna, arazoaren artekari bezala eskaintzen du bere burua.

Nolanahi ere den, Ejerzito soviatarren indarrak erresistentzia armatua apurtzen du urtarrilaren 24ko gauean. Hildakoen kopuru ofiziala jadanik 99 pertsonetan kokatzen da, ehundaka atxilotu gertatu delarik. Azkenik, Azerbaidjango Fronte Herritarrak ezin izan du momentuz bere helburua erdietsi: *«Ez dugu Islamiar Iraultza baten alde borrokatzen. Estatu demokratikoa eta laikoa nahi dugu bakarrik».*

Partidua eta Armada ere alde ditu momentuz

Mendebaldeak eskuak libre utzi Gorbaxovi Kaukason

Astebete lehenago Lituaniako Vilnius-en esaten zuen Gorbaxovek, «indarrak ez zuela deus ere konponduko». Orduan piztu zen Kaukasoko sutea.

Jada armeniarrekiko zauri zaharra ondo irekita zegoenean (1988, martxoan, izan zen Sumgait-eko armeniarren sarraskia), 1988ko bukaeran, Azerbaijango Fronte Popularra sortu zen eta 1989ko bukaeran legezatu zen, eta segidan kolumnetan antolatu zen. Ondoren, orain hiru aste, izan ziren muga erreketak. Bitartean, errepublika horretatik milaka armeniarrek alde egiten duten denbora ber, 150en bat mila izango dira dagoeneko Armeniatik ihes egindako azeriak, zeina arazo handia bilakatu bait da Baku-rentzat. Ez da ahaztu behar Uzbekistandik 30.000 turko mesjeta ere iritsi zela ihaz Azerbaijana, hango

etnia borroketatik eskapoan.

Parean, Armeniar Mugimendu Nazionalean antolatutako militanteak dituzte, berak ere oso aktiboak. Ikusi batera, badiudi azeriek euren mugetatik landa inoiz beste euskarririk izan lezaketen bezala, armeniarrek, beren herria alde batera, inor ez dutela, non ez bait da Mosku bera.

Azerbaijanen hanka sartuta, Afganistango usaina aditzen dute Moskun. Edo eta Libanokoa, gehiago. Razid Kaplanov, soviatar historialariak, esan du: «Ez dut irtenbiderik ikusten. Egoera kontrolatzea posible litzateke, teknikoki, hala-nola britainiarrek Ipar Irlanda kon-

trolatzen duten». Horrek esan nahi luke Gorbaxovek, pentsa litekeenaren kontra, menara egin dezakeela situazioa.

Hauteskundeen arriskua

Baztertzen dute, horrela, soegile batzuek, kolpe atzerakoiaren posibilitatea. Beharrezko zaie soviatar Partidu eta Armadari Gorbaxov, berak bakarrik jaso bait dezake, momentu batean, Etxe Zuriaren bedekapena, Baku-n tropak sartu zituenean gertatu zen bezala, eta berak bakarrik lor dezake mendebaldeak, delikatuki, Baltikoko independentizaleei boikota egin dezaien.

Hauteskundeetan ikusten dute beste batzuek Gorbaxoventzako hurrengo arriskugunea: gako diren errepublika horietan Fronte Popularrek maioritariok bait dirudite.

«Sentimentu nazionalisten berpizteak



Armeniar nazionalisten manifestaldia, Erevango kaleetan.



Gorbaxov: Barruan, noraino?

denon tragedia» ekar dezakeela, esan du Gorbaxovek Lituaniako bueltan. Itxuraz planak Kaukason okertu zaizkio. Baina, zehazki, *sezesia* delarik etsaia, Baltikoko mugimenduak izan daitezke arriskugarriagoak, dituen asmoetarako.

Mendebaldean interpretazioa egiten da sarri, Alemaniarekin eta ekialdeko Europarekin joko makurrik egiten ari ote den Gorbaxov, alde horietan —ezinbestez, noski— amore ematen ari ote den, ekonomia maila onean paratze-ko behar duen laguntza (tekniko, finantzieroa) eskuratu bitartean —eta gero kontra itzuliko dela.

Garbi ez dagoena oraingoz zera da, Sovietar Batasuna *barruan*, eta nazioei dagokienean, noraino amore emateko prest dagoen. Mendebaldetik, Kaukasorako behintzat, bidea libre du, Errumanian izan zuen bezala, hango gerra nahi edo ahal duen gisa konpondu dezan.

PABLO SASTRE

Teheran eta Ankara, erne eta zuhur



Rafsanjanik: Ez daitezela tronpa.

Iran: Moskurekin koordinatu

Irango gobernuak moderazioz erantzun du soviatar Armadaren interbentzioaren aurrean. Xafei, azeriar lurraldeko Ta-

briz-ko deputatuak, eskatu die, soviatar azeriei, «legez kanpo ez jokatzeko eta bake-bidez konpontzeko auzia».

Moskurekin ongi etorri nahi bait du Teheranek. Azeriar nazionalismoaren beldurra da, horren arrazoi nagusia. Moskuko buruzagiekin aritu dira, Azerbaijandjan independente baten sorrera nola ebitatzeaz buruz.

Iran aldeko azeriek ere bai bait dute beren historiatxoak: urruna gabe, 1945ean, Jafar Pixevari-k errepublika autonomoa aldarrikatu zuen, eta 1979an, islamiar iraultza zela bide, Tabrizen errebolta bat izan zen, Xariatmadhari ayatollah-ren eskutik, berri ere Estatuaren batasuna arriskuan jarri zuena.

Kontaktoak ugaritu dituzte Moskua eta Teheranek. Rafsanjanik eskatu dio Gorbaxovi, «ez tronpatzeko azerien sentimenduei buruz»: sentimendu etnikoak liritekeenak, ezen ez nazionalistak.

Hori ez dago batere garbi, garbi dagoena da Iranek ez diela mugaz bestaldeko azeriei lagunduko, trukean Irak-ekiko auzian SESBen euskarri diplomatiko eta militarra galdegin dezakeelarik. Horretan Irango boterea etxe barruko islamzalerik erradikaleneekin enfrentatu da, hauek beren erlijio anafei armaz ere laguntzeko eskatzen bait dute.

Turkia: panturkismoaren itzala

Moderazio berdintsuz erantzun du Ankara, turkoentzat, «panturkismoa» dela eta, azeriak «lehengusuak» baldin badira ere —behin ere Inperio otomanoarenak ez izan arren, eta xiitak izanagatik.

Azeri mordoska bat bizi da Turkiako Estatuan, horietarik milaka batzuk manifestatu direlarik egunotan Armeniako mugan, «Armada gorria Azerbaijandjan kanpo» oihukatuz. Turkia parteko azeri horiek Kongresu bat egin zuten urtarrilaren 14ean, Azerbaijandjan independente bat errebindikatuz.


Hurriyet egunkarian Bulgariatiko errefuxiatu turkoek arduratzen den E. Konukman Estatu ministrariak esan duenez, Txinan eta SESBen populazio turkiarrak altxatuko dira, eta independentzia lortuko dute. Deklarapen horien ondorioz bere dimisioa eskatu da Turkian.

Dena den, panturkismoaren beldurra bada beti ere bazterretan. Turkiar jatorrizko herri horiek Europa eta Asiako lurralde izugarri zabaletan hedatzen dira: turkoak (50 m.) alde bat, uzbekoak eta azeriak dira populutsuenak, 18na milioi lagunaz, ondolik kazajak, tartaroak, uigurak, turkmenoak, kirgizak datozelarik. 120 milioi lagun denera, demografia azkarrak eta ia denak musulman.

Armeniarrek populazioaren %75a osatu arren

Nolaz iritsi zen Nagornu Karabaj azerien eskuetara

Nagornu Karabaj: gehiengo armeniarra izan baina legez Azerbaidjan-goan den lurralde autonomoa. Han piztu ziren, 1988ko martxoan, bi herriak gerrabidean jarritako suak.



Araxe ibaiaz alde bitako azeriak.

Irango *sha*-en aintzineko udaleku zen Karabaj-eko lautadan, persiar inperioaren «sujetak» ziren azeriak bizitzen ziren, aldiz «mendietako Karabajen» (=Nagornu Karabaj), menpeko ziren armeniarrek batzen ziren. Populazio turko eta irandarrak nagusi ziren ekialdeko Xirvan-dik eta mendebaldeko Najitxevan-dik aldegindako armeniarrek ziren horiek. Lurralde guzti horiek errusiar Inperioak eskuratu zituen, XIX.aren hasieran.

Anatolia-Kaukaso bidean

Errusiarrek 1868an egindako zatiketa administratiboan distrito bakoitzak bazuen bere lautada eta bere mendi partea. Ekonomia elkar osagarriak ziren, azeriek udaz mendiko belarrak baliatzen zituztelarik eta lautadako zerealez hornitzen zirelarik berriz goi-

kaldeko armeniarrek.

1914ean, Iran-Errusia mugaz gora, hauexek ziren eskualdeak, ekialdetik mendebalderantz: Xirvan-go lautada; Karabaj; Hakaru bailara (orain Nagornu Karabaj eta Armeniako errepublika bereizten dituen, non kurdoak eta azeriak bizi ziren); Zangezur (gaurko Armeniaren hegoaldea, aldiari 120.000 azeri eta 100.000 armeniarrez); eta Najitxevan (80.000 azeri eta 54.000 armeniar). Araxe ibaiaz bestaldera, Iran barruan, azeriak bizi ziren, Maku-ko *janat*-ean.

Lurralde guzti horiek bide bakar batek lotzen zituen, Anatolia eta Kaukaso-ko populazio turkoak batzen zituen. Gehiengo armeniarra zuten Karabaj-eko mendiak, Azerbaidjango lautadaren gaineko mira-leku ederra bestalde, bide hartan «oztopo» bakarra zatekeen.

1918an, errusiar iraultza profitatuz, Enver Pacha-ren eraso panturkoa izan zen: populazio turkoekiko lurrak bereganatzera jo zuen. Najitxevan hartu eta gero, aurrera egiteko, ongi defendituta zegoen Zangezur-era gabe, Leninakan-Kirovabad bidea hobetsi zuen. Hala iritsi zen Baku-ra, eta handik bueltan meneratu zuen Karabaj, Turkia aliatuen aurrean errenditu baino hiru aste lehenago.

1920ko gaurdainoko partiketa

Kaukaso utzi zuten orduan (1918) Turkiako tropek eta sortu berri ziren Armenia, Azerbaidjan eta Georgia-ko errepublika independenteak ingeles esku geratu ziren. Tirabira frankoren ondoren, ingelesek armeniarrek gobernatzen zuten Karabaj azeriei eman eta Najitxevan okupatu zuten (1919).

Armada gorria aurrera zetorren. Turkia eta Sovietar Batasuna aliatu gertatu ziren hartan. Karabaj izan zen Armada gorriari kopeta eman zion azerien azken gotorlekua, eta erori zenean Armeniak okupatu zuen. Alta bada, segituan (1920, abuztua) sinatutako akordio baten arabera, Karabaj, Zangezur eta Najitxevan-en Armada gorria sar zedin onartu zuen Erevanek.

1920ko abenduan Armenia soviatar errepublika bihurtu zen. 1921eko martxoan berriz, armeniarrek armetan altxatu ziren; gerra galdu zuten baina, Zangezur-en errefuxiatu ziren. Kavburo-k (sovietarren botere-organoa Kaukason) erabaki zuen orduan, Karabaj eta Najitxevan azeriei ematea, autonomia zabal banaz, eta Zangezur berriz armeniarren esku uztea.

Larrun



ASKATASUNARI
BURUZ,
GURE
ALEAK

HONA GURE

ANtZA
FOTOKONPOSAKETA
INPRIMATEGIA

INPRIMATEGIA

Mundaiz bidea, z/g
20012 DONOSTIA
Tel.: (943) 274711
(943) 274721

Sakana eta Aldudeko proiektuek herri erantz desberdina ekarri dute

EUROPARA BIDEAN ERREPIDEAK KEZKAGARRI

Oso arduraturik dabil Euskal Herria Leitzarango autobia dela eta. Ordea, ezin ahanzi dugu, badirela bestelako errepide proiektuak. Gaurkoan, Sakanakoa, eta Alduden gaindi Iruñea eta Baiona lotzen dituen errepidearen berrikuntza dakartzagu orriotara. Bistan dena, badute zeinek bere munta.



Irurtzango barianteak lotuko lituzke Sakanako eta "del norte"ko autobiak.


«**E**rrepideetan dugun gibelamendua 20 urtekoa da Europaren aldean». Gabriel Urralburu presidente nafarraren hitzak dira arestikoak, Nafarroako Gobernuak egun dituen kezken adierazgarri. Izan ere, Iruñea inguratzan duten kamio herrien ugalketaz gain, inbertsioetarako hiru urtetako azken plangintzan, honako errepideen hobekuntza sartu dute hain ezagun bihurtu duten autobiaz gain: Iruñea-Huesca; Iruñea-Logroño; Iruñea-Behobia; Iruñea-Madrid; Tuter-Zaragoza; Ebro ibaiaren ardazgunea; Araba-Lizarr-Tafalla-Zangotza ardazgu-

nea eta egun ikutuko ditugun beste bi: Irurtzundik Altsasura joanen litzatekeen Sakanako autobia batetik, eta Baionatik Iruñera joateko Aldude barna iragaten den kamioaren berriztapena.

Ez dira kasu iduriak, izan ere, Sakanakoak zer esanik asko eman du komunikabideetan nahiz jendarteetan; Alduden barna lihoakeenak ordea, ez du zurrumbilo den mendrekorik sortu, eta begien bistakoa da ekologian eragin askozaz ere handiagoa lekarkeela bigarren honek, mendi eta basoetan gaindi bait doa. Ordea, jende gutti bizi da ingurumarietan, eta irudi luke inork ez duela kalterik jasanen.

Nafar Gobernuaren plangintza

Europaren mamuak astoraturik, dena da presa eta gauzak lehen bait lehen egin beharra (ezagun du presa hori Sakanako autobiaeren proiektuak, hutsune bizizkoak hain izanik ugari). Nafar gobernuak, errepide eta uraren afera "konpondu" eta lotu nahi du ahalik lasterren, 92a ate joka, eta nabarmen gelditzen da hori inbertsio eta plangintza nagusietan. Azken plangintzatik hona %133 goratu da obra publiko, garrario eta komunikabideetarako kontseilari-



Urralburu eta Grenet proiekturako hitzarmena sinatzen Paben.

tzaren aurrekontua. Aldiz, bestelako gai batzuei itxarotea dagokie, transferentziei bereziki. Urralburu berak aitortua da hezkuntza eta osasun biderei dagozkionez oraingoa baino aldi hoberik izan beharko dutela, orain garrantzia duena 92. urteko trenaz ez galtzea bait da.

Honela, 89, 90 eta 91. urteetako dirugintzan 120.000 milioiko inbertsioak egingen

direrarik, herena baino gehiago dagokie errepideei, 43.000 milioi hain zuzen. Oinarritzko azpiegiturako gainerateko sailai berri 33.000 milioi. Nekazaritza, industria, salerosgoa edo turismoa biltzen dituen bigarren sailak 11.000 baino ez, eta hirugarren sailerako, hezkuntza, kultura, kirola, osasunbidea, giza zerbitzuak, ingurunea, etxebizitza edo lurraldearen ordenamen-

SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Presaka egin dute autobien proiektua

Lurraldearen ordenamenduaren zain urteak daramatzalarik, autobien proiektu hau ezarri diete kolkotik Europa dela eta. Bazkaleku eta lur landuen irense, Sakana barneko harremanetarako kaltegarri dakusate.

Sakanako herriek eta Ibarreko mankomunitateak gaitzetsi egin du erabat nafar gobernuak ezarri nahi duen autobien proiektua. Ibarreko ingurune ordenamendua egin gabe dagoelarik, ezin kontsumo daiteke honelako errepide ordenamendua gero horren arabera egiteko. Lehenik Sakanaren behar guztiak aztertu behar dira, barne harreman sozio-ekonomikoak kontutan izan, eta ez soilik pasako trafikoa aintzat hartu, bertakoa ere gogoan izan behar da. Autobia egitekotan, beste errepide berria behar litzateke Sakana barneko harremanetarako, autobiak ez bait du hau

posible egingen. Gobernuak ez zuen legean hori onartu nahi, baina azkenean aitortu egin dio hori mankomunitateari.

Autobien alternatiba gisa oraingo kamioaren hobekuntza edota bikoizketa planteatzen da. Honela ez lirateke 30 edo 40 hektarea baizik galduko, kostua 10.000 milioietan merkatuko litzateke, eta garrantzizkoago dena, Sakana barneko merkatal harremanei ez zaie eragozten (traktoreak ibiltzen ahal dira, autobian ez bezala; ez da gainera autobia, autopista baten baldintza guztiak betetzen ditun proiektuak).

Mankomunitateko ijienari den Enrique Miranda aritu da alternatiba errealaren aztertzen, eta ibarrean barna informatzeaz arduratzen den taldea etengabe ari da lanean.

I.C.

Sakanako barne harremanei kalte handia egingen lieke autobiak

dua biltzen ditueneko, 28.000. Guzti honetan aipatzekoa da gobernu zentralak ez duela %5 baizik subentzionatzen. Nondinahi begiraturik, argi gelditzen da gobernuaren uste nagusiak zein diren.


Sakanako autobia

Irurtzunen egingen den bariantea Altsurekin lotuko luke autobia berri honek. Proiektuan bederen 1989.ean hasi eta 1992.ean bukatzekoa 26 kilometroko luzera luke eta hamar lotura herri txikiek. Antonio Aragon kontseilariaren ustez ezinbestekoa da autobia hori, eta bide batez ingurune lanik eza momentuz gaintzen lagunduko luke; autobiak segurtasuna lekarke ere istripuak direla eta. Berebat, elkar hizketarako prest dagoela azaltzen du, kritikak onartuko dituela eta inguruneari planik eta kalte guztien egitera entsegatuko direla.


Sakanan trafikoak duen eragina nabarmena da, egunean 6.000 ibilgailu iragaten bait da bertatik, hauetarik %35 kamioiak izanik. Esatekoa da ordea, MOPU izenekoaren arbera, autobia justifikatzeko 12 edo 15 mila ibilgailuko trafikoa behar duela kamio batek. Egin asmo den autobiak, 15.000 milioietako hozkada lekarke, eta 80 metrotako zabalera izanen du. Hartuko lukeen lurra, bazkaleku eta lur landuaren artean 250 hektarea.

Sakanako herrietako ordezkariek ustez eta bertako mankomunitatearen arabera, berebiziko kalte ekarriko luke autobiak, eta alternatiba berria gisa oraingo kamioaren hobekuntza edota bikoizketa legoke.

Ez da kezka girorik somatzen Aldudeko proiektuari buruz



Esnazura bidean mendi ebakuntza goi Nafarroako Eugin.



Idiak orgaren aintzinean ezarri ditu nafar gobernuak Sakanako enustez.

Baionatik Iruñera

Urtebetetsu badu Urralburuk eta Grenet Baionako alkate eta Pirineo Atlantikoetako kontseilu nagusiko buru denak errepide horren hobekuntzarako akordioa Paben sinatu zutela. Akordio horren arabera, administrazio bakoitzak bere esku duen lurraldeari buruzko arduratuko da, baina elkarren berri izanik eta aldiro bilerak eginez. Proiektua hasirik dagoela, 93. urteko abenduaren azken egunerako buruturik behar luke. Kostua 1.600 milioietakoa da nafar administrazioarendako, 55 milioi liberakoa

iparraldekoendako berriz. Nafarrei dagoen eremua Eugitik Esnazun dagoen muga politikora dauden 15 kilometroak hobetzea da. Behe Nafarroako lurretan berriz, Arrosa, Baigorri, Banka, Aldude, Esnazu da berritu beharreko ibilbidea. Ikusten denez, luzeagoa da iparraldekoena baina merkeagoa, konplexuagoa herrietan zehar doalako. Goiko Nafarroari dagokiona ordea, zailagoa da mendi eta lepoak medio.

Bitxi eta adierazgarri gerta daiteke protokoloetan erabilitako diskurtsoa. Urralburuk, elkarrekiko historia izanik, azken urteetan berezi xamar ibili garea dioen, "Na-

varra del Norte" bezalako hitzak erabiltzea, eta Pirineotako ixuriko bi eskualdeen arteko harremanen ertsatzea beharrezkotzat jotzen duen, bateratze politikorako oraingo asmoei muzin eginik. Grenet ere antzera mintzatzen zen, bozkariakin Urralburu Espainol gisa dihoala Frantsesengana, eta Gasteizko Gobernuak balukeela horretan zertan ikasi. Horrez gain, gauzak baretzeaz, komunitate autonomoarekiko, folkloreaz gain bestelako harremanak ere sendotu beharrak zirela zioen, jakina, Urralbururen diskurtsoa erabiltzen duten ber.

Ekologiango eragina

Ezagun da ekologian eragin handia lukeela errepide hobekuntza honek. Goi Nafarroan mendi eta basoetan izanen duenaz gain, Arga ibaiaren iturburuangoa da garrantzizko, diputazioaren proiektuan ibaia desbiratzea heldu bait da. Bestalde, eta Aldudetik Esnazuko mugaraino aldapsua da eta hobekuntzan min emanen zaio inguruari. Guzti honetaz inguru abertzaleetan ez da debaterik sortu, edota gertatu bada, izkutuan izan da. Guk ANAT-LANEko kideei ekologi eraginaz datuak eskatu genizkien, baina oraingoz ez dago deus honetaz. Badugu beraz zertaz kezka mugaz bi aldeetakook.

Gazte elkarte guztien bateratzea zuen helburu

GAZTE KONTSEILUAK AUTONOMIA OSOA OMEN

Komunitateko kontseilua 86. urtean hasi zen funtzionatzen, bere aurretik jectora bat egon zen eta hor lege proiektua eztabaidatua izan zen talde desberdinen artean. Hiru probintzietara mugatzen da kontseilu autonomikoa nahiz eta nafarroarekin elkarte bat eduki, zeina orain legeztatze bidean dagoen, lauren artean kontseilu bat osatzeko.

16 milioitako karameloa

Kontseilu hau parlamentuko lege batek sortua da eta ez omen du inorenganako menpekotasunik, autonomia omen da guztiz. Legeztatua dagoenez, gazteriarri da-


Lau bat urte daramatzate funtzionatzen eta ekintza finkorik burutu ez badute ere badirudi bere joera informazioa eskaintzera mugatzen dela. Komunitate Autonomokoaz gain Nafarroako kontseiluak badu zer esanik.

gokion diru batetatik zati bat kontseiluarantzako da. Bere baitan 55 elkarte daude eta hauek ematen diote norabidea.

Iazko bere aurrekontua 16 milioitakoa izan zen eta hau funtzionamendu berean eta ekintza desberdinetan banatu zen. Bere barne eraikierarako asanblada arrunt bat dago, elkarte desberdinak hemen biltzen dira, eta hemendik asanblada finko bat eraikitzen da. Bere barnean presidente

bat, bi presidenteorde, idazkari bat eta bost bokal daude, zeinen funtzionamendua komisio bitartez den. Asanblada honetako partaideak heuren soldata izango dute.

Bere helburuak finkatuegiak ez baditu ere batipat gazteria instituzionalki foru desberdinetan errepresentatzea litzateke. Eta bestalde gazteriarren elkartratzea bultzatzea eta heuren mugida guztiak bultzatzea. Azkenik politika kontrolatzea litzate-



Gazteek osaturiko talde desberdinetako kideek osatzen dituzte Gazte Kontseiluak.

Bi talde mota

Gaszte kontseiluak bere lokalak Eusko Jaurlaritzako kultur departamentuaren azpian baditu ere hau kontzidentzia bat besterik ez omen da. Gaszte kontseiluen lokal berak bere zabaltasunagatik arritzen gaitu. Materiale aldetik ez dagoelako batere txantxarrik, ordenadoreaz gain, idatz makina eletriakoak ere badirelarik. Mementu txarrean iritxi garelako diote nahiko lardaztua dagoela eta. Bertako sarreran zenbait diptiko, errebista eta panfleto aurki ditzakegu, informazio mailan. Aldizkari bat ere ateratzen dute Ekekei deitua: 5 pezeta kentzen dituzte dohan ez emateagatik.

Bi motatako elkarteak daude Kontseiluaren barnean: Komisio barneko elkarteak, hauek gutxienez 200 partaide izan beharko ditu izena emanda bertan herrialde bakoitzean, eta bestalde zerbitzu bat eskaintzen duten elkarteak daude. Hauek 1200 gazteri zerbitzua eskeini beharko lieke. Besteen artean talde politikoak daude, talde sindikalak, denbora libreko taldeak, erlijio alorrekoak, boy scoutak, objeizio taldeak...

J.O.

ke, honen arauera puntu batzuk markatu eta komisio batzuk osatu. Besteak beste orainarte aurrera eman diren komisioak: lana, elkarteratzea, objeizioa.

Ekintzen artean, bat elkarte desberdinen zerrenda bat osatzea izan da, bestalde kanpaina batzuk daudelarik, baina ekintza konkreturik ez dago. Informazioa izango zen bere helburu argienetakoa, bai zuzenki eskatzen dutenen komisioei dagokionean edo baita ere kanpaina batzuren bitartez. Alde batetik bai gazteriari begira eta bestalde ere medio publikoei gazteen arazoan berri ematea. Puntu honetan administrazioarekin hitzegitean proposamen batzuk mahaieratuz.

Bere helburuak finkatuegiak ez daude



Instituzioen babes ofizial eta ekonomikoa duten arren izan dute arazorik administrazioarekin.

Objeizio komisioa jarraituena

Komisio hau da aspaldian jarraitzaile gehien ekartzen duena. Bere barnean objeizio, pake eta desmilitarizazio bidean dauden talde guztiak hartzen saiatzen da. Hemen dabilzanak: EGI, eskautak, kontzientzi eragotzleen mugimenduak eta abar dira. Gaszte kontseiluak orokorki objeizio legeri kritika zuzentzen dio, eta berau salatu. Kontseiluen barnean objetoreak ez hartzea asanbladan erabakia izan zen, lege honen kritika bidean. Bertatik objeizioaren aurrean ez da bide zuzen bat ematen, objeizioaren aurrean dauden bide desberdinen gorabeherataz informatzen da soilik. Objekzioaren esanahia markatuz eta organismo desberdinen informazio eza estaltzea.

Nafarroako kontseilua gaztea da, azkena sortu zen Estatu mailan. 86an foru dekretu bat egon zen eta asanblada kontestugilea 87ko ekainean izan zen. Ordudanik bi asanblada egon dira: bata 88ko abenduan eta bestea urte honetakoan. Asanblada hau bederatzi pertsonaz osatua dago. Na-

hiz eta hamaika pertsonaz osatua egon behar, asanblada honetarako jende gehiago etorri. Kontseilu hau gobernuak osatu zuen dekretu foral baten bitartez eta berez honen menpe egongo da. Nafarroako kasu honetan berriz, parlamentuaren menpe ere dago bertan egon den UPN eta PSOEren arteko paktua dela eta. Batez ere ekonomikoki dependentsia hauekikoa da. Haserako aurrekontua bost milioitakoa bazen ere iaz bira jeitsia izan zen ez zirelako sartu «tolerantzia eta bakearen alde»ko kanpainan, asanbladan horrela onartua izan zen eta UPNko gazteriekin arazoak izan ziren. Honen ondorioz beren gurasoei mozketak bat egon beharko zela esan zitelako diote Nafarroako kontseilukoek. PSOEren aldetik mozketak haurreraren eman zen eta bitan soilik utzi zen. Aurten ere diru berdina datorrela dirudi. Honekin kontseilu honek aurrera jarraitzea nahiko iluna ikusten da, administrazioak milioia jaten du eta bestearekin ezin da ezer egin, soilik bilere-tan pipak jatera mugatu beharko dutela.

JON OLAIZOLA

Iruñeko epaiketak polemika berpiztu

POLTSIKOA ETA LEGEA ABORTOAREN AFERAN

Zalantzarik gabe, eragindako abortoa eta honen 'Despenalizazio Legea' dira emakumearen osasunaren arloan eragin publiko zein politiko pisutsuena duten gaiak. Oraingoan, Iruñean sare publikoko hiru ginekologori legezko aborto bat burutzeagaitik egindako epaiketak berrekarri du polemika denon ahotara.



Pil-pilean dago gaia azken aste hauetan.

I ndarrean dagoen legea 1.985. urteko abuztuan izan zen onartua, PSOEk mugimendu feminista eta beste sektore aurrerakoiengandik jasandako presioak baretzeko. Hala ere, legeak ez zion erabateko irtenbiderik eman

abortoaren arazoari. Legea guztiz mugatzailea da abortoaren praktika hiru kasutan soilik onartzen duen neurrian, hain zuzen ere haurdunarentzat arrisku fisiko nahiz psikikoa dagoenean, bortxaketa kasutan eta fetoaren gaitz larriak ezagutzen di-

renean. Bestalde abortatzeko zentruen legezkatzea ez da inolaz ere orekatua izan PSOEk jarraituriko politikarekin zentru pribatuak akreditatzeko bitartekoak erraztu bair dira. Kontutan hartzekoa da gainera, zentru publiko eta pribatuetan egiten den

«'Acción Familiar'ekoek aborto legea oztopatzea helburu»

Mari Luz Esteban, plangintza zentruko langile eta Bizkaiko Emakume Asanbladako partaide, Iruñeako epaiketari buruzko eritzia emanez.

Argia.— Zer izan da zuen ustetan 'Acción Familiar'ekoek salaketa honekin lortu nahi izan dutena?

M. Luz Esteban.— Ez da ahaztu behar 'Acción Familiar' delako erakunde hori Opus Dei inguruan dabilela. Guztiok ezagutua da Opus Deik nahiko presentzia pisutsua duela Iruñean eta honegatik epaiketa hau bertan baino ez dela posible. Beraz, heurion helburua argi dago, abortoaren aurkakoa edo emakumeen eskubideen kontrakoa den kanpaina jarraitzea eta legea oztopatzea alegia. Bestetik, epaile fatxa bat dute heurokin eta azken hau izan zen salaketa aurrera bultzatu zuena.

A.— Zein izan da Gobernu Espainolaren eta Nafarroako erakunde politikoaren jarrera arazoaren aurrean?

M.L.E.— Gure ustetan, ez Nafarroako erakunde ofizialek eta ez gobernu zentralak ere ez dute beharbesteko apoiarik eman. Ez bakarrik salaketa egin zen momentuan baizik eta legea atera zenetik babes falta izugarria izan da. Nafarroako egoera oso larria eta konfliktiboa izan da, ginekologo hauek heuren konturailan egin behar izan dutelarik ia erakunde politiko guztien aurka.

A.— Bestalde, ze suposatatu du epai-



ketak emakumeen eskubideen aldeko borrokan?

M.L.E.— Epaiketa honek argi adierazten du legearen eskasia eta ezbalioasuna. Horregatik kanpaina honek bi ardatz izan ditu: bata, epaiketaren aurrean ginekologoen aldeko elkartasuna eta absolutuzio eskaera eta bestetik, abortoaren egoera adieraziz, gure jarrera eta eritziak argi eta garbi ustea. Gainera, irtenbide bakarra legea aldatzea litzateke, lege berriak emakumeen eskubide guztiak kontutan izan beharko litzekelarik. Orokorrean bi baldintza bete beharko litzuke, emakumeak izan behar duela protagonista bakarra eta berorrek erabaki be-

har duela abortatu ala ez. Gainera, osasun zentru publikoetan dohainik eskuratzeko zerbitzua izan beharko litzateke abortoa.

A.— Zeintzu izan daitezke gerora epaiketaren ondorioak?

M.L.E.— Inportanteena ez da epaiketaren emaitza baizik eta jendea egoeraz ohartaraztea, zeren azken urteotan abortoaren aldeko debate publikoa nahiko moteldu da eta epaiketa hau dela medio aukera izango dugu debatea berriz kaleratzeko. Dagoen egoera eskasari buruzko kritika egin ahal izango dugu.

A.— Kasu konkretu honi buruz ezer gehitzerik nahi al duzu?

M.L.E.— Epaiketa honetako abortoa 19 urtetako neska bati egin zitzaion eta honekin lotuta esan nahi dudana zera da, gazteek askoz ere aukera gutxiago dutela abortatzeko nahiz eta gazteen arteko haurdunaldi proportzioa gorantz joan. Oztopo hauek aborto pribatuaren kostoak direla eta sortzen dira batez ere. Aparte, abortoaren gaia ondo lekutzeko esango nuke abortoaren arazoa ez dela konpontzen lehen aipaturiko baldintzak eman ezean. Baina lehen pausua sexualitate aske eta gustokoa guztiontzat lortzea litzateke, horretarako txikitatik izan behar dugularik aukera informazio eta hezkuntzarik egokienak izateko, bai eskolan, etxean eta baita osasun sarean ere.

I.A eta A.M

legearen interpretazio edo aplikapen ezberdina.

Pribatuetan gehiengoa

Bizkaiko familia plangintza zentruak bilaturiko datuen arabera, komunitate autonomoan abortoen %2 baino ez dira zentru publikoetan burutzen. Gainera zentru hauek kasu larrienen eskaera asetzen dute soilik. Osakidetzak, aldiz, %14 ematen du kopurutzat. Portzentaia baxu honen arrazoirik nagusia lege berorrek daraman

sendagileen 'kontzientzia eragozketari' buruzko klausula litzateke. Honen arabera, abortoa praktikatzeari uko egiten diete zenbait osasun teknikoek. Ukatzeko honek, osasunaren arloan emakumeak aldarrikatutako eskubiderik nagusia ezeztatzea suposatzen du, birsorkuntza eta bizitza sexuala gozamenek zertzeko eskubidea, alegia. Klausulak eskubide hori ukatu ezezik, emakumeen aukera izan beharko litzatekeena sendagileen erizpideen baitan utzi ere usten du. Hauek, abortoa praktikatzeari ezetza ematean, ez dute inolako ondorio

gorrikerik pairatuko baina bai ostera zentru zentru abortoa nork egin bilatzen dihoan emakumeak. Arazo honek eta, arestian aipatu bezala, zentru publikoek eskaeren gehiengoari uko egiteak, pribatuetara jotzera behartzen du emakumea, suposatzen dituen oztopo guztiek: Abortoaren kosta (komunitate autonomoan 30.000-35.000 bitarteko batzbestekoa eta beste zenbait lurraldetan askoz ere garestiagoa), norberaren osasun zentruan burutzeko ezintasuna eta emakumearengan leku pribatu hauek sorturiko ezerosotasuna sufritu be-



Adin guztietako emakumeak agertu dira legearen aurka.



Zentru pribatuetan egiten dira ebakuntza gehienak.

harra, besteak beste.

Komunitate autonomoan sei dira, bi eskualde bakoitzeko, abortatzeko zentru akreditatu publikoak. Pribatuei dagokionez, bi badira Bizkaian eta Gipuzkoan berriz bat. Nafarroako kasuan, Iruñako hiru ginekologoei jarritako demanda ostean, legez abortatzeko aukera guztiak galdu dira. Eta azkenik esan, Iparraldeko hiru eskualdeetan, non Frantsez legepean egonik, zentru pribatuek eskuratzen dituzte eskiera gehienak. Osakidetzaen datuei jarraituz, 1.988. urtean 631 emakume euskaldunek abortatu zuten legeari egokituriko kasuetan komunitate autonomoan eta beste 746k estatu Espainolera irten beharra izan zuten. Ihazko urtean berriz, 1.592 izan ziren hemen bertan zentru bai publiko eta bai pribatuetara jo zuten emakumeak, kasuan %97.5etan haurdunaren osasun fisikoa nahiz psikikoarentzat arriskua arrazoitza izanik. Era berean bortxaketa kasuetan ere arrazoi bera aurkeztu ohi da burokraziaren geldotasuna eta trabak direla eta. Haatik, ia ezinezkoa gertatzen da abortoen kopuru erreala ziurtatzea, batek zentru pribatuek, Haziendaz babesteko, datuak ez dituztelako luzatzen, bestetik ez-legalitatean diharduten zentruak badira-

telako antza denez. Kontutan izatekoa da 1.500 inguru emakumek abortatzen duten bitartean informazio eskatzen dutenak 4.000 baino gehiago direla.

Lege berria exigituz

Badirudi legearen berehalako berritzea dela desoreka guzti hauen konponbide bakarra. Haatik, emakumeak bere gorputzari buruzko erabakiak berorrek, eta inola ere ez osasun teknikoek, askatasun osoz hartzeko eskubidea eta abortoa osasun publikoaren zentru egokitueta dohainik gauzatzeko aukera dira emakume elkarte eta sektore aurrerakoienen beste eskakizunak. Bestalde, abortoa osasun publikoaren zerbitzu arrunt bezala legeztatuz gero, egungo egoeran abortoa gauzatera 'ausartzen' direnek jasaten dituzten irain eta oinazeak ere gutxituko lirake neurri handi batetan bederen. Bada hala ere, eritzi honen kontrako jarrera gogorra, abortoa fetorearen erahilketa eta birsorkuntza emakumearen lege natural modura ulertzen duena, alegia.

AMAIA MUJICA
ITXARO ARTOLA

EMIL ZATOPEK

«Irabaztea ona da gozatzeko
baina galtzea ere bai pentsatzeko»

Gerraondoko Olinpiadetako garaipen sonatuek egin zuten 'giza lokomotorea', Emil Zatopek, munduan famatu. Helsinkiko bere balentria —5.000 eta 10.000 metroko lasterketak ez ezik maratoia ere irabazi zuen 1952ko Olinpiadetan— ez du oraino inork errepikatu. Ofizioz militarra —koronel izatera heldu zen—, bere emaztearekin Pragan bizi den 68 urteko pentsionista da gaur egun. Zubietako krossa medio etorri da Donostiara.





MANOLO

Maria Cristina hotel donostiarrean hartu gaitu Emil Zatopek-ek, bertako kafetegian, bakarrik uzten ez duen azafata alboan duela. Gaztelera oso ondo hitzegiten duela segurtatu digu neskak, eta politikaz hitzegiteko batere beldurrik ez duela. Arazo bat: ulertu ez omen du hitzegin bezain ondo egiten.

Komunista ez zen Txekoeslovaquia ezagutu zenuen, eta II. Gerrate Mundiala ere bai. Nola bizi zenituen garai haiek?

Gerra garaian ez zuten korrika egitea debekatu, bai ordea dantzatzea, kantatzea edo bizitza zoriontsua burutzea. Gerra bukatu ondoren, ejerzitorea sartu eta gutxinaka graduazioak eskuratzen hasi nintzen; Londongo Jokuetan urrezko domina eskuratu nuen 10.000 metroko lasterketan eta lehen teniente izendatu ninduten, eta munduko errekorak gainditu bezain pronto, kapitain; 'mayor' Helsinkiko garai-pen ostean, 5.000 eta 10.000ko markak ontzean teniente berriz, eta azkenik koronel gradura iritsi nintzen. Egoera hau ez zen zuzena, konpainia edo bataloirik gabeko koronela bait nintzen, 'coronel honoris causa' besterik ez baita. Gerorago, 1968an, ejerzito sobietarra barneratu zen Txekoslovaquian eta ez zitzaidan batere gustatu, suntsiketa bihurtu bait zitekeen munduko mugimendu komunistarentzat.

Pragako Udaberriak parte zuzena izan zenuen. Nola ikusten duzu hura gaur egungo ikuspuntutik?

Jakituria eta idazleen Praga hura eta egungoa aztertuz oso desberdinak direla ohartzen gara. 1968

«**Gaur egun ez da sozialismoaz mintzatzen, demokrazia parlamentarioaz baizik. Gustatzen zait sozialismoa, baina ikasle gazteek parlamentarismoaz hitzegiten dute orain, komertzio libreari buruz**»

Udaberria ez zen ona izan inteligentziarentzat. Dubcek berak adierazi zuen, esfortzu guztiak batu behar genituela sozialismo humanoa lortzeko norberaren zorionerako. Humanoak ordea, Sobiet Batasuneko lerro politikotik independente izatea esan nahi zuen; gauzak honela, ejerzito sobietarra sartu zen bertan eta, 'finito'.

Orain aldaketa handiak jasaten ari da, ordea, zuen herria.

Azken hilabeteotan aldaketaren tenorea heldu da gure herrira. Neu eskubideen alde agertzen naiz, demokrazia parlamentario berriaren defendatzaileekin jarri naiz, baina ez dut buila gehiegirik atera nahi, ezen lehengo errejimenak asko eskaini bait zidan.

Larria al da zuen Europako ekialdeko herrien egoera sozioekonomikoa?

Ekonomia garatzeko egun, beharrezkoa da produktu, saldu eta munduarekin harremanak izatea.

Gizon gorbatadunek osatutako taldeak eten du elkar hizketa. «Barkatu, eten al dezakezue solasaldia?», erregutu digu Gregorio Ordoñez zinegotzi donostiarrak irribarre zabalaz Zatopek-engana hurbilduz. Jose Maria Aznar agertu da jende multzo erdigunetik. Zatopek Aznar-i begira, eta Aznar aurrean duen agurea zein ote den galdezka. «Hau nire presidentea da, nire jefea!». «Eta hau Emil Zatopek». Eskuak, argazkiak... eta berriro elkar hizketara.

Neronek galdera bat luzatzen dut oraintxe: nola izan da posible Polonia, Txekoslovaquia edo Bulga-

rian errejimena aldatzea? Bada, ene ustez, Sobiet Batasuna ez da hain indartsua. Mijail Gorbachov berak herriek independentzia bera lortu arterainoko esku-bidea dutela aitortu zuen, nazionalitate guztiek libreago izateko gogoia badute, Sobiet Batasunak ezin dezake deus egin, bere ekonomia ez baita hain tin-koa. Solidaritatek errejimen librea aldarrikatzen ba- du Polonian, edo ikasle gazteek alderdi komunista buruzagi gehiagorik ez dutela nahi Txecoslovaquian arraposten badute, Sobiet Batasunak ezin du lagun- tzarik eskaini.

Ze eritzi duzu Vaclav Havel zuen presidentea- ri buruz?

Havel gizon izugarria da. Alderdi bakarraren siste- maren barruan jadanik demokraziaren alde borroka- tu zuen, protesta ugari luzatuz, baina beti itzalpean bukatu zuen. Handik irten eta beste demostrazio ba- tzu egiten ausartu zen, kartzela ezagutuz berriro. Guztiak ez dira hain adoretuak. Baina sistema erori zenean, nolakoak diren gauzak gure munduan, Ha- vel presidentetzarako aspirante bilakatu zen. Ekai- nean hauteskundeak helduko dira eta orduan ikusi- ko dugu nor izango den presidente berria.

Zer gertatuko da ekaineko hauteskundeetan?


Lehen alderdi bakarra zegoen, komunista hain zu- zen, baina orain hogeita hamalau daude; demokrazia egon badago, baina kontuz, kaosa bilakatu daiteke eta. Hogeita hamalau alderdi politiko baldin badaude ere, alderdi komunistak, ongi antolatzen bada, ira- bazteko aukera franko du. Prestatzen bada, lehen partidu bihurtuko da, gainontzekoak erabat sakaba- natuta bait daude. Dana nire emazteak eta ni neuk sozial demokraziara jotzen dugu gehiago, komunis- moa erradikalegia da guretzat, mundua aldatzea al- darrikatzen du, mundu osoa izar gorriaren pean ezartzea, baina ez da erraza. Corean hasi zen, gero Camboya, Vietnam, Indonesia, Cuba... arriskutsua da Sobiet Batasunean gosea izatea gaur egun.

Komunismoa bukatzera al doa?

Dubceken garaian sozialismo humanoari buruz hit- zegiten zen. Gaur egun ez da sozialismoaz mintza- tzen, demokrazio parlamentarioaz baizik. Neu pro- pio, ez nago sozialismoaren kontra, gustatzen zait sozialismoa, baina hori ez da arazoa. Ikasle gazteek parlamentarismoaz hitzegiten dute orain, komertzio libreari buruz aritzen dira, eta nik entzun egin behar diet; ez gehiegi erantzun ordea. Demokraziak ejerzi- to sobietarra Txecoslovaquiatik bidaltzeko aukera eskaintzen du, eta Havel presidentea Moscura abia- tuko da aste honetan bertan prolema hori eztabaida- tzera.

Baina kapitalismoaz hitzegiten da. Hori al da irtenbidea?

Tendentziak kapitalismora jotzen du sozialismora



MANOLO

«Ez dut buila
gehiegirik atera nahi
demokrazia
parlamentariaren
alde, lehengo
errejimenak asko
eskaini bait
— zidan »

baino. Kapitalismoan gazte, indartsu eta jakintsu iza- nez gero soilik bilaka zaitezke dirudun, baina denak ez gara horrelakoak, ez gara hain indartsu eta azka- rrak. Sistema honetan aberatsak oso aberatsak dira eta txiroak oso txiro. Sozialismoak berriz, lan egin eta dirua irabazteko aukera eskaintzen die guztiei, eta ene eritzi, askoz hobea da. Denak egin behar dute lan, eta hori gustatzen zait.

Zer iruditu zaizu Errumanian gertatu dena?

Errumania Erdi Aroan kokatuta egon da gaurdai- no. Ceauscuk harreman ugari izan zuen personali- tate askorekin, De Gaulle, Giscard edo britainiarre- kin kontaktuak eduki bait zituen. Aldiz, sobietarren kontra altxatu zen behin eta berriro. Sobiet Batasu- nak Los Angeleseko Olinpiadetara ez joateko esan bazuen, Ceauscuk 'gu bagoaz!' esan zuen, eta So- biet Batasuneko tropak Pragan sartu zirenenean 'gu ez goaz!' esan zuen. Gauzak honela, atek itxi ziz- kion Sobiet Batasunak Errumaniari. Beraz, mende- baldekoen atek lehendik itxita eta Sobiet Batasuna- koak itxi berriak, fruitu bezala gosea etorri zen. Ce- cescu independentziaren ordezkari gisa jokatu zuen politika komunistaren aurrean. Errumaniako erreji- menari ez bazaio laguntzen, etorkizun beltza izango du.



MANOLO

Gorbachov-en politika positiboa al da?

Fantastikoa da Gorbachov, egoera politikoa hobetu egin baitu. Berak aitortu zuenez, perestroikarekin gauzak aldatu egingo dira, eta halaxe gertatu da. Baina orain zer gertatuko da Gorbachovekin? egoeraren aldaketa arriskutsua da Sobiet Batasunarentzat: politikoa sobietarrek nahiago dute Gorbachov aldatu egoera aldatu baino.

Mintzo gaitezen zeu famatu egin zintuen kirolaz. Garaipen guztien artean Helsinkikoak izango dituzu gogoan batik bat; zure emazteak, gai-

«Txekoeslovaquiaren demokrazia egon badago, baina kontuz, kaosa bilakatu daiteke — eta »»

nera, orduan irabazi zuen bere urrezko domina.

1952ko Helsinkiko Joku Olinpikoetan 5.000 metroko lasterketa irabazi ondoren, hamar minutura gutxi gorabehera, Danak jabalina jaurtiketako urrezko domina lortu zuen. Ene garaipena nahiko erraza izan zen; estraineko bueltatan guzti denak kristoren abiadan aritu ziren, baina bukaera partean, lur jota aurkitzen ziren eta azken berrehun metrotan atzetik aurrera pasa nien. Etsairik gogorrena berez, Alain Mimoun izan zen: aurreneko topaketa serioa Londonen izan genuen 1948an; nik lehen postua eskuratu nuen eta berak bigarrena, eta jende guztiak harriduta galdetu zuen ea nor zen mutiko hura. Hortik aurrera, Europako 1954ko txapelketan, 10.000 metrotan, Zatopek lehen, Mimoun bigarren; 5.000 metrotan, Zatopek lehen, Mimoun bigarren. Helsinkin, 10.000 metrotan, Zatopek lehen, Mimoun bigarren; 5.000 metrotan, Zatopek lehen, Mimoun bigarren. Melbourne, 1956an, marathonen lasterketan, Mimoun lehen, Zatopek hirurogeigarren.

«Sesento» dio berak, azafatak esan bezain ona ez den bere gaztelera xeblearen. Eskuak ez ditu inoiz geldirik uzten, eta bere lasterketak kontatzean korrika egiten zueneko keinu bera erakusten du, hortzak estututa.

Gogorra izango zen, bada, hainbeste garaipenen ondoren horrela galtzea?

Bai, pentsatzen jartzen zara, ea zergatik galdu duzun, entrenamendu eskasagatik izan ote den... Irabaztea ona da ospea gozatzeko, baina galtzea ere bai, pentsatzeko.

Badirudi oraingo korrikalariak ez dutela zuk sufritzen zenuena jasaten; ez zaie igertzen baintzat.

Afrikarrak, esate batera, berezko korrikalariak dira, inspirazio handia daukate. Zatopekek ezin zuen hain lirain eta libre laisterkan egin; beno, egin zezakeen, baina galdu egingo zukeen.

Doping-ik ez zen izango orduan...

Zientzia asko barneratu da kirol munduan, eta anabolizanteak asko erabiltzen dira gaur egun, baina ez dira batere onak distantzia luzeetarako. Ene garaian ez genituen ezagutzen honako produktu hauek. Anabolizanteak entrenamendurako medikamentuak dira, ez lehiaketarako. DDRn esate batera, kirolari txapeldun guztiak kontrolatuta daude, baina horiek ez dira Bartzelonan izango hemendik bi urtebetera. Anabolizanteak bizpahiru urtebeterako dira onak, eta hurrengo Joku Olinpikoetan inork ezagutzen ez dituen txapeldunak izango dira, gazte eta txapeldun berriak prestatzen ari dira bertan, anabolizante berriekin.

A. GOSTIN
I. MURUA

TXT

Komikia
180

ARGIA



Denborapasa

HITZ GEZIDUNAK

UGAZTUN HARGIALE TXIKIAK BELAUNIKO JARRI	↓	ZALDI MULTZOA MUSIKA MOTA	↓	BEHIZAIN URANIOA	↓	HUTS IRIDIOA	↓	OTE, HITZ ELKAR. ORDOTSAK	↓	EGUNAREN PARTE ILUNA UTZ EZAZU	↓
→		↓		↓		↓		↓		↓	
KOLORE SISTEMA DAGO	→			MIATU ZINTZOEN	→						
→		OZTA EZ EME	→			INFUSIO MOTA FRANTSESEZ, DAX	→		AZKEN ETA LEHENENGOA BI	→	
HAREN PARLAMENTU ETA SENATUA	→	↓		BETA ADI EZAZU	↓				↓		IHARDUNEAN
→				↓		PERRETXIKO MOTA KETXUEN MUSI KA TRESNA	→				↓
ROENTGEN SEGURU	→	GIZON IZENA (INDET.) UKITU	→	SUAK HARTU KONTSONANTEA	→				↓	LJIKDO MOTA BILO	→
→		↓		↓							BAT JOAN ADITZAREN ERROA
NEKATZEN EGUZKIA	→			↓				KULUSKADA KONTSONANTEA	→	↓	
→				BOKALA	→	SARRERAN	→	↓			

LETRA KENKETA

Kenketa honetako letra bakoitzari zenbaki bat dagokio. Zein da kenketa honetako letra bakoitzaren balioa? Zergatik? Ondoko kuadro honetan duzun zenbaki bakoitzaren azpian, ipin ezazu zure ustez hauetako bakoitzari dagokion letra. Zenbaki bati letrarik ez dagokionean • ikurra ipin iezaziozu. Koadroko zenbaki baten azpian letra bat azaltzen bada, har ezazu aurrez ematen dizugun laguntza bezala.

BAT

ETA

SEI

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9
				A		T			

EZETZ ASMA

1.- ZEIN DA MUNDUKO IBARIK LUZEENA

- Amazonas
- Yang-Tze
- Nilo
- Ibaizabal

2.- ZER DEN BASILIO PUJANA

- Pelotaria
- Bertsolaria
- Trikitilaria
- Aizkolaria

3.- ZEIN IBAI PASATZEN DEN MAULETIK

- Errobi
- Uhaitzandi
- Ithurri
- Uhaitza

4.- NOR DEN NAZIOARTEKO PILOTA FEDERAKUNTZAKO LEHENDAKARIA

- Jose M. Palacios
- Txus Fernández
- Angel de Lamo
- Marco Antonio Boronat


**HALAKO
GARA
TU!**



KABEN. ZOTZ! KONTROLA.




UFA! BRIGADA BEREZIA!
AKABO NIRE AMETSAK!
KAKA!



ALLO MARTINEZ!
HEMEN FURILLO!
HARRAPATU DUGU
GABEKO KON-
TRABANDISTA.

KORTO!




KAKA TI
TRIKT.



GLUB! ETA TXA-
RRENA HERRIAN
NIRE KONTURA
EGINGO DUTEN
BARRE PILDA.

TIO LISTO.
BENGA!

IZENA.
LANBIDEA.
TELEFONOA.




* A KUGAR

Hito & Txan

NORK ZIOEN ZER ...


... «GURE» BI ESTATUETAZ ?



Enrike II.
«Zangotzarra» (XVI.m)

EZPAINETAN
«ASKATASUNA» HITZA
ETA LEGEETAN
BORTXAKETA
DARABILTZATE
BETI.

1.



Pi i Margall
(XIX.m)

BI ZIMINOEN
ARTEKO
ZORRIA DIRUDI
GURE
ERPRESUMAK.

2.



Campion
(XIX-XX.m)

EUSKALDUNAK
EZ DIRA EZ ESPAINOLAK
EZ ETA FRANTSESAK ERE
HIZKUNTZ, ARRAZA,
OHITURA, IDEIA ETA SENDI-
MENDUEN ALDETİK ;
BAI ORDEA, LEGEEK
BEHARTURİK.

3.




SOLUZIOAK

«APEZAK BELARRA ERABI, ARO TXARRA SEGUZKI»

ENRIKE II.ak2
PI I MARGALLEK ...3
CAMPIONEK1

ZELULOIDE ODOLTSUA



Getxon asteburu honetan jokatuko da Mundiala

ZIKLO-KROSSA, BIZIKLETAREN AHAIDE TXIROA

Garai batetan trirrindularientzat diru handirik ez zegoenean kirol sufrituren bat aipatzerakoan denen ahotan zegoen bizikleta. Telebista tartean sartu denez izugarri igon du bizikletarekiko zaletasunak, eta Euskadin igoera nabaria izan bada, pentsa ezazue Estatuan emandakoan. Hala ere, bada bizikletaren mundu honetan laguntza urriko alderik: Ziklo-Krossa. Otsailaren 3an eta 4an izango da aurtengo Munduko Txapelketa Getxon.



Jose Mari Yurrebaso —argazkian Izagirre atzetik duela— izan zen, berriro ere, Espainiako Txapelketan lehena. Dexente zailago izango zaio Mundialeko txapela eskuratzea.

Ziklo-Krossa zer den izenak berak diosku, bi kirol ekimen desberdin batzen dituen kirol bakarra: batetik tresna bat, bizikleta, eta bestetik, krossa, hau da, zelaletan zehar oinez ibiltzea baina bizikleta aldean, sorbaldan daramazula. Biatloiarekiko desberdintasuna, beraz, nabaria da azken honek bizikleta eta lasterketa konbinatu arren, bakoitza bere aldetik egiten baita eta gainera lasterka kaminoz.

Ziklo-Krossaren jatorria klima aproposa eskaintzen duten Ipar aldeko herrietan jar

dezakegu, besteak beste, Holanda, Belgica, Suiza eta Britainia Handia. Kirol honetan aritzeko klima egokia negu gogor eta euritsu edukitzean datza, bi baldintzok nahitaezkoak baitira Ziklo-Krossa bere mailarik gorenera hel dadin. Izan ere, naziook dira gaur egun mailarik gorenena dutenak eta zenbakieki dagokienez Ziklo-Kross hutsean aritzen diren txirrindulari kopurua nabaria da benetan. Dena den, tokian tokiko txirrindulariek beren ezaugarriak dituzte, beraz argi eta garbi zirkuitoetan nabaritzen delarik: Suizakoak basatsuak eta oso gogo-

rrak, Holandan, ostera, landatsuak eta oso teknikoak. Estatu Espainiarrari dagokionez oso gune zehatzetan landu izan da kirol hau: Euskalerrian eta Katalunyan.

Euskalerrriak eduki ditu arestian aipaturiko klima baldintzak eta, beraz, betidanik aritu izan da hemengo txirrindulari ugari Ziklo-Krossean. Ihardute honek suposatu izan du gure herria kirol honetako harrobi nagusi bihurtzea estatu mailan. Honela bada, Estatuko lehen txapelketan, 1929an, Joakin Iturri nagusitu zen eta harrezkero-

TXUTXI IZKARA
(Estatuko selekzionatzailea)

«Bizpahiru urtetan europarren mailan egongo gara»


Txutxi Izkara, bilbotarra bera, duela bi urte izendatu zuten estatuko arduradun eta hor dabil su eta gar ziklo-krossa goi mailara igon nahian. Lanik ez du faltan izango.

Argia.— Nola ikusten duzu ziklo-krossaren egungo egoera?

Txutxi.— Begira, nahiko makal ibili gara, baina bide onean gabiltzala iruditzen zait. Hemen betidanik izan ditugu lasterketa bikainak eta atzerritar ugari ekarri ditugu, baina ez gara jabetu gure txirrindulariak ez zirela horiei aurre egiteko gai, esan nahi dut ez zegoela ziklo-kross eskolarik eta bide okerra ibili dugula.

A.— Eta konponbiderik?

T.— Esan dizudan bezala eskolak sortu behar dira. Begira, estatuan maila horretan ari dira eta oso ondo gainera. Aurtengo estatu txapelketan galiziar bat atera da garaile kadete mailan eta afizionatuetan, berriz, balentziatarra. Euskalerrian ostera, ez gara oinarria zaintzeaz arduratu eta horrela segituz arrapatu eta pasa egingo gaituzte. Zirkuito arloa ere ikutu nahi dut eta aldatu orain dauzkagun gogor horiek teknikoagoak jarritz atzerrikoekin parekatzeko.



A.— Hemengo zirkuitoetan hemengoek irabazi beharko lukete, ezta?

T.— Hala dirudi, ezta? Atzerrian ohitura daude lasterketa osoa topean ibiltzen, hemengoak indar oso handia egin behar dute une batzuetan eta besteetan arnasa hartu, zatika dabilta. Kanpotarrak datozenean beraiekin batera doaz oztupoan eta atsedean gunean gureak baino azkarrago ateratzen dira topean

ibiltzeko ohitura dela eta.

A.— Plangintza berririk?

T.— Esandakoak: eskolak sortu eta zirkuitoak moldatu. Honetaz gain auke-ratutako zenbaitzuekin kontzentrazioak egin teknika bereziak eta entrenamendu zehatzak izan ditzaten. Lehen ez zen halakorik egiten, orain bai, dirua areagotzea eskatu dugu asmoatarako aukera egon dadin.


A.— Txapelketarako asmoak?

T.— Jubeniletan itxaropen handiak daukat, beharbada, sorpresaren bat egon daiteke. Afizionatu eta profesional mailan ihazko denbora tarteak murritzera goaz, ea 10etik barrura sartzen garen.

A.— Etorbizuna nola ikusten duzu?

T.— Ni neu itxaropentsu nago. Une honetan dauden afizionatuekin lan eginez bizpahiru urtetan europearren parean jar gaitezke. Pla, Izagirre eta Igartua oso ondo dabilta. Nik uste «figura» bat edo bi behar ditugula, behin hori lortuz eta egiten ari garen lanarekin itxaropentsu izateko arrazoiak daude.

S.M.



Getxoko Faturan moldatu dute asteburu honetan jokatu den Munduko Ziklo-Kross Txapelketarako zirkuitoa.

ko 53 titulutako zerrenda luzean euskaldunak 36 aldiz lortu dute garaipena, Yurrebasoren aurtengoa azkena delarik, bitartean, bai aspaldiko Mitxelena eta Barrutia anaiak zein berriago diren Basualdo, Gorostidi, Maiora eta Yurrebaso.

Baina nabaritasun hau ez da lortu profesional mailan soilik, afizionatu eta jubenil mailetan emaitzak oso onak izan baitira. 1979 Ordizian izandako mundu txapelketan Iñaki Bijandi bizkaitarra izan zen garaipena lortu zuena, estatuko txirrindulari batek lortutako garaipen bakarra. Hurrengo urtean, Suizan, Jokin Mugika, gipuzkoarra, izan zen ezin hobeto ibili ondoren bigarren postua eskuratu zuena. 70. hamarkadan



JOSE SANFEDRO

Francisco Sala, Terry Cagigas eta Fede Etxabe, Mundiala egingo den zirkuito berean.

ere izan genuen ziklo-krosslari aparteko bat: Jose M^a Basualdo 72 eta 73ko afizionatu mailako txapelketetan zilarrezko dominak eskuratutakoa. Atzerago joanik Anton Barrutiak 1960an, Tolosan, profesional mailan, oraindik hobetu gabeko postua lortu zuen: laugarrena. Ikusten denez, betidanik izan du hemengo txirrindulari gazteak non begiratua eta non ikasia.

Egun, egoera makala

Īnaki Bijandi eta Jokin Mugikaren emaitz bikainek itxaropena piztu zuten 80. hamarkadari begira, baina horretan geratu dira: mamitu gabeko esperantza. Jokin-ek nahiago izan zuen bideari ekin, eta ez da harritzekoa, Bijandik, oster, afizionatu mailako lau garaipen eta gero, txapela eskuratu zuen profesionaletako lehen urtean, 1986an. Gero ezer gutxi egin du. Norbaitek galdetuko du ea zer gertatzen den itxaropenok ez daitezen gauzatu eta horren kirolari onak bidean gera daitezen.

Arrazoiak ugari dira, eta agian betiko hori izango da nabariena: dirua. Eta dirua diogunean ikuspuntu asko daude baieztapen hori aztertzeko, lehenengoz soldata aipatu beharko genukeela. Ziklo-Krossak

ez dauka publizitate handirik, eta publizitate ez dagoenean etxe komertzialak ez dira sartzen, beraz, oso zaila da kirol honetatik bizitzea, aurten arte telebistak ere ez du laguntza handirik eskaini eta telebistak ez badu ikutzen... Gogoratu Ziklismoak berak ere telebistari diola zor, hein handi batetan, orain duen arrakasta. Bestalde kirol hau bideko txirrindularitza baino garestiago ateratzen da aberiak sarriago izaten baitira eta gaztetan oztopo gehigarri bat gertatzen da. Oztopo hau gaintzeko Federakundetiko laguntza ugariagoak beharko lirakeke, baina egon ez daude.

Gainera, kirol honetan ikasi beharreko teknikak irakasteko tekniko egokirik eta nahikorik ez da egon, honek borondatez aritzea ekarri duelarik. Tekniko ezean ezin da ikasi eta dirurik gabe ezin da jan, beraz, ondorioa esan beharrik ere ez dago, bizikletan aritzen den edonork bidekari ekin dio.

Mesede ugari

Badago gainera tekniko eta entrenatzaileen artean ziklo-krossarekiko sineskeria oso hedatu bat, zeinak *ruteroentzat* kaltegarria dela dioten, eta sineskeria honek ez dauka egiarekin inolako zerikusirik. Behin bideko denboraldia bukatu eta gero badaude hor hilabete batzu: urria, azaroa eta abendua zeintzuetan txirrindulariek ez duten konpetiziorik. Hilabeteko atsedena izaten da eta gero entrenamenduari ekin behar diote berriro, neguko prestakuntza deritzona hain zuzen, eta prestakuntza osatzeko konpetizioaren tentsio horrekin zer ziklo krossa baino hoberik?

Gainera ziklo-krossak prestakuntza fisikotik aparte baditu bideko txirrindularientzat mesedegarri gertatzen diren beste zenbait alde on: erreflejoak, arintasuna, trebezia, tresnaren domeinua... Ziklo-krossako zirkuitoak kamino, lur, bidexka, eta barrez osaturik daude eta adiago ibili beharrik ematen dizkio alde onok. Horregatik aritzen da zenbait *rutero* profesional kirol honetan eta entrenatzaileek beraien-gandik ikasi beharko lukete.

Ziklo-krossak abantaila ugari dakarzkio 'rutero'ari

Itzulpen hutsa da Vasco Press-en euskara zerbitzua


ORAINDIK EUSKAL BERRI AGENTZIARIK GABE

Orain dela bost urte Gasteizko Parlamentuak onartu zuen berri agentzia euskaldun baten beharra, euskal egunkari baten azpiegitura landuko lukeen agentzia. Vasco Press agentziak hartu zuen lan hau, urtero 20 milioitako diruaren truke. Emaitzak hor daude: itzulpen hutsa.


Urtarrilaren 22an bete ziren hiru urte Vasco Press agentziak euskara zerbitzua martxan jarri zuenetik, Gasteizko parlamentuak hartutako erabaki baten ondorioz. Urte hauetan, Xabier Gurrutxagak(EE) dioen bezala «*euskal agentziaz parlamentuan hartutako erabakia ez da inolaz ere bete, eta desbideraketa garbi batera jo du*». Desbideraketa honen adibide garbiena dugu «*euskal agentzia izan beharrean, itzulpen agentzia batetan bihurtu dela eta bere funtzioa erdal albisteak euskaratzera mugatzen dela*».

Historia apurra

Orain dela bost urte Euskadiko Ezkerrak aurkeztu zuen partida presupuestario bat Euskal egunkari posible bati aurre egiteko. Euskadiko Ezkerraren proposamen hori ontzat eman zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak baina, azpiegituraren beharra ikusten zenez, euskal agentzia sortzearen konprome-



Bulego hauetan egiten dira Vasco Press-eko euskarazko zerbitzuaren lanak.



Hiru itzultzaileak bere ikuspuntua agertzen.

zua hartu zuen Gasteizko gobernuak.

Parlamentuak hartu zuen erabakiari jaramonik egin gabe, Gasteizko Jaurlaritzak itzultzaile agentzi bat sortu zuen Vasco Press enpresarekin akordio bat eginez. «Parlamentuak erabaki zuen 'albisteek euskal agentzia' sortzea baina horren ordeztz itzulpen zerbitzu bat besterik ez zuten sortu, eta guk gure desadostasuna agertu genuen», dio Xabier Gurrutxagak.

Jaurlaritzak, Vasco Press erdal agentziarekin komenio bat sinatu zuen eta agentzia honek bere ardurari hartu zuen euskal zerbitzua aurrera ateratzea. Urtero urtero Jaurlaritzak 20.000.000 inguruko diru laguntza ematen dio Vasco Press-i, honek lau langile kontratatu zituelarik. «Eusko Gobernuak ez zekien eta ez daki zer egin euskal egunkariaren aurrean eta ideia garbirik ez zenez itzulpen agentzi hau montatu zuen», diosku Gurrutxagak. Gasteizko Jaurlaritzak Vasco Press-ekin sinatu zuen komenioaren arabera, agentzi horrek bilzen zituen albiste guztiak euskaratu behar-

ko litzuke eta albiste bilketa egin.

Agentziako Itzultzaileak

Orain dela hiru urte agentzia honek, langabezia zeuden lau pertsona kontratatu zituen itzulpen lanak egiteko «guk ez genekien ideiarik ere zertaz zihoan asuntua eta horren lekukoa da, ni langabeziatik deitu nindutela eta azterketa pareta egin ondoren lanean hasi nintzela. Lanean hasi eta gero esan zidan zuzendariak zertan ari ginen»; horrela mintzatzen da Vasco Press agentzian itzultze lanak egiten dituen Eukene. «Erdal berriak itzultzeko agindua eman ziguten eta noizean behin ere kronika batzu ere idazten genituen euskaraz, baina ezinezkoa zitzaigun itzultze lanak eta kazetari lanak egitea». Konkretuki bere lanaren zer eginaz eta helburuaz galdeztzean zera dio Inaxiok (bigarren itzultzaileak): «ez dugu jakin argi eta hemengoek ere ez digute esan konkretuki zer egin nahi den, zer den honen helburua eta inoiz zer-bait gertatzen denean esan digute esateko, gure lanik oinarritzkoena itzulpengintza dela».

Hasera batean lau pertsona baziren ere gaur egun hiru besterik ez dira: bata medikua dugu, bestea biologoa eta hirugarrena kazetari batzuk bukatzen ari dena; harrigarria badirudi ere hiru pertsonak euskaratzen dute agentzia oso bat eta gainera ez dira kazetariak, baina beraiek djoten bezala «badirudi hasera batetan kazetariak nahi

ANTXON ZUBIKARAI
(Eguna-ko erredaktore)

«Nahiko baliogarria da»

«Guk geure aldetik erabilera nahiko handia egiten dugu. Euskara zerbitzu honek politika eta ekonomia gaietan laguntzen digu, eta nahiko baliogarria dela uste dut. Euskara aldetik nahiko txukuna dela esango nuke, nahiz eta igartzen den itzulpenak direla eta batzuk besteak baino hobekiago itzultzen dutela. Eguna-n denboraren arazo haundiegirik ez dugunez, ez zaigu gehiegi axola euskarazko albisteak erdarazkoak baino beranduago iristek».

«Argi dago euskarazko egunkari batentzat gutxiago izango litzatekela horrelako zerbitzu batek izan ere egunerokotasun gehiago eskatzen du».

JON BASTERRA
(Erredaktore buru Egin-en)

«Berandu iristen dira euskarazkoak»

«Argi dago hau ez dela euskal agentzia bat baizik eta itzulpen hutsa dela. Bestetik erdarazkoak baino beranduago iristen dira euskarazko berriak, hori dela medio jende askok erdarazkoa erabiltzen du ezin dutilako bi ordutan zain egon. Egunkari batetan denborak garrantzi handia du eta berri bat iristen denean teletipotik ezin duzu itxaron noiz irtingo den euskarazko bertsioa».

«Euskara aldetik nahiko korrektoa dela esango nuke nahiz eta itzulpenak izan. Beste akats bat bere bolumen txikia litzateke; egunean zehar nahiko informazio gutxi eskaintzen du. Agentzia honek 21.000.000pza jasotzen ditu Eusko Jaurlaritzatik eta itzulpen hutsa egiten du, ez ditu sortzen berriak euskaraz».

«**B**akoitza bere aldetik dabil eta ikaragarritzko asto-lana egiten da»

Vasco Press-ko
itzultzaileak

ITZIAR MENA (ETBko informatibo buru)

«Apoio lana egiten du»

«Normalean erabiltzen dugu euskarazko zerbitzua, beti ere arratsaldez goizez baino gehiagotan. Euskal Telebistan informazio iturri ugari behar izaten ditugu eta hau beste iturri bat da, nahiz eta batzuetan nabari izaten den itzulpen hutsak direla. Beti ere erdarazkoa alboan baduzu laguntza bat izaten da euskarazkoa ulertu ezinik geratzen bazara.


«Euskara aldetik begiratuta, ez dela oso testu txarrak eta guretzako apoio lana egiten du agenzia honek. Azpiko munitate begiratzen badiogu huts bat dela agenzia honen sorrera argi dago, ez duelako albisterik sortzen baizik itzulpen soila egiten dutelako.

ODILE KRUZETA (Euskadi Irratiko informatibo buru)

«Itzulpen literalak dira»

«Guretzat informazio iturri modura baliogarria da baina bi akats garbi ikusten dizkiot: normalean euskal bertsioa ez dela etortzen nahi bezain azkar eta irratian teletipo bat jasotzen denean euskarazkoaren zain egoten gara beti, eta guk itzultzen dugu. Bigarren akatsa, duen itzulpen lotua izango litzateke; nire ustez, oso itzulpen literalak dira, eta esateko moduan eraberritu behar ditugu albistek.

Ez da nahikoa orain dugun hau, eta euskarazko egunkari posible batentzat ere ez da nahikoa gaur dugun hau.



'Euskarazko teletipoak' itzulpenak baino ez ditu eskaintzen.

zituztela baina euskal kazetaririk ez egotean, langabezitrik hartu zituzten itzultzaileak —dio Eukenek— «ona sartu nintzen itzulpen lanak egiteko eta ez kazetel lana, ez naizelako kazetari!».

Eukene, Inaxio eta Anak euskaratzen dituzte agenzia osoko berriak eta komentatzen digute hasera batetan izan zituztela hainbat burukomin baina gaur egun gainditurik dituztela; hala ere ez dute kontakturik beste komunikabideetako euskara zerbitzuekin eta beraien kabuz euskaratzen dute guztia inongo erreferentzirik gabe; «beste medioak entzuten ditugu eta nolako forma erabiltzen duten ikusi; nolabait esateko 'elkar kutsatzen' dugu, askotan berlarriarekin jokatzeko duzu. Bakoitza bere aldetik dabil eta nik harena entzuten dut eta hark nirea, eta bakoitza ahalegintzen da ahal duen ongien egiten...» Hizkuntzaren arazoari buruz eta batasun faltari buruz zioten «erizpideak bateratzeko falta argia da. Bakoitza bere aldetik dabil eta ikaragarritzko asto-lana egiten ari da».

«Parlamentuan 'albisteen euskal agentzia' aprobata zen eta ez gaur egun dugun itzulpen agentzia bat»

—Xabier Gurrutxaga(EE)—

Kritika falta handia

Komentatzerakoan komunikabideek bota dituzten kritikak euskarazko zerbitzuari honela diote «komentatu izan digute oso esaldi literalak egiten ditugula, baina egia esateko oso kritika gutxi jaso dugu. Ikusten da ere inor ez dela arduratu gure lanaz eta batzutan badirudi alferrikako lana egiten dugula». Beren lanetaz gustora dauden galdetean barru-barrutik arnasa bota eta erantzuten digute: «ez dago euskal agentzia bat sortzerik erdal agentzia baten barruan; ez da nahikoa itzulpen lana egitea baina ez dago besterik egiterik. Guk ez dugu arduradunik eta ez ere zuzentzailearik, geure artean konpondu behar izan dugu».

Etorkizunaz galdetean eta euskal egunkari posible batetan pentsatzerakoan hauek zioten «zuzendariak esan digunez, lau urtetan jarraitzeko konbenio bat firmatu behar du Legarretarekin eta euskal egunkariari begira, argi dago egunero aterako den medio batentzat gure zerbitzua nahiko alferrikakoa dela eta 'partxeo' hutsa dela ere nahiko argi dago. Nahi bada gure lana lagungarri izango da baina lehen esan duan moduan, erdal agentzia baten barnean ezin da miraririk egin».

Erreportaia egiterakoan gobernuarekin ere kontaktuan jartzeko ahaleginak egin ditugu, eta lortu ere lortu dugu Eusko Jaur-laritzan gai honen ardura duen Josu Legarretarekin hitzegitea. Legarreta Jaunak ez zuen nahi izan ezertxo komentatzerik euskal agentziari buruz; eta benetan lotsagarri, telefono linea moztu zuen.

Erranak erran

EUSKARAZKO EGUNKARIA SORTZEN

“Gasteizko gobernuak euskal egunkaria sortuko balu, ez al luke egin behar beste bat erdaraz? (...) Herri inizatibari toki utzi behar zaio. (...) Batzuk itxoin behar dela diote, euskaldungoa ez dagoela prest; baina noiz egongo da?, egongo al da inoiz? Edo agian, bultzakada hau behar falta da?

Txema Auzmen di.

(«Hemen», 90-1-26).



ATLAS LINGUISTIKORAKO FONETIKA LANA

“Hizkuntza aldatzen doan heinean, premiazkoa da ahozkeria ezberdinak jasotzea. (...) Zaharrek sistema fonetikoak jatorrasun gehiagotzat mantentzen dute gazteek baino. (...) Hizkuntza estandarizatuaren beharra defendatzen badut ere, nire ustez euskalkiak herriaren patrimonio dira.

Rosa Miren Pagola.

(«Eguna», 90-1-25).

BALIZKO POESIEN ERRESUMA

“Euskal poesiak dituen gaitzariko ia handiena iraupen luze olerkari falta dugu. (...) Poesibideetan fondoko korrikalari bat bera ere ez dugu. Aresti hil zenez gero. Edo, hobeto esanda, ez dugu halakorik izan ordutik hona. Koldo Izagirrearen liburuari garrantzia ematen diona, bada, zubia izatea da. Ez ageriko zubia, horregatio, urpetakoa baino. Denbora luzean begien izkutuan eraikia.

Edorta Jimenez.

(«Egin», 90-1-23).



ADMINISTRAZIOAK IAZ DIRULAGUNTZAK UKATU

AEK-K KANPAINA MARTXAN IRUÑEKO GOBERNUAK ONES DEZAN

Alderdi politiko eskuindar eta espainolistek gobernatzen duten Iruñeko gobernuak euskarari arretarik ez eskaintzeaz gainera, eraso politikari jarraitzen dio. Ikastolarekiko jarrera tamalgarriri, euskalduntze lanean diharduen AEKrekikoa da nabarmen. Iazko maiatzean Administrazioak AEKko 42 ikasguri eskatutako betebeharrak guztiei erantzun arren, subentzioak ukatu zizkien 89ko urtean zehar, arazo teknikoak aitzaki. Dirulaguntzen ukapenak 12,5 milioiko galera eragin zion AEKri 88-89ko ikasturtean eta 7 milioiko 89-90ko ikasturtearen lehen hiru hilabeteotan.

Administrazioaren jarreran eragin asmoz, AEK mobilizazio kanpaina bati ekin dio, herriz herri informazio zabalduz lehenik, eta otsailean nafar udaletan mozioak aurkeztuz ondoren, gobernuaren eta AEKren arteko akordioa lotu dadin eska dezaten udalak.

IAZ DONOSTIAKO ZINEMALDIAN IRAGARRIA

«EUSKOFILM» ERAKUNDE PUBLIKOAK ZINEMAGINTZAZ ARDURATUKO

Iazko Donostiako Zinemaldian Jaurlaritzako Kultur Saileko Joseba Arregi eta Eusebio Larrañagak iragarri bezala, euskal zinema eta bideogintza produkzioa razionalizatu eta sustatzeko erakunde publiko bat sortzear dago: «Euskofilm», 20 milioi pezetatiko kapital sozialaz eta 400 milioiko dirulaguntzaz.


Egundaino euskal zinemagintzako ekoizpen lanetan aritu diren langile, tekniko, eta produktoreen babesa ziurtatu eta baldintza aproposak bideratzea izango da erakunde honen egitekoa eta helburua. Dirulaguntza politikaren autokritika egin ondoren, ekoizpenen zabalkunde sare ahula primatuko dela jakin erazi dute. Aurtengo produkzioetarako 140 milioiren banaketa deliberatu da —70 koprodukzioetarako eta 137 telebistarako— eta 70koa Donostiako Zinemaldirako.

Txutxumutxuka

OMENALDI DISKOA MIKEL LABOARI

□ Udaberrirako kalean izango den Mikel Laboaren kantuen bertsioz osatutako diskoaren grabaketa lanak otsailaren 5an hasiko dituzte; M-ak, Delirium Tremens, BAP tartean eta baita zenbait maketadun talde ere. Azala Zumetak pintatuko du, eta aurkezpen hitzak Atxagak jarriko dizkio. Laboaren omenez IZ eta Elkar-en artean argitaratuko den elepearen etekinak Seaska-ren alde baliatuko dira.

«TXEPETX» LINGUISTA SIADECO-REKIN LANEAN



□ Iruñea bizileku gisan hautatu duen J.M. Sánchez Carrión «Txepetx» hizkuntzalari ezaguna Siadeco-rekin hasi berri da lanean. Hala Siadeco-k nola beste hainbat erakundek euskarari buruz eginiko azterketen bilduma osatuko du lehenik eta teorizazio lana burutuko jarraian.

JOSEBA SARRIONANDIAK 10 NARRAZIOKO LIBURUA

□ Haur literaturako liburuak ostean, Pamiela-rekin «Ez gara geure baitakoak» plazaratu du Joseba Sarrionandiak denbora gutxian. Martxorako berriz beste bat espero da, Elkar-en eskutik honakoa. «Ipar aldeko orduak» izango du izenburua, garai eta toki ezberdinetan kokaturiko hamar narrazioz moldatua.

GORKA ARRESE

UNIBERTSITATEARI DAGOZKION 203 IRAKASLEAK LORTU ARTE
IKASLE KOORDINADORAK EZ DITU MOBILIZIPENAK UTZIKO

Errektoregoak hogeitak irakasle kontratatu borrokan dauden fakultateak isil arazteko

Errektoregotzak, Gasteizko Filologia eta Historia fakultatean eta Leioako Arte Ederretako fakultatean falta diren irakasleak kontratatuko direla agindu du. Bitartean, unibertsitatean euskararen normalkuntza prozesuaren koordinatzaile eta sustatzaile izango den komite bat antolatzeko lehen pausuak eman dira.

Artatekoaren bitartekotzak EHUko errektoregotzak proposaturiko irakasleen kontratazioa posible egin du. Irakasle berri hauen finantziakzioa unibertsitateak ate-

rariko pertida berezi bateko be- teko du antza, eta ez Hezkuntz Sailak. Falta diren 103 irakasle horietatik zeintzu diren premiatsuenak erabaki eta beraien kontratazioarako bidea jarri du

errektoregotzak. Premiatasuna erabakitzeke orduan erabili den erizpidearen helburua Ikasle Koordinakundeak bi fakultatetan aurrera daramatzen mobilizapenak isilaraztea da. Arte Ederretako eta Filologia eta Historiako fakultateei falta zaizkien irakasleak ekarriz, alegia. Jadanik ezaguna da Gasteizko Filofogi eta Historiako fakultateak gabonak ostein itxi zirela, bai eta Arte Ederretako irakasleak Bilboko Arte Ederretako museoan enzerraturik egon direla. Nahiz hogeitak irakasle hauek hutsune bat betetzen du-

ten, Ikasleen Koordinadorearen hitzetan ez dira mobilizapenak geldituko, baldin eta irakasle guztiak lortu arte.

Azken urteetako borroka arrastaka

Fakultate bakoitzeko Euskara Batzordearen eraginez, departamenduek eskaturiko 103 irakasle horiek, unibertsitateko gobernu juntak onartu bazituen ere, Hezkuntz Sailak argi utzi zuen hauen finantziaketa eta ondorioz kontratazioa ez zuela bere gain hartuko. Oraingoan ikasle eta irasleen presioak medio, Arartekoak, Hezkuntza Sailak unibertsitatea kontratazio hauek aurrera eramateko baimendu du.

Irakasle kopuru honez gain, beste 100 irakasle laguntzaile bekadun ere eskatu ziren aurtengo ikasturterako. Hauek funtsezko dira irakaslegoa sortzeko, bereziki auskal adarrean. Administrazio eta zerbitzu pertsonalean iaz martxan jarri ziren euskalduntze ikastaroak eten eta ez dirudi asmo gehiegirik dagoenik berriro ere ekiteko.

Urteroko arazo, jadanik historikoak, oraindik ere badiraute. Testuinguru orokor honen aldaketarako hainbat talde aspaldidanik ari da lanean, Euskara Batzordeak eta Euskal Ikasleen Koordinadora kasu. Oraingo honetan, indarrak batu eta alferrikan galdu ez daite-



Arte Ederretako irakasleak, hamar egunez egon dira entzerraturik, Bilboko Arte Ederretako museoan.



Falta den irakasle bakoitzeko marratxo bat; ikasturteko egunak baino gehiago dira behar diren irakasleak.

Atrebentzia ez bada

Administrazioaren joko zikina

BEHIN baino gehiagotan entzun izan dugu, herri honetan dena partxeekin konpontzen dela. Beste hainbat aferari lez, orainoan ere Euskal Herriko Unibertsitateak sofritu du partxeo politikoa. Helburua? Indarrak banatu eta mobilizapenak porrot egin araztea. Ikasleek armarik badute, horiek mobilizapenak dira. Eta Erretoregotzak eta Hezkuntza Sailak, horiek deuseztea.

Unibertsitatearen euskalduntzea, agintarientzat zertan den asmatzea ez da zaila. Sortzeko prozesuan dagoen, unibertsitateko euskalduntzea koordinatuko duen komite horren inguruan antolaturiko asanblada erraldoian onartu zen lehen puntuetariko bat zera zen: edozein ikasle du eskubidea bere ikasketak euskaraz egiteko eta unibertsitateak irakaskuntza hori bermatzeko bete beharra. Hain zentzuzko den aldarrikapen hau oraindik ere asanblada mailan tratatzeak, frankismo garaian sortutako gure unibertsitate honek ez duela aurrera pausurik eman esan nahi du antza.

Une honetan unibertsitatean planteiatzen dena zera da, ziurtatu dituzten 20 irakasle horien onarpena ala baztertea. Onartuz gero ere, mobilizapenak aurrera darraite. Asmo horregaz behintzat. Ez da estraino izanen guretzat indarrak itzaltzen eta ikasleak 'beren lekuetara' itzultzen ikustea. Irtenbidea: koordinazioa eta ideiak argi eta garbi edukitzea eta ondorioz mobilizazioa; unibertsitateko estamendu guztien inplikazioa lortzea eta ikasleen arteko indarrak sortu eta lotzea.

E. IRAZOKI

raren arazoaren inguruan jende gehien bildu duen asanblada orokorrak onartu zuen. Bertan, unibertsitateko estamendu guztiak zeuden present. Hamaka puntutako manifestu bat onartu ondoren, komisioren eraketa onartua izan zen. Une honetan luzaroagorako jotzen da antolatze hau, irakasle faltaren arazo puntual eta aldi berean historikoari indarrez ekiteari lehentasuna eman bait zaio.

Ikasleen mobilizazioa gero eta zailago

Irakasle faltaren arazoa orokorra izanik ere, EHU-UPV osoan bi baino ez dira izan mogitu diren fakultateak. Arrazoiak desberdinak dira: zenbait fakultatetan asanblada deialdia egiteko erabili behar den prozedurak, gehienetan ez du posible egiten deialdia burutzea; gehienetan informazio falta argia da, errektoregotzak ez ezik, inork ez ditu falta diren irakasle guztiei buruzko datu zehatzik; erderazko adarrean arazoa ikasle denak klase berean sartzearekin konpondu da; euskal adarreko zenbait ikasle, erdal klaseetan integratu dira; eta arazo orokor eta larrienezat jo daitekeen unibertsitateko ikasle askoren ajolagabekeria, beraien mugitzea eta kontzientziatzeak izugarriko esfortzua eskatzen duela. Orohar unibertsitateko giroa 'pasotismotzat' definitu daiteke.

Badirudi indarrak erretzen doazela eta borrokan aritu diren fakultateek erreleboa eskatzen dutela. Errektoregotzak egin duen jokoarekin ez da erraza izango borroka pizturik mantentzea. Orain arteko indarrak baretzen badira eta berriak batu ez, orainoan ere errektoregotzak eta hezkuntza sailak dituzte irabaztekoak.

E.I.

zen, plataforma iraunkor bat antolatzeko bideak martxan dira. Oraindik izen gabe dagoen komite edo plataforma honetan interesa duen edozein talde unibertsitariok har dezake parte. Beraren zeregina, beste taldeen lana koordinatzea litzateke. Izakeraz antolamendu politikoa du, ez teknikoa. Hots, ez da plangintzak egiten arituko, presio eta sustatzaile talde legez funtzionatuko du, bai arazo puntualetan eta bai historikoe-tan.

Euskararekiko politika baikor baten bila

Unibertsital insituzioek euskararekiko politika baikor eta eraginkorra eraman dezaten bultzatuko du komiteak: izaera orokorreko plataforma errei-bindikatioak planteiatu; unibertsital munduan sortzen diren euskararen aldeko edozein ekintzetan parte hartu; unibertsitatean euskararen egoera hobea egiteko lanetan dabil-tzan erakunde extraunibertsitalekin informazioa trukatu...

Plataforma honen sortzearen inizatiba kazetaritzako fakultatean izanik, oraindano euska-

ORAINGOZ NAFARROA ETA ARABAKO EUSKALTEGIEZ DIHARDUTE

Ikas eta Ari: «Leku berrietara hedatzea eta alfabetatzea indartzea helburu»

AEKn gertatutakoa espulsiotzat harturik, koordinakunde berri gisa lan egiteko asmo finkoa dute. Denendako lekurik eta zereginik badela eta, berreuskalduntzean duten taldeekiko harremana komeni litzatekeela diote. Arturo Kanpionen izan ginen Sagrario Alemanekin.

Nafarroan gertatua oso gogorra izan zen, baina gero etapa beri bat hasien ari zela jabetu ziren, «ez ginea zentro bakar bat, bagenuela eritzi berdintsua beste batzuekiko, eta koordinazioa beharrezkoa zela ikusirik aurrera jarraitu genuen». Azken batean AEKren barnean koordinakunde defen-datzen zuten, diferentziak ere hutsegite hortik etorri zirela, diferentziak funtzionamenduan eta beste gauza askotan zeuden. «Baina koordinakunde loturak ez dira hain estuak edo hain zentralak izanen», egia da ere erakunde modu askotakoa izan daitekeela, autonomia gehiago edo gutxiago izanik. «Orduan, guk, koordinakunde moduan ulertzen genuenez, horixe egin genuen».

«Oso argi daukagu, momentuz behintzat, esparru oso irekia dugula, nahiz eta uste dugun orain arte gehien aritu den AEKk berak bakarrik lan hori ezin eraman duela aurrera, eta pentsatzen dugu gu ere beste bat gehiago garelako hortaz».

Beren ikuspegia instituzioak gero eta gehiago inplikatzearanda, nahiz badakiten haiek ez daudela prest, nahia ere ez dute-

la lan horretan buru belarri sartzeko, «baina gure lanak izan behar luke horiek behartzea».

Ahal baledi, zabaldu

Asmoa dute gaur egun ez dau den toki batzuetara iristea, batez ere deus ere ez dagoen tokietara,

baina oraingo Nafarroan eta Araban besterik ez daude. Nafarroan toki berrietara heldu dira, lehen gau eskolarik ez zegoenertara, beharbada duela urte batzuek bai baina orain ez zeudenertara. «Badakigu gehiago ere badela, orduan gure asmoa ez inola ere AEK edo besteren bat dagoen tokietara sartzeko, pentsatzen dugulako hor ari direla lanean, gu ez bagara ere beste batzuek. Zabaltzea, noski, gure posibilitateen arauera», baina kontua ez da zabaltzeagatik zabaltzea.

Lorpenen artean nabarmenena Leitza sartu izana, nahiz as-

kotan pentsatzen den Leitza bezalako herri euskaldun batek ez duela horrelako beharrik. «Gure ustez horrelako lekuetan izugarritzko lana dago, bai alfabetatzen eta bai euskalduntzen».

Alfabetatzeari garrantzia berezia eman nahi izan diote, «uste dugulako garai batean helduen euskalduntzea alfabetatzean oinarritu baldin bazen ere, gero oso talde gutxi zirela. Beraz, gure oraingo asmoa alfabetatzeari garrantzi gehixeago ematea da, bestea utzi gabe gure indarrak hor sartzeko. Aurten alfabetatze alorrean irakasle talde bat sortu dugu, bertan Bortziri eta Malerreka, Leitza eta Iruñeko jendez. Zortzi bat irakasle gaude programak egiten eta hori bideratzen».

Ia 2.000 ikasle

Arabian sortu dituzte beste gau eskola berri batzuek. Aurten ari dira Errioxan eta Kanpetzun, Errioxan ari ziren lehenago ere. Gasteizen ere bi euskaltegiekin segitzen dute, baina orain bi gau eskola ttiki sortu dira.

Ikasleei dagokionez, hona banaka banaka: Atarrabia, Burlata, Uharte; 70; Ipes; 45; Bortzirieta; 120; Malerreka; 32; Barañain; 70; Arturo Kanpion; 423; Leitza; 50. Araban berriz, Errioxan; 130; Kanpetzun; 30; Gasteizen 905. Kontutan izan ikasturte hasierako xifrak direla eta geroztik talde berriak sortu direla hainbat tokitan. Beraz, gehixeago ere badira.

INAKI CAMINO



«AEK ari ez den lekuetara zabaltzea dute asmo»

«ODOLEKO ESKIFAIA»K BERE PRODUKZIO POETIKOAN PROZESU BAT ISTEN DU

Edorta Jimenez: «Eklektikoa naiz, ez dut eskolarik, ez biderik»

Liburu honekin bere produkzio poetikoan ate bat hersten omen da, «ze sonetoak ikaragarri maite ditut baina ez dut forma neurtu gehiagorik egin nahi. Trukoa ikasi dut eta oso erraz erortzen da norbera ere bertolarien jokuan, betegarrietan». Liburua prosa nahiz poetikako lan desberdinen sintesi bat egin du hersketa hori ziurtatzeko. «Ezin dut nire burua errepikatu, aurreko guztia alde batetara utzi behar dut».

Belaunaldi kontua berriztatu

Liburuko hainbat poesia, berak dituen zaharrenetakoak dira, okasio honetarako berridatziak, berak poesiari aldarrikatzen dion izaera aldakorraren baitan. Berriztatzailatzat jo izan da bere lana; kasu honetan sonetoak desegitera jo du, neurritik ez neurrira, baina hala ere nolabaiteko neurria gordez. «Sarritan sonetoan dagoen erritmoa, sonetoaren forma berak izkutarazten du eta irakurtzen jakin behar da. Nik horretara laguntzen dut sonetoa deseginez, Arestik egin zuen bezala».

Bere ustez, gaur egun Atxagaren 'Etiopia' liburua hartu zen berriztatzailatzat eta hurrez gero ez du inork onartu nahi beste batzu ere berriztatzailerik izan daitezkeenik; «azter-

Poesia obsesio bihurtzen dela diosku, arriskutsua. Distantzia mantentzea ezinbestekoa dela, bestela literato bihurtzen bait zara; «eta munduak hor jarraitzen du eta idazlea autista bihurtzeko arriskuan dago».



«Euskal literatur klasikoekiko zorra kitatua dagoela, uste dut aro berri bat hasiko dela»

tu egin beharko litzateke ea besteok berriztatu dugun edo ez. Beharbada nahiz ez berriztatu egin gabekoa egin izan dut».

Berriztatzek belaunaldiarekin zerikusia ei du. Bere belaunaldiaren barnean ere klasi-koenganako zorra kitatzeko saiakerak egin omen dira.

«Kontzidentzi ikaragarri bat dago. Aranbarrik, Koldok, Arrietak eta nik, laurok hartzen ditugu literatur klasiko zorbait pasarte. Euskal literatura ateka honetan dago: zaharrekiko zorrak kitatzen. Uste dut aurreko aro berri bat hasiko dela. Tradizioa berreskuratuz ondorengoei esango zaie hor egon zirela eta zubi lana egingo dugu. Baina nahikoa da. Liburu honetan zor hori kitatua dago».

Kontrajarren sarea

Literatura beti da kontrajarren jokua Edortak dioskunez. «Irakurri eta irakurri, idatzi eta idatzi, ez dugu beste inork idatzia idazten. Guri etor dakiguke beste batek egin duela ez dugu egiten; emaitza guztiak kontrajari egiten dira egin dagoenari, kontrajarren sarea sortuz». Euskal literatura sarea da eta orain arte ez omen da sarerik egon, bere barne bilakaera, barne bideak kontutan hartuta. «Olerkaria irakurlea da eta irakurketari nolabait lotu eta deslotu guran idazten duena da. Baina sistema honek ere kartzelatu egiten gaitu, ze norbaiten eragina handiegia denean itogarri gerta daiteke hori, askabidea izan dena gartzela bide bihurtzeko».

DAGERRE-K FOTOGRAFIA PROZESUA SORTU ZUELA 150 BETETZERAKOAN
ERAKUSKETA ZABALA PARATU DU EUSKAL ARGAZKILARIEN ELKARTEAK


Egungo argazkigintza 141 fotogramatan

Louis Jacques Mandé Dagerre Parisetik gertu dagoen herriska batean jaio zen XVIII. mendearen amaieran. Gurasoak Ifar Euskadikoak zirela ere esan ohi da, nahiz eta horrelakorik baieztatu ahal izateko frogarik ez dagoen. J.N. Niépce delako baten azterketen ondorioz erdietsi zuen Dagerre-k gaur egun *dagerrotipo* izenez ezagutzen den fotografiaren estraineko teknika. Dagerrotipoaren aurkezpen ofiziala 1839ko abuztuan egin baldin bazen ere, badirudi 1835ean lortu zela lehen inprimaketa fotografikoa.

Aurten beraz, 150 urte beteko dira idoroketa hura gertatu zela, eta munduan barrena ez ezik, Euskal Herrian ere erakusketa bereziak egingo dira fotografia artearen inguruan.

Iragan astelehenean, Donostiako Gipuzkoa Kutzako kultur aretoetan Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak egungo euskal fotografoen panorama zertan den ezagutarazteko erakusketa zabaldu paratu zuen 141 argazkilarien lan bidez: «Euskal argazkilariak 150 gero». Erakusketaren koordinatzaileetarikoa bat den Gorka Zumetak adierazi digunez, «hasiera batetan euskal argazkigintzaren historia moduko bat osatzea izan zen Elkartearen asmoa. Baina azterketa eta bilketa lanei ekin genienean ohar-

Dagerre-k fotografiaren lehen inprimaketa erdietsi zuela 150 urte beteko dira aurten. Data historikoa dela eta, Euskal Herriko Argazkilarien Elkarteak egungo euskal fotografoen panorama aurkeztu nahi izan du egunotan Donostian zabaldu den erakusketa eta liburu argitalpen baten bitartez.



«*Lekuona eta Ojanguren, euskal argazkigintzaren historian fotograforik estimatuenerarikoa direnen lanak ere jaso ditu erakusketak*»

tu ginen sekulako hutsunea dagoela horrelako erakusketa historiko bat osatzeko. Horregatik hobetsi genuen gaur egungo


euskal argazkigintza zertan den erakustea, nahiz eta jakin kanpoan jende askoren lanak utziko genituela».

Erakusketako liburua edo enziklopedia ttikia

Jaurlaritzaren 4 milioi eta pikuko dirulaguntzaz muntatu den Euskal Argazkilarien Elkartearen erakusketa urtarrilaren 29 zabaldu eta otsailaren 18a bitartean iraungo du Donostian, ondoren Bilbo, Gasteiz eta Iruñean ere ikusi ahal dela urtean zehar, bai eta Bartzelona eta Madril.

Hegoaldeko 141 argazkilarien lanak daude honez gero ikusgai, tartean izaki zendutako zenbait fotografo ezagun—Nikolas Lekuona, Indalezio Ojanguren edota Jesus de Etxebarria kasu— gaur egungoekin batera: Sigfrido Koch, Xabi Otero, Pedro Zarrabeitia, Alberto Schommer, eta Egiguren anaiak bezalako famatuak; FIAP erakundeak oraintsu munduko maisutzat izendatutako Ramon Serras eta Pedro Cruz—munduan 45 maisu bakarrik izendatu dira egundaino, biok izaki lehen euskaldunak—; eta gazteagoak diren Iñigo Royo, Migel Iriarte edota Iñaki Erkizia, besteren artean. Profesionalak nahiz amateurrak Donostiako erakusketan ikusgai, artistikoa, publizitarioa nola prentsa grafikoa lantzen dutenak.

Erakusketarekin batera 141 argazkilarien lanekin eta nola edo halako bakoitzaren biografiarekin liburu bat kaleratu da.



Pedro Zarrabeitiaren «Gurutzeak».



Migel Goikoetxearen
«Indioilar-zaina».



Migel Iriarte gaztearen
«Essus & Sherif».

«Erakusketarako argitaratu den
liburua egungo argazkigintza
ezagutzeko enziklopedia modukoa
gertatuko da»

«Ez dira bertan egungo argazkilari guztiak izango» adierazi digu Gorka Zumetak, «baina 141 hauek gaur egungo argazkigintzaren panorama erakusten duten neurrian, kasik enziklopedia bat bilakatuko da aurrera begira. Demagun euskal argazkigintzaren lehen entrega antzeko bat dela».

Kalitatez handiko inprimaketa burutu dute liburu honegatzat, eta kostoak handiak direnez tirada laburra egin dute oraingoz. Argazki zaleak biziki preziatuko du zalantzarik gabe.

Fototeka osatzeko premia

Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak 1978. urtean sortu zen, Hegoaldeko 30 taldek osatzen dutela. Hiriburuetan zehar argazki artxibategi ezberdinak daude barreiatuak,

baina etorkizunari begira egoitza bat finkatu eta fototeka zentral bat muntatzeko premia nabarri dute elkartekideek. «Filmoteka bat beharrezkoa den bezalatsu, fototekaren garrantzia oraindik ez da primatu, nahiz eta jakin Euskal Herriaren historia zati handi bat argazkietan gordetzen dela, eta halaber balio artistikoa ezin neurtuzkoa. Fototekaren hasiera edo enbrioia deituko genukeena orain bi urte zabaldu bagenuen ere, bilutsik dago».

«Euskal argazkilariak: 150 urte gero» erakusketa honetan parte hartu duten argazkilarien gehiengoak aurkeztutako bere lana fototekarako utziko du, «aurrera begira gaurkoak ere gordetzeak berebiziko inportantzia duela uste bait dugu».

GORKA ARRESE

**kirolzaleen
zerbitzutan**



miner

donostia

☎ 271050 eta 270447

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

NEGUI

HERNANI, 4 - 20004 DONOSTIA - Telf. 42 06 24

**HAR EZAZU
ASTERO
ZURE ETXEAN
BETE
TXARTELA
LEHENBAIT
LEHEN**

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA..... D.P.....
HERRIALDEA..... TLF.....


KOBRAKETARAKO DATUAK

BANKU/AURREZKI KUTXA.....
SUKURTSALA.....
KONTUAREN ZENBAKIA.....

MAROKO ETA ALJERIAN BARRENA LANEAN

Paul Bowles-en «Tea Saharan» Berttolucci basamortuan filmatzen

Aurrekontua «Azken enperadorea» filmekoaren parekoa bada ere, kamara-orkestra gisa definitzen du Berttolucci-k filme berri hau, aurreko hura orkestra sinfonikoatzat jotzen zuela. Barruko eszena ugari paisaia exotikoetan, eta Paul Bowles idazlea bere nobelako pertsonaiekin aurrez aurre.



Azken egun hauetan Aljeriako dunetan ari dira «Tea Saharan» nobelako Port pertsonaiaren heriotza filmatzen. 1947an hil zen lehendabizikoz, Paul Bowles idazle amerikarraren eskutik eta orain Bernardo Berttolucci-k erakusten digu, idazlearen baren autografia berpiztuz.

Filme honekin hasi baino lehen ezer gutxi ezagutzen zuen Berttolucci-k Afrikaz hala nola Bowles-en nobelaz, idazleak bere aldetik ikusi gabe zeuzkan zinegilearen filme guztiak. Hala ere, laguntzaileek bultzaturik, Tanger-era jo zuen Berttolucci-k pertso-

naien erreferentzia bila. Hasiara batean Bowles-ek ez zuen adierazbide gehiegirik eman, nobelako Kit Moresby neskaren pertsonaia Jane Bowles emaztea izan zenak inspiratu ziola onartu eta besterik ez. Baina Debra Winger aktorea —filmean Key-ren rola beteko duena— karakterizaturik ikusterakoan oroimen guztiak bueltatu zaizkio, oroimenaren mina esnatu egin da.

Tanger eta Marokotik barna ibili ondoren Aljeriako Beni-Abbès herrira ailegatu dira eta John Malkovich —«Lotura arrisku-tsua»eko Valmont zinematografikoa— gaisotasunaren azken mugetan agertzen da. Filme barnekoia agian baina, zuzendariaren ustez, pasaturik dago agorafobiaren garaia: «Abstrakzioak aurrera egiten du filmearekin batera. Eta, honelako tokietatik pasatzean pertsonaiek exotismoaz mozortzeko tentazioa izan beharko lukete baina, sakonean beraiek agertzen dira objektu exotiko gisa. Ez dira sekula ikusten dutenaz mintzatzen: itsutu egiten ditu beren ixtorio pertsonalak».

Azken filme honekin aurrerapausua eman nahi du errerealizatzailer italiarrak eta, ematen duenez gustora dago. «Gatazkaren erdian murgilduta nengo ez nuelako iadanik zinemaren eta bizitzaren arteko bereizketarik egiten. Bukatu egin da guzti hori, filmeak ez dira horren neurotikotik izango. Eta orain, 48 urtekin, publikoarekin harreman... posibleagoak baldin badituz, gizakiekiko nire harremanak konpondu egin direlako da. Horren ondoren filmeak datoz».

Produkzioari dagokionez Jeremy Thomas dugu buru. Azken enperadorea Hollywood-eko dolar bakar bat ere erabili gabe produzitu zuen eta oraingo honetan Bowles-en eskubideak zirela eta arazorik egon bada ere azkenik helburua lortu du Britainia Haundiko eta Italiako sosa erabiliz.

J.M. HERITZ

Zipristinak

EUROPAKO ARTISTA GAZTEEN BOSTGARREN BIENALA



□ «Germinations» dugu 1982.etik antolzen den bienal honen izen jenerikoa. Aurtengoan bederatzia estatutako artista gazteren lanak aurkezten dira, hilaren bukaera arte Lyon-en, Glasgow, Bonn eta Bredan ondoren.

Alemania, Belgika, Espainia, Frantzia, Britainia Handia, Holanda, Irlanda, Portugal eta Suizako artista aukeratu guztiak 30 urtetik beherakoak dira eta Arte Ederretako ikasle izandakoak.

BOTTICELLI BERRI BAT FIRENZE-N IKUSGAI

□ Berrogeitamar urtez museotatik kanpo egon ondoren aukera izango dute Firenze-ko bisitariek Botticelli-ren *Ama Birjinaren Koronazioa* ikusteko gainerako bere lanekin batera. Euskarriaren egoera txarra izan da koadroa gorde eduki zeko arrazoia eta otsailaren 11tik aurrera, berriz ere ikusgai egongo da. Pintatzaile ospetsuaren arte lan honetan paradisua agertzen zaigu eta Jainkoa Ama Birjinari koroa jartzen, aingeru, lore eta hodeien tartetik.

MERKATARI ETORKINEN APALETAKO ARTEA

□ Belgika eta Frantziako iparraldean merkatarik inmigrauen tradizioa omen da bezeroak erakartzeko kristalezko bitrinak pintatzea, oroimen faltsten islada agertzen dutela artista anonimok. Basamortua inoiz ikusi gabeak oasisa pintatuko du, edo postal batetik ateratuko Atenas. Alain de Wasseige-k horrelakoen argazkiak egiten aritu ostean Bruselaren agertu ditu jendaurrera.



Zinema

Zine Klubak

● **Azkoitiko** gaztetxeko zine-klub taldearen eskutik Harold Beckerren **Taps** filmea pantailaratu da otsailaren 4ean bertako Kultur Etxean, arratseko 8,30etatik aurrera.



● Zumaiaiko Aita Mari zinema aretoan, Stephen Frearsen **Abrete de orejas** filmea proiektatu dute otsailaren 8an gaueko 10,15etan. Pelikulak antzerki idazle eta bere laguntzaile, adiskide eta «etxeko andrea»ren harreman pertsonal eta homosexualak trebatzen ditu.

● Azpeitiko zine klubean Peter Greenaway-ren **Conspiracion de mujeres** eskainiko dute otsailaren 9an, gaueko 8,30etatik aurrera.

● Gasteizko Mikeldi zine-aretoan 'Zine Ekologikoa VI. Astea' zikloaren barne **El oso** filmea pantailaratu da otsailaren 4ean. Hilareñ 5ean berriz **El rio que nos lleva**; 6an **La luna**; 7an **Sammy y Rosie se lo montan** eta 8an **Los dioses deben estar locos II**.

Zuzendaria: Idrissa Ouedraogo. **Aktoreak:** Fatimata Sanga, Noutou Ouedraogo, Roukietou Barry, Adama Ouedraogo, Amade Toure, Sibidu Ouedraogo. **Gidoia:** Idrissa Ouedraogo. **Argazkia:** Matthias Kalin. **Musika:** Francis Bebey. **Burkina Fasso, 1989.**



YAABA, AFRIKAR ERRETRATU TRIBIALA

Souleiman Cissek orain urte batzuek errodututako «La luz» filmea esku zabalik onartu ondoren, kuriositatez ezezik exijentziak ere itxaron izan dugu Afrika Beltzak esportatzen duen bigarren filmea. «Yaaba»k, amona moore hizkuntzan, zuzendariak haurtzaroan hamaika aldiz entzundako ipuia kondatzen du freskura eta ironiaz, zinemagintza afrikarrak komediara hurbiltzeko burutu duen lehen saiakeran. Pelikulak, kamara eta produktuaren akabatuan antzeman daitekeen bezalaxe, Frantzia eta Suizako konpainia batzuen babesak izan du, baina hala ere, berezko enkantu eta grazia gordetzen ditu planu bakoitzean. Historiak herriak arbuaitzen duen amona eta bere inguruan biltzen diren bi gaztetxoaren harreman estuak azaltzen ditu klabe xume bezain ederrean.

Amonaren egoerak, herria eta bertako biztanleen erretratu txukuna lantzeko beta eskaintzen dio zuzendariari, edozein tokitan gerta daitezkeen pasadizo arrunt guztiak kurioso trebatuz. Mutikoen arteko borrokak, guraso eta semeen desadostasun eta errietak, adarrak jartzen dituen emaztearen pasarteak edo bere senar mozkorraren jakituriak, aide xarmagarriaz kutsatzen dute ipuina, Cannes, Tokio eta Valladoliden txalo ugari jaso duen ipuin simple eta polit hau.

Filmeak bestela, dokumental itxura hartzen du tartean behin, baina gazteen lan apartak eta lurraldearen exotismo naturalak, planu berean laburbilduz hasiera eta amaiera, era fin batez inguratzen du afrikar herri honen bizimodu kostunbrista, tribala baino tribala den produktua erdietsiz. Zentzurik hoberenean.

A.GOSTIN

Zur eta lur


● Taviani anaiak sekretu osoan ari dira errodutzen beren azken produktua, «Sol oscuro». Urte batzuek pasa dira «Good morning Babylonia» bukatu zutenetik, eta dagoeneko albiste bihurtzeko moduan aurkitzen dira «La noche de San Lorenzo» eta «Kaos» filmeetako zinemaldi handiren baten egongo da seguruenik eta mende batzuek atzera kokatutako historia kondatzen du. Julian Sands, Nastassja Kinski, Patricia Millardet eta Charlotte Gainsbourg dira, besteak beste, pelikula sekretu honen antzezleak.



● Gerard Depardieu lan egiteko amorrazioz aurkitzen da. Bere azken abentura ordea, Frantziak iaz burututako filmerik garestiena izan da, «Cyrano de Bergerac». Edmon Rostand idazlearen obran oinarriturik, bere aurrekontua «Camille Claudel», «El oso» edo «Le grand bleu» pelikulen mailara iritsi da. Zuzendaria Jean Paul Rappeneau da, «La insoportable levedad del ser» eta Milos Formanek Choderlos de Laclosen «Les liaisons dangereuses»en oinarrituz burutu berri duen «Valmont» filmeen gidoigile, alegia.

Artea

Betaurrean izatekoak



● Urtarrilaren 4ra arte zabalik egongo da Bilboko Arte ederretako museoan Remigio Mendiburreren 'Euskal pilota eta artea' erakusketa, goiz eta arratsaldez igandean izan ezik, astelehentan itxita egongo delarik museoa.


● Lezoko Andreone Kultur Etxeko areto nagusian Iberdueroren Mineralogia eta Paleontologia erakusketa zabalik izango da otsailaren 10a bitartean, goizeko 9etatik ordu bata bitartean.

Ikastaroak

● Gasteizko Pedagogi Aholkularitza Tegiak antolatuta, otsailaren 12an hasiko da **Egun-go artea** izenburua daraman ikastaroa, martxora arte luzatuko dena. Bertan landuko diren gaiak honako hauek izango dira: 'Egungo euskal eskultura eta pintura', 'Arte historiaren didaktika', 'XX. mendeko pintura' eta 'Metodologia ikonografiko eta ikonologikoa'.

Antzerkia

ETA ETXEKOAK ZER MODUZ?



Donostian pasa den astetik ospatzen ari den "Antzerki Feria" k aurtengoan hirugarren urtea betetzen du. Ekitaldi honen xede da, Euskalerriko nahiz estatuko antzerki taldeek produktoreekin kontaktu bideak erretea. Honetarako antzezlan egitarauaz gain, antzerki taldeek beraien lanaren beri emateko standak antolatu dira Donostiako udaletxeko erakusketa aretoan; orotara 26 estand eta 16 antzezlan taularatuko direnak. Antzezlan guztiak hiru egunen buruan dira taularatuak, ondorioz egun bakoitzean lau taldek antzeztzen dute.



Otsailaren 3an, "La Funcionaria" talde gasteiztarrak, "Los Funcionarios (Brigada especial)" antzezlan taularatuko dute, eguerdiko 12etatik aurrera, Principal antzokian. Arratsaldeko 5etan berriz, udaletxeko erakusketa aretoan, "Jacara" taldearen "Por narices" obra ikusgai izango da. Egun berean ikus ahal izango den beste lan bat "Modigliani" da. Orain taldeak antzeztuko du, Victoria Eugenia antzokian arratsaldeko 7,30etan. Feriarekin amaitzeko, "Duodeno" taldeak, "Pasen y mueran" antzerkia antzeztuko du, gaueko 11etan Principal antzokian.

Esan bezala antzezlanak hamasei dira eta denak erderaz antzeztuak, baita hemengo taldeenak ere, "Bederen 1" ena izan ezik; talde honek bitara taularatuko bait du bere azken lana. Osatutako programa estatu españolean iharduten antzerki konpainien estreño nahiz produkzio bidean dauden ikuskizunen jarraipenaren emaitza baino ez da. Planteiamendu honen ostean erraz uler daiteske, zergaitik ez dagoen euskal antzerkigintzaren erreflejurik ekitaldi hauetan; kanpoko profesional eta zirkuituei begira antolatuturiko "feria" bait dugu.

E. IRAZOKI

Ipuin lehiaketa

● Zumarragako Udala izeneko V. Ipuin Lehiaketa antolatu du bertako Kultura Batzordeak, euskarazko zein erdarazko lanentzat zabaldua. Adinaren arabera hiru maila berezitan banatuko dira parte hartzaileak, eta gaia librea izango da. Lanak, inoiz argitaratu gabeak, Udaletxeko Idazkaritzan aurkatzu beharko dira martxoaren 16a baino lehen; maila eta hizkuntza bakoitzeko bina sari emango dira, diruz eta Pariserako bidaiaz osatuak. Lehiaketaren baldintzei buruzko kontsultarik edo informazio gehiago nahi izanez gero, Zumarragako Udaleko Kultura Batzordera luza zaitezke.



Bertsoak

Plaza saioak



● **Tolosaldeko AEKk** antolatuta, otsailaren 3an, larunbatez, bertsolari jaialdia izango da gaueko 10,30etan hasita Beotibar pilotalekuan Lizaso, Euskitze, Egaña, Sarasua, Sorozabal eta Mañu bertsolarien eskutik, Martxeli Sagastume gai-jartzaile izango dutela.

● Hurrengo larunbatean, otsailak 10, Anax, Sorozabal eta oraindik zehaztu gabeko beste bertsolari batzuk bertso saioa eskainiko dute **Antzuolan**, gaueko 10,30etatik aurrera.

● Hilaren 11an berriz, igandez, Lapurdiko **Saran** eta Ernest Alkat-en gidaritzapean honako bertsolariak arituko dira kantari Amerdio aretoan, arratsaldeko 4etan hasita: Jon Lopategi, Sebastian Lizaso, Euskitze, Xanpun, Ezponda eta Jean Pierre Mendiburu.

BERTSO TXAPELKETAN JENDETZA; ETA ONDOREN?

Kanporatu eta nor aurrera ateratzeko lan horretan zer gertatuko zenaren berri jakin ahal izateko, jendea edonora mugitu zen bertsoak entzuteko eta mementuan puntuazioa ezagutzeko. Erdipurdiko eta urduri osatutako bertsoak belarrietara iritsi arren, jendez gainezkatzen ziren bertso-tokiak. Jendea baten alde eta besteen aurka zegoen; gustokoen zituzten bertsolariak finalera iritsiko zirenaren itxaropenez. Saltsa hori zela medio, saioz saio nabarmenago gelditzen zen jokoaren kutsua.

Hilabeteko jardunaldiaren ondoren, finaleko hotsak desagertuz, herri batzuetan saioak egin dituzte sua itzal ez zedin. Baina adibide gisa zera esan dezakegu, Iruñean finaletik bošt egunetara zortzikoteak osaturiko saiora 250 lagun besterik ez zela bildu. Ohizko jendeaz aparte, finalera bestela inoiz bertso saiotara agertzen ez zen jendea azaldu zela nabaria da; eta garagaradoaren aparra bezala jeitsi da. Honen aurrean, entzulego horri bestelako saiotara ere joan dadin eskatuko genioke, benetazko zaletasuna ageri izan baldin badu txapelketa osoan.



Hala ere, esan beharra dago goi mailako bertsolari osatutako saioetara hurbiltzen dela hasiera batetan. Tartean bere gustokorik ez edo ezezagun bat aurkitzen bada, aldeztatik honako esakerak entzungo dira: «Inor ez diat ezagutzen, ez niek», «bertsolari horiekin saio kaxkarra aterako duk» edo «garai bateko bertsolariak ez dituk oraingoak»... Honen aurrean esan, datozen gazteekin egin beharko dugula biharko bertsolaritza eta beraz hauek ere badakitela bertsoan, jendea bapo uzteko moduan.

BOTA PUNTTUBA

Paperak jasota

Monika Hiribarreni,
hemendik

I

Tristura Urruñan ta Itsasun malurra bi emazte gazteri eman behar lurra. Txalapartak dardarka jarririk hezurra oroit genuen zure irrifar samurra. Monika, tristea zen lagunon agurra.

II

Aita ta ama ausartak aurre hortan zutik eta Maddalen ere le'ertzen barrenetik Mikelen aurpegia esaten ez dakit laguna 're hor zaizu heldu Lehuntzetik Xan Polen falta txistuz bete dizu Bettik.

III

Hilobi gertatu da Errobia zola Nafarroko uretan Lapurtar odola. Zubero-Gipuzkotik bildurikan hola omentzen dugu utzi diguzun eskola. Zenbat nekez loratu zaigun ikastola!

IV

Arratsa ere lanbroz ari da penetan bilatuko zaitugu Monika benetan zure Arotzenian sortu bildotsetan, Euskal Herri berriko haurren irrietan eta primaderako gerezi loretan.


ARGIAko Pello

Musika


Kontzertuak

● Otsailaren 2an, ostiralez, **Dr. Deseo** taldeak kontzertua eskainiko du Laudioko Kultur Etxean, gaueko 9,30etatik aurrera.

● **M-ak** taldearen kontzertua iragarri dute hilaren 3rako, larunbatez, Ondarroako gazte-txean gaueko 10,30ak aldera.



● Arrasaten **Good Fathers** taldea entzungai izango da larunbatez, hilak 3, gaueko 11etan herriko polikiroldegian.



● **Tahures Zurdos** eta **Barri-cada** taldeen eskutik kontzertua izango da otsailaren 3an Oñatin, gaueko 11etan hasita.



GANBARATIK, FOLK-POP TOLERANTE BAT

LEHEN diskoan iragartzen zuten bideari jarraiki zaio Ganbara taldea, folk usainezko pop eklektiko bat egiteari. «Ganbaratik» honetan ere aire zaharrak letra berrieekin eta letra zaharrak aire berrieekin aurkituko dituzu. Maria Eugenia Etxeberriaren ahotsak ematen dio seilua taldeari, baina baita muga markatzen ere, halako zera artifiziozko bat edukitzen segitzen bait du. Musika moldaketek Blasko-Zarko-Unzu hirukotearen sinadura daramate, azken bi hauena batez ere. Unzu erreferentzia bat da gaur Gipuzkoan musika herrikoiarekin egiten diren esperimentu poperoen artean. Musika eginaz gozaten duen talde on bat ikusten da diskoan, eta hori oso nabarmena gertatzen da «Mirail aurreko anderearen dantza» piezan. Kanta zaharretara jotzea taldearentzako ia aitzakia bihurtu da, «Xurian xuri» eta «Gateau basque»n erakusten duten bezala. «Ai errenkura» hitz zaharrak eta musikaren giroa askoz koerenteago geratzen dira, eta multinazional baten montaje batekin «Uso xuria»ren bertsioak sekulako arrakasta beharko luke FMetan. Hitz berrietan, Joserra Gartziak bere muxarrarekin Leitzarango autobiari halako kexu nostalgiko bat egiten dio, eta Patxi Ezkiagarenak bata maitasunezkoa dugu eta «In illo tempore»n bortxakerian kanpeoi omen den herri honetarako tolerantzia aldarrikatzen du.

Ganbararen lan honetan gure inguruko folkaren oihartzunak aurkituko dituzu —Oskorri, Milladoiro—, folk-popera eboluzionatu duten Clannad bezalakoena, Irlandako uileann pipe edo kornamusa eboluzionatuarekin eta flautekin kutsu berezia ematen dio, Vangelis edo Crusaders-en ikutirik ez du falta. Azken finean, musika egiten badakien talde bat baina anbizio gutxi samarreko helburuz ari dena, ene ustez. Estatu Espainoleko merkatuan txoko bat edukitzea...

ARTASO

Kontzertuak

● **GRAP**Oko presoekin elkartzunez kontzertua antolatzeko asmoa iragarri dute Bilboko gazte-txetik. Oraingoz talderik zehaztu ez badute ere, **MCD** ia ziur izango da bertan, eta Hertzainak taldeaz gain Mikel Laboa eta Ruper Ordorikaren izenak ere aipatu dira, oraindik ziurtatu gabe.




● Bilboko Arriagan **Ruggero Raimondi** baxu-baritonoak errusiar eta italiar operatoko ariak kantatuko ditu, Moskuko Tchaikovski Kontserbatorioko Orkestraren laguntzaz.



FIAT-eko AUKERA

FIAT



FIAT UNO

FIAT UNO

FIAT UNO 45 FIRE 3 P (4V).....	1.028.830
FIAT UNO 45 FIRE SUPER 3 P.....	1.148.530
FIAT UNO 45 FIRE SUPER 5 P.....	1.199.670
FIAT UNO 60 FIRE 3 P.....	1.213.700
FIAT UNO 60 FIRE 5 P.....	1.258.920
FIAT UNO 70 SX 3 P I.E.....	1.389.260
FIAT UNO 70 SX 5 P I.E.....	1.439.800
FIAT UNO TURBO I.E.....	1.677.870
FIAT UNO DIESEL 3 P.....	1.358.670
FIAT UNO DIESEL 5 P.....	1.449.110

FIAT



FIAT CROMA

FIAT CROMA

FIAT CROMA CHT 100 CV.....	2.374.150
FIAT CROMA 2.0 I.E. 120 CV.....	3.118.950
FIAT CROMA TURBO DIESEL 92 CV.....	2.738.570
FIAT CROMA TURBO DIESEL 118 CV.....	3.113.630

FIAT



FIAT TIPO

FIAT TIPO

FIAT TIPO 1.400.....	1.580.406
FIAT TIPO 1.400 DGT.....	1.707.288
FIAT TIPO 1.600 DGT.....	1.830.978
FIAT TIPO 1.900 TURBO DIESEL.....	2.218.008

FIAT



FIAT REGATA

FIAT REGATA

FIAT REGATA MARE.....	1.399.950
FIAT REGATA RIVIERA.....	1.567.530
FIAT REGATA DIESEL SUPER.....	1.661.960

MATRIKULATU ONDOKO
PREZIOAK

AUTO ADARRA BANATZAILE OFIZIALA

Txingurri pol. z/g. Tf.: 397241. HERRERA-Donostia. Gran Vía, 7. Tf.: 288983. GROS-Donostia.

Electricidad AYA. Zarautz. Tel.: 834618 / IZARRA. Ibarra-Tolosa. Tel.: 670070 / GARAGE USURBIL. Lasarte. Tel. 362463
SAN CRISTOBAL. Beasain. Tel.: 883908 / NIETO ANAIK. Beraun-Errenteria. Tel.: 525290
TALLERES ACHAGA. Hernani. Tel.: 557232 / TALLERES JOSE-RA. Pinar kalea. Irun. Tel.: 613217.

FIAT

PUNTAKO TEKNOLOGIA

Osasuna

Osasunaren ardura

PLATANO HELDUGABEAK ULTZERAK SENDATZEKO

Astongo (Ingalaterrako) Unibertsitateko zientzilari talde bat in-dioen erremedio zahar bat ari da erabiltzen urdaileko ultzerak sendatu nahirik. British Technology Group izenekoak hiru milioi pezetako dirulaguntza eskaini dio talde horri ultzeren sendatzea ikertzen jarraitzeko, platanonetatik ateratako drogekin urdaila estaltzen duen geruza sentikorra babesteko modua aurkitu ondoren.

Unibertsitateko Zientzia Farmazeutikoen Departamentuan lan egiten duten Best, Lewis eta Hasser zientzilariek platanoen ezaugarri antiultzerosoak 1.984ean aurkitu zituzten, heldu gabeko platanoen mamiak urdailko ultzerak ekiditzen dituela ikusiz. Indian fruitu hau betidanik erabili izan da urdaileko ultzerak eta liseriketaren arazoak arintzeko eta berdura gisa kontsumitzen da Hirugarren Munduko herri askotan. Lau urte beranduago (1.988an alegia) zientzilari taldeak bi droga prest jarri zituen, konposatu naturalen ezaugarri bereberekin. Gaur egun aski onartua dago ultzerak, urdaila estali eta babesten duen mukosa suntsitu eta desagertzen denean sortzen direla; eta honetan stressak eta substantzia toxikoek eragin ukaezina dute.

JABIER AGIRRE

BARREAREN ONURAK



Barre egitea ez da soilik *poz bizia eta bapatekoa adierazten duten aurpegiko giharren mugitze bereziak, hasperen zaratsuekin batera egiten direnak*, hiztegiak esaten duen legez. Gure gorputz osoan eragiten duen ekintza fisiologikoa ere bada.

Barre egiteak biriketara oxigeno kopuru handiagoa ekarri, nasketa luzatu, odol-hodiak hedatu, eta gorputzadarretara odol kopuru handiagoa bidaltzen du. Beraz, eskuak edota oinak hotz dituztenek sarriagotan barre egiten saiatu beharko lukete, eskularru eta galtzerdi asko jantzi beharrean. Barre egiteak barruko be-roz hornitzen du. Eta ehunetara oxigeno kopuru handiagoa bidaltzen duenez, gaitz desberdinen sendapena ere aurreratzen du eta gure gorputzaren funtzioak finkatzen ditu, gorputza zoldura eta gaitz endakatuaren aurrean bizkortuz, jangura areagotuz, eta odol-gaitzei aurre egiteko prestatuz. Horrez gain, kolesterol gisako produktuak egozten ditu gure organismotik eta sistema hormonal aurretik zaintzen du, burmuinetan beta-endorfina delakoan ekoizpena piztuz.

Askotan barre egiten duten pertsonen, barre egitea izugarri kostatzen zaien lagunek baino joera txikiagoa dute digestio aparatuan gaitzak izateko, hainbat medikuk somiatu duenez. Zenbaitek barreari 'footing geldia' izena eman dio, barruko sistema guztiak mugimenduan jartzen bait ditu. Aitzitik, beldurrak, tentsioak eta irrikak karrotatzen dute gorputza eta beronen ahalmenak gutxitzen dituzte.

E.MINTEGI

Elikadura

KWASS, OGIZKO ZERBEZA

Sobietar Batasuneko edari nazional hau 'errugabe' tzat har daiteke, 4º alkohol baino ez ditu eta. Bere laborapena ez da zaila suertatzen ondorengo osagaiak erabiliz gero: 500 gr. ogi beltz; 8 litro ur; 25 gr. legamia; 225 gr. azukre; 4 goilarakada ur epel; zuritu gabeko limoia; 2 goilarakada Corintoko mahaspasa; menda.

Ogi zerradak 15 minututan la-bean lehortu bitartean, 8 litro ur irakin. Ogi lehortua txikitu eta 5 minututan ur irakinetan utzi. Sutatik kendu eta 4 orduz atsedean har dezala. Lau ordu pasa baino hamabost minutu lehenago 25 gr. legamia xehatu eta goilarakada laurden azukrez eta lau goilarakada ur epelez nahastu. Dena legamiatzen utzi. Ogi egosia, jada hotz izango dena, iragazi, ogi puskak leunduta zurrupatuz. Azken honi limoi azala, azukrea, legamia eta menda gehitu. Bapo irauli eta zortzi orduz legamia dadila.

Aurretik ur beroz garbituriko botiletan sartu likidoa. Botila ba-koitzean, Corintoko mahaspasak, limoi azalaren zati bat eta menda hosto bat bota. Kortxo batez tapatu eta leku hotz bate-tan gorde egun batzutan. Mahaspasak gainaldean agertzen direnean, kwass delakoa edateko prest izango da. Mahairatu baino lehen, zerbeza hoztuko dugu.




Telebista - Irratia

Botoia sakatu aurretik

'Madame Sin'

● Igandean, 12,30etan **'Montanako Erregina'**. Emakume eta gizon batek, Montaña lurraldeko aintzindariak, hango indiarren kontra gogor bururatu beharko dute. Bere aldetik, emakumeak, bere aita hilik suertatu ondoren, berari utzitako lurraldeak defendituko ditu.

Zuzendaria: Allan Dwan.
Antzezleak: Barbara Stanwyck, Ronald Reagan, Gene



Evans.

● Asteazkena, 22,10etan, **'Liluratua'**. Hegoaldeko lekuren batetan, Guda Zibila amaitu baino egun batzuk lehenago, Ammy, hamar urtetako neskatxoa, landetan zehar dabil perretxiko bila. Bapatean armadako untzi bat aurkitzen du eta barnean zauritutako gizon bat.

Zuzendaria: Donald Siegel.
Antzezleak: Clint Eastwood,

Geraldine Page, Elizabeth Hartman, Jo Ann Harris.

● Ostiralean, 21,00etan, **'Madame Sin'**. Emakume krudel batek CIAko ajentea izandako gizon bat erabiltzen du, 'Polaris' urpeuntziaren kontrola lortzeko.

Zuzendaria: David Greene.
Antzezleak: Robert Wagner, Bette Davis, Roy Kinnear, Paul Maxwell.

Ikusi baietz!

● Igandea hilak 4, 14,55etan **Ziklo-krossa**. Munduko txapelketa Faduratik zuzenean (Profesioanl kategorian)

● Igandean 17,20etan, **Paradis** telesailaren lehen kapitulu.

● Igandean, 18,10etan, **saskibaloia**: Barcelona-Cai Zaragoza.

● Asteazkena 20,45etan, **saskibaloia (Europako kopa)**. Barcelona-Jugoplástica.



Txori batek esan digu...



● Oraindik zein motatakoa izango den zehatu ezin badugu ere, badirudi ETB saio berezia prestatzen ari dela **Loiola 91** kanpainaren inguruan.

● **ETBk BBC kateko zenbait tekniko kontratatu** zituen Miramonen telebistako aurkezpenen inguruan ikastarotxo batzu emateko. Amaitu berri direlarik ikastarook, balantze ezin txarragoa egingo zuten honez gero txoritxoaren buruek. «Makilaia gehitxo ipini duzu», «alde honetara begiratuko bazenu hobea»... Ezer ganorakorik eskaini gabe dirutza kobratu eta alde egin zuten tekniko britainiarrek.

● **Lotsagarria** iruditzen zaigu, eta hau ez da berria, **ETBk saio kulturaleri eskaintzen dion ordutegi kaxkarra**. Bertako produktuak izaki, mimo gehixeago merezi dute, beti audientzia txikieneko ordutegian igorri beharrean.

Telebista - Irratia

Airean erantzun

Txema Auzmendi:

«Euskal kazetarien elkarteak badu irtenbidea»

Txema Auzmendi ordiziarra orain dela 40 urte jaio zen. Filosofia lizentziatua eta teologia ikasketak eginak dituen jesuita hau Herri Irratian hasi zen lanean orain bi urte. Sortu berri den Kazetarien Elkarteko idazkari, ezagutzen dutenak diotenez dinamizatzaile hutsa omen.

ARGIA.— Hasiera batean irakaskuntzan ibili izan zinen gerora komunikabideetara pasatzeko. Zer nolatan egin zenuen aldaketa hau?

Txema Auzmendi.— Aldaketa oso gustora egin nuen. Hasera batean Loilako Herri Irratian hasi nintzen eta ez nuen izan inongo arazorik, horrez gainera talde txiki bat zen eta asko lagundu zidaten. Erlazio pertsonalak ere asko estutzen dira holakoetan.

A.— Zer tipotako programak egiten dituzu Donostia-ko Herri Irratian?

T.A.— 'Bizi Bidean' deritzan saioa egiten dut astelehenerik ostiralera orduerdiz. Nire saioarekin eguneroko bizitzaren borroka azaldu nahi dut; hau adierazteko beste izen batzuk ere jar nezazkean, baina 'Bizia Borroka' ipini izan banio nahiko arriskutsua izan zitekean. Bertan ikutzen ditudan gaiek erlijioarekin, etikarekin, eus-

kararekin, presoekin eta herrietako goraberekin badute zer ikusirik. Beti ere saiatzen naiz posizionamendu bat hartzen eta horrekin jokutzen.

A.— Herri Irratietan hasi zinenetik ez al da aldatu diskurtso erlijiosoa piska bat? Ez al du beste norabide bat hartu?

T.A.— Baliteke baina ez dut erizpide garbirik zeren nahiko irrati gutxi entzuten nuen sartu aurretik. Uste dut erlijioa dela bizitzea besteen gorabeherak, kezkek eta pozaldiak baina azken erreferentzi bati begira beti: Jainkoa. Hau kontutan hartuaz saiatu izan nauk hemergo gorabeherak azaltzen ahal nuen neurrian.

A.— Prentsan agertu izan dira kritika batzu zure saioaren aurka; erlijioa politikarekin nahastean ez al dira gatazkak sortzen?

T.A.— Ez dago ezer erlijioarekin zer ikusirik ez duenik; erlijioa ez da zerbait gerorako

baizik eta orainaldian bizitzeko zerbait. Eguneroko arazoak aztertu behar dira eta ebanjelioan ikusi besterik ez dagp Jesus ez zutela hil arazoetan sartzen ez zelako...

A.— Donostiako Herri Irratian euskararen erabile-
ra beheraka al doa?

T.A.— Nik uste azken hila-beteetan goraka doala baina bestela zoritxarrez, duela zenbait urte euskara gehiago entzuten omen zen. Instituzioek ere EITB sortu zutenean subentzioak ere haiengana joan ziren eta guk euskaraz egin nahi badugu galdera haundi bat planteiatzen zait, zer dinamika eman behar zaion euskarari begira horrelako irratietan, izan ere publizitateak ez du gehiegi laguntzen euskaraz denean saioaren bat. Ez diat ikusten gauza garbirik baina argi zegok erantzun bat eman behar zaiola.

A.— Euskal kazetarien Elkarteko idazkari zaitugu, zer nola doa elkarte hau? ba ote du irtenbiderik?

T.A.— Piskanaka aurrera goazela uste dut, bilera garrantzitsuak ere badatoz eta ea zer gertatzen den. Banabil deiak egiten irrati ezberdinei eta bilera bat ere egingo dugu; irrati libreen atzetik ere banabil baina ez dut gehiegirekin kontaktatu.

Elkarte hau euskal kazetari guztientzat dago irekia eta nik ikusten diot irtenbidea euskeraren arazoa kontutan hartzen badugu.

Ikusitakoak ikusita


Izarrak euskaldundu

Telebista guztiek amankomunean dituzten programak azkarren artean izkutaturik, Euskal Telebistaren bigarren kateak saio bikainak ditu. 'Detras del Sirimiri' saioa irudimenak lor dezakeenaren froga ederra da; 'Doctor Livingstone, supongo'k aurkezlearen geldotasuna akatsa ez izatea gerta daitekela frogatzen du; ohizko formato bati jarraituz, baina gonbidatuen aukeraketa egokia eginez jokatu du 'Sin Permiso'k. Guztiak onak eta guztiak euskaraz ez egiteko arrazoirik ez.

Duela hilabete batzu, Jose Luis Moreno jasan ezinak zera esaten zuen: 'Hizkuntza asko menperatzen dut; turkiera ikasi banuen, nola ez naiz euskararekin ausartuko!'. Jarrera mi-resgarria benetan. Baina ez da ausartu. Hainbatetan, elkarrizketa gai euskaldunen urritasuna aipatu da, eta neurri txiki batetan egia izan da ere, aitzakia besterik ez da gertatu. ETBk berak bultzatu beharko luke kontratatzen dituen izarren euskalduntzea, errentagarritasunari begiratuta baino ez bada. Urrusolo, Ferrer, Iñigo, eta bestelakoen konstelazioari euskara ikastea eskatu izan balio ETBk, euskarazko saio gehiago izango genuke orain. Baina ez dira ausartu.

R.M. MARTIN SABARIS

IZENBURUA: ALICEREN
ABENTURAK LURRALDE.
MIRESGARRIAN.
EGILEA: LEWIS CARROLL.
EUSKARATZAILEA: MANU
 LOPEZ.
ARGITARATZAILEA:
 PAMIELA. TAMAINA TTIKIA
 BILDUMA.



Euskarazko itzulpengintzak egiteko duen bidea inoiz baino luzeago ageri da honelakoetan. Hau bezalako obra klasikoak —hain indarrekoa gaur egun— oraintsu arte euskaratu gabe egoteak (bertsio laburtua baino ez zegoen gure artean) gabezia ikaragarria adierazten du. Baina heldu zaizkigu azkenik Aliceren abenturak gurera, baita bide onetik heldu ere.

«Pamiela» etxeak bere gain hartu du argitalpen honen ardura, eta arazo ekonomikoetan murgilduta egon arren, ohi duen moduan burutu du: behar diren bitarteko guztiak eskeiniz, presari kontzesio txikiena ere egin gabe, testuak eta irudiak inor gutxik bezala goxatuz, egileari nahiz irakurleari zor zaizkion begiruneak oro aintzat hartuz... Argitalpen modu horrek sariren bat merezi luke, lan honegatik zein beste-gatik.

Testua modu erabat atseginan emateaz gain, Lewis Ca-

rollen jatorrizko ilustratzailea den John Tenniel-en marrazkiak tartekatu dituzte, tamaina eta maketazio aldetiko ñabardurekin batera liburu benetan xarmangarria osatuz. Edizioaren ardura Manu Lopez-ena izan da, eta itzulpena ere berea da. Bera ere liburuaren azertuan partaide da beraz.


Gainerakoan, zer esan Lewis Carroll eta bere obraz. Duela ehun urte baino gehiagoko kultura britaniarrari buruzko hainbat erreferentzia alde batera utzita, logikaren erabilpen fantastiko eta absurdoa dugu bere lopen miresgarrietako bat. Izan ere, ez da ahanzi behar Lewis Carroll izengoitiaren atzean dagoen Doggson jauna matematikoa zela, eta logikaren alorrean ere egile klasikoetakoa dugu. Modu zientifikoetan garatutako logikaren prozedurak beste modu batera aplikatu behar diren eragina nabarmen ageri da bere literatur lanetan. Logikaren legeek eskeintzen

dituzten jukutriak haurren munduko irudimen mugagabearekin nahastuz lortzen ditu Carroll bere pasarterik miresgarrienak, errealitatearen kontraesanak gureganatzearen guttiz lagungarriak eta sujerenteak.

IZENBURUA: BAPATEAN 89.
EGILEA: EUSKAL HERRIKO
BERTSOLARI ELKARTEA.
ARGITARATZAILEA:
 ELKAR. ORHI SAILA.

Bigarren urtez burutu du Bertsolari Elkarteak «Bapatean» izeneko bertso-bilduma. Aurrekotik hona, urteko bertsoen hautaketa eta transkripzioa egiteko erizpidetan aurreratu da, zehaztu egin dira, eta nolakoak diren liburuan bertan adierazi. Erizpideok, elkarte horrek usadiozkoa duen zuhurtziaz erabaki direlakoan gaude, hain bait da zaila honelako la-

na burutzea inor sumindu gabe, nolabaiteko kontsentsua lortuta. 600dik gora bertsoak aukeratzeko erabili diren erizpideak hauexek izan dira: ahalik eta bertsolari gehienak jasotzen saiatu, eskenatokien maiztasuna eta bertsolariena ere kontutan hartuta; saio eta bertso mota aldetik ere, ugaritasunera jo; gaiak ahalik eta gutxien errepikatzen ahalegindu; doinuari buruzko adierazpen zehatza; saioaren testu inguruari buruzko informazioz hornitu. Bertso mota bakoitza baloratzeko eta transkripzioa egiteko beste zenbait erizpide ere zehazten dira bertan. Bistakoa da erizpide horiek zuzen betez gero, liburuak berebiziko funtzioa betetzen duela bertsolaritzaren esparruan, eta zinez halakoa kaleratu dutela bigarren-go honetan.



Bilketa, aukeraketa eta transkripzio lanean Zaldubi eta Iñaki Larrañaga aritu dira. Argazkiak (liburuari bestelako balioko dokumentala erasten diotenak) Juantxo Egañarenak dira. Hau ere ohizkoa denez, Joanito Dorronsorok egin ditu doinuen izendapenak.

Hitzaurrea egiteko Juan Mari Lekuonari luzatu diote gonbitea, eta oiartzuarrak bere betiko sistemazio ahalmen zehatzaz borobildu du berea: libu-

Puntako argitalpenak

(Donostiako «Bilintx» liburudendak emandako datuak)

LITERATURA

- 1.— «Babilonia», Joan Mari Irigoien. Elkar.
- 2.— «Ez gara geure baitakoak», Joseba Sarrionandia. Pamiela.
- 3.— «Sokratikoek ere badute ama», Andoni Egaña. Erein.
- 4.— «Izua hemen», Joxe Mari Iturralde. Bizkaiko Diputazioa.
- 5.— «Balizko erroten erresuma», Koldo Izagirre. Susa.

OROTARIKOAK

- 1.— «Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan», Joxe Azurmendi. Susa.
- 2.— «ARGIA Urtekaria». ARGIA.
- 3.— «100 euskal abesti», Oñatibia. Edili.
- 4.— «Balea eta euskaldunak», Murgil eta Sarda taldeak. Gaiak.
- 5.— «Enbido», J. Elosegi eta L. Manterola. Elkar.


ruan islada duten zenbait teknika berezi nabarmenduz, iazko saioetan izandako izen-hutsu-nea nabarmenduz, eta isilik gelditu direnak gogora ekarriz.

Honelako liburuak normalean ezkutuan gelditzen diren gauza asko eta asko ageratarazteko ere balio du. Urteko bertsogintzaren erreportaia berezia den neurrian, alor horretako dinamika jendetsuak eta isilagoak, ohitura zaharrak eta berrikuntzak, hain ofizioak ez diren bertsolarien piñua, eta beste nabardura mordo modu egiazkoago batez neurtzeko datu ugari eskaintzen ditu.

Argitalpen honek Bertsolari Elkartearen isileko lan ikaragarriaz ohartarazten digu: han-hemenkako saioen grabaketa eta artxiboa. Publiko egindako lan txikiago hau beste hark egiten du posible. Liburuak beste horren laburpena eta kronika baino ez da. Kronika den neurrian, bertsoekin batera ematen diren testuinguruarekiko azalpenak oso lagungarriak dira (tokia, gaijartzailea, publikoa, e.a.). Halere, azalpen horiek oso desigialak dira, eta pentsatzen dugu hurrengoetarako alde horretatik gehiago zehazteak eta sakontzeak me-rezi duela.

deak berak euskararen irakaskuntzarako garatutako metodo eta berrikuntzen azalpena. Bigarrenik, euskarari buruzko arazo gramatikalen zurtzea. Azkenik, euskararen irakaskuntzari ezezik euskararen berreskurapenari erreferentzia egiten dioten artikulua.

Lehen atalaren barruan hiru lan koka genitzake. J.M. Nuñez eta E. Osak ekintza bidezko ikaskuntza programatzeko erizpideak eta bideak proposatzen dituzte beren artikuluan; aldizkari bereko bigarren zenbakian azalduetakoa gaurkotuz eta zehaztuz (jokamolde komunikatibo klasikoek ekintza bi-



dezko metodora egokituz). Bestetik, ekintza bidezko irakaskuntza horretarako zein ekintza aukeratu eta nola egokitu auziaren aurrean, Gaizka Elosegik prozedura konkretua proposatzen du. Azkenik, emaitzen ebaluaketa komunikatiborako hainbat erizpideren azalpena egiten du.

Euskararen arazo gramatikalak argitzearen atalean, beti lez, Iñaki Gaminde dugu jaun eta jabe. Bi korapiloren askatzeari lotzen zaio oraingoan: «aditz erazleak bizkaieraz» eta «erlatiboa». Lehena dialektologia hutsezko lana da. Bigarrenak, aldiz, apur bat gehiago heltzen dio irakaskuntzaren alorrari, kontutan hartuta erlatiboa dela irakasteko arazo gehienak sortzen duen egituretako bat.

Hirugarren atalera, AEK-koek bi gonbidatu ekarri dituzte boskarren zenbaki honetara: Iñaxio Agirre eta Fito Rodríguez. Tolosarrak euskararen egoerari buruzko azalpena egiten du, bere ustez normalkuntzarako behar lirerateen giltzarriak zeintzu diren esanez. Dostiarrak, aldiz, Inguru-Pedagogiaren esparruan izan diren azken joerak eta beren ordezkari nagusien azalpen laburra egiten digu. Atal honetan ere sar genezake Psikolinguistikaz Pello Jauregik idatzitako lana.


IZENBURUA: JESUS, MARIE ETA JOXE.
EGILEA: PATXI ZUBIZARRETA.
ARGITARATZAILEA: EREIN. LITERATURA SAILA.

Patxi Zubizarretaren aurreneko nobela hau erabat optimista da, gutxitan bezalako. Bidaia paralelo biren kronika da, baina bidaia berak garrantzi gutxienezko dirudi, Marokko-rainoko bidea peregrinaje ia izpiritual modura planteatuta dago, aitzaki formal bezala bi mutur nagusi agertzeko: protagonisten sustraietan dagoen iraganaldia, eta topagune getatuko den helmuga.

Nobelako pisu haundiena Marie alemandarra eta Joxe euskaldunaren iraganaldiko pasadizuek hartzen dute, eta berorien pisuak kasik anekdota hutsa izatera mugatzen dute bidaietako istorioa. Aro berri bati ekiteko arrazoien pilaketa getatzen dira iraganaldiko pasadizuok, punto eta aparte berria suposatuko duen Marokoko enkontrua indar afektiboz kargatuko duen flash-back meta-keta.

Patua edo kasualitatea izan daiteke Marie eta Joxe elkartuko dituen enkontrua aurreikus-tarazten duena. Pertsonaien iz-

piritu hippie dominanteak patua dela sinisterra gamaramatza, baina nobelaren estiloak eta tajakerak bigarrena sujeritzenago dute. Edozein kasutan, bukaera hori gabe zentzurik ez luke nobelak. Ikuspegi horren ildotik, enkontru hori ia magikoa da, elkar hizketarik ez dago hitzek magia hori zapuztu zezaketelakoan, enkontru baino hurbilketa delako, topaketa-ekin batera amaitzen delako nobela (nobela bukaturik baina bizimodu berri baten hasiera dela pentsa daiteke).



Patuaren marka eta aipatutako izpiritu nagusiaz aparte, bi elementu dira nobela gorpuzten dutenak. Bata, Marie eta Joxeren historia azaltzen diguten gertaerak, bi klabetan kon-datuta: poetikoa eta umoristikoa. Gertaerak tragiko aldera jotzen duenean, tonu poetikoz ematen du Zubizarretak. Gainerakoetan, pasadizo umoretsuak erreskatatzen ditu, txiste hutsak askotan. Guzti horrek gaxte izaera indartu egiten dio nobelari. Patxi hizkuntzaren erabilerari berebiziko garrantzia eman diola begibistakoa da, azkenik, baina batzutan hizkuntz jolas horiek doanezkoak dirudite (izenburuaren hitz-jokua kasu). Elementu ugariz osatutako egitura orekatuak ematen dio nobelari oinarrikerik sendoa.

JOSU LANDA

ALDIZKARIAREN

IZENBURUA: ELE 5.

EZAUGARRIAK: AEK-REN

IRAKASLE ESKOLEN

ALDIZKARIA. 1989.

AEKren didaktika-aldizkariak formatoa aldatu du boskarren zenbakiarekin batera. Liburu modura argitaratua, aurrekoak baino irakurgarriago suertatzen da. Edukiaren nondik norakoa, haatik, lehenagokoen haritik dator.

Hiru motatako artikulua bil-du dira 3. «Ele» honetan. Alde batetik, AEKko Didaktika Tal-

Berlingo adreiluak

Antzoki minez

Duela hiru, ia lau urte, itxutu nintzen euskal antzerkirako. Gastibelzaren karabinen tiroek jo zidaten, propio, euskal teatroaren azken-oihala jeisteko ordua. Geroztik, zinemara doan itxuaren modukoa naiz teatroarentzat, albokoaren abilezia kontalariaren arabera irudikatzen ditudalarik, eszena, jantzi, kolore eta mugimenduak.

Itxuen profeziarako joerak kutsaturik nonbait, maldan behera somatzen dut garai batean mogida, amorrurru eta esperantza zena. Baina ez diegu Arozena, Arregi eta enparaei emango Euskal Herriko teatrogintza izorratzearen merezimendu osoa. Horretan ere laguntza paregabea eman diegu. Administraritzek ongi eta maltzurki banaturiko milioi kolpe sakabanatu dituzte teatreoren lerroak, ito arte; baina gremialismoak, superbizitzaren legeak eta antzutasun estraino batek ere zurundu du taulagainekoen zeregina.

Teatroa ez zuen zinemak kondernatu, telebistak zinemarekin akabatzea lortu ez zuen bezala, eta bideoa inorentzat borrarero ez den bezala. Ez dugu asmatu antzerkiak gizarte aldakorrean bere funtsa izan zezan. Administraritzek kortse estua jarri nahi izan diote 'teatro independente' izen beldurgarria zeramanari; eta birmoldaketan lehen fase deuseztaillean abilak bezain dorpeak dira bigarren fase eraikitzailean. Norberak bere babarrunak berotzeko adina konbustibleren bila ibili gara, eta azkenerako, harriak bezain gogorrak ditugu indiabak eltzean.

Buruan generabiltzan pieza eta ekitaldiak papereratzeko kapaz izan ez garenok ere badugu erruaren partea. Orain, afizioa badago; begira bestela, dekoratu, jantzi eta makilariak gabeko teatro den, eta teatrotik kiroletik baino mila aldiz hurbilago dagoen bertsolaritzak duen arrakasta.

Kanka!

MIKEL ANTZA

UPV / EHU



UPVko 89-90 ikasturtea egungo Baskongadetako arazo politikoen nahaspilarekin lotuta abiatu zen, PNV eta PSOEren arteko paktuaren lehen pitzadura zantzuak agertzearekin batera. Psozialistek errejentatzen duten Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren jarrera politikoa kinka baldarra erakutsi zuen iazko azken hilabeteetan: Euskal Eskola Publikoaren Legea indarrean jartzeko ahaleginak zirela batetik —eta nagusiki—, eta Unibertsitatean Emilio Barberá-ren errektore aulkia kolokan ipintzeak bestetik —urria eta azaroa artean—. José Ramón Recalde-ren bi jokaldiok denbora epe oso laburrean azaldu ziren mahai gainean, aurten PSOEren Madrileko txokora mudantza egingo duela ezagutu zen saio berean hain zuzen.

Recalde-k, ordea, arestian aipatutako bi jokaldiez eginiko apostuari ezin izan dio etekinik atera ahal izan. Areago, antza denez, erre egin da.

Legealdi honen amaieratik gertu, Gasteizko gobernua buru diren bi alderdi politikoa beren kokaguneak indartzen saiatu dira etengabe, Lakuan lurrikarak eraginez. Hezkuntzaren alorreko konpon ezinak medio, PSOEek txantaia politikotzat jo zuen PNVren jokaera (azaroak 2), eta segidan elkarri leporatu zioten koalizio akordioak apurtzen ari zirela (azaroak 12). Abenduan, autodeterminazioaren gaiak egingo zuen eztanda. Hezkuntza Sailaren paralisia. Urtarrilaren erdi aldera, Ikastolek Euskal Eskolaren diseinua trazatu dute. Unibertsitatean, oporraldi ondoko isiltasuna —barealdi urduria—.

Autodeterminazioaren kontura era guztietako fakturazio eta zor andana kitatzen saiatu berri dira hala pszialistak nola jeltzaleak. Ostera, hauteskuneak bitartean *gerra hotzak* bere horretan jarraituko du, gero eta beroago. Hezkuntzari dagokionean bederen, tirabirak ez du lasatzeko itxuririk, Eskola eta Unibertsitatea tartean direnean.

negu gorrian bero

UNIBERTSITATEKO murrak ez dira Berlingoak. Baina bertako adreiluak salaketa grafitiz josteko tenorean daude, salaketa eta presio plataforma bat martxan jarri delarik. 103 irakasle berriren beharrari —eta beste 100 irakasle laguntzailerenerari— ezin erantzun izan dio UPV/EHUko errektoregoak: oraingoz 21 irakasleren kontratazioaz bete gura du zulo galanta. Zenbait fakultate geldirik egon da. Eta hilaren azkenetarako greba orokorra iragarri dute —kronika honen erredakzioa ixterakoan ezin jakin ekin ote zaión—.

Recalde eta Barberá-ren artean atekak itxian eginiko paktuari esker, irakaslego faltaren erantzunkizuna oraingoz Barberá-ren ekipoak hartu du beregain, Recalde Lakuako harmailetan izkutatu den bitartean. Hala ere, litekeena da presioak errektorego gaintitzea eta zipristinak berriro ere Hezkuntza Saileraino iristea. Barberá-k ez du nahiko bere sareetan jokoz kanpoko goilik sartzen ikusterik.

Ikasturtearen hasierako larrialdi ekonomikoak ezin eutsirik dabil Unibertsitatea. Kontratatuak dituen 21 irakasle berriak UPV bertatik ateratako partida berezi bati esker helduko omen dira, Hezkuntza Sailak eskuak garbitu dituela. Ikasleagoa ez da kontent Gasteizko Filologia eta Historia eta Leioako Arte Ederretako irakasle eskazia betetzearekin bakarrik. Momentuz jarri den petatxoak ez bait dio euskarazko ikasketen adarrari soluziobiderik eskaintzen. Euskal Ikasle Koordinadorak ez die mobilizapenei muzin egingo.

EUSKARAREN Normalizatzeko Plangintza baten diseinua edo aurkeztu zuen UPV 1989ko apirilean, errektore ordea den Jaxinto Iturbe eta Euskararen Gabinete Teknikoko partaidea den Eusebio Osaren ahotik. Azken honek, nahikoa ez zela adierazi zuen orduko hartan. Zenbat eta denbora

gehiago pasatu orduan eta okerrago, egoera linguistikoan aurrera ez egiteak atzerapausua suposatzen bait du, euskararen kalitatea eta espainoleraren inposaketan.

Unibertsitateak premiazko dituen 103 irakasle horietatik 50 euskal adarretako ezinbestekoak dira egun —eta beste 50 gehiago beharrezko diren beste 100 irakasle laguntzaile bekadunetarik—, fakultate gehienetan euskal adarretako ikasketak zeharo murriztuak daudenean. Ikus kronika honekin batera ageri den kuadroa.

Aurtengo ikasturtean 45.000 ikasle inguru matrikulatu da UPVn. Irakasleagoa 2.300 lagun ingurukoa da. Azken hauek, %14a baino ez da euskalduna. Elebidunak:


irakasle maila baxuenekoak dira —profesor asociado direlakoak—, funtzionari mailakoak gutxiago, eta katedratikorik apenas. Administrazio eta zerbitzu pertsonalgoari dagokionez, tamalgarriagoa da egoera: 600 lagunetarik %8a baino ez da euskalduna.

Antzeman liteke beraz, diputazioetan eta Jaurlaritzan euskalduntze saioan aurreratuago daudela Unibertsitatean baino. Aski adierazgarria UPVren egoeraren nolakoak jabetzeko.

Eta bienbitartean, gaur egun erdaldun diren fakultateetan irakasle espainolek eta sindikatuek azpizoko presioa egiten dihardute irakaslego berri eta euskaldunaren kontratazioak geldieraz daitezten, arriskuan ikusten bait dute beren boterea —politikoa—, euskaldunen kontratazioak alderdi abertzaleen puzea ekarriko lukeelakoan.

Gerra hotza gero eta berotzenago...

GORKA ARRESE




Azeri axkarra eta independentzia berdeegia

MODAN dago formulazio eta ideia politikoak adjetiboz edo irainez erasotzea edo deskalifikatzea. Horrela erabakidu norbaitek Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea ere: batzuentzako fetitxea da eta kontzeptu satanizatu bat besteentzako. Eskertu behar diogu, dena dela, gure zenbait politiko arrazionalistari oinezko euskaldunaren eguneroko arazo garrantzikoetan zentratu eta autodeterminazio eztabaida utsaltzat jotzetik polemikara jaitsi izana. Urrezko linbo oparotik jaitsi direlako, esango nuke beraien tonua ez aldatzeagatik.

Baina asko gara eskertuko geniekeenak handiustekeria horiek utzi eta arazoei garrantzia noiz, nola eta zenbat eman erabakitzeke monopolioa dutela pentsatzetik ere umilduko balira. Hasteko, erdian —erdian dago bertutea, omen— daudelako uste hori ustela delako. Autodeterminazioa satanizatu dutenekin itun batez loturik daude, zertarako eta autodeterminazioa fetitxetzat omen dutenak isolatzeko.

BAKEA eta Autodeterminazioa aldarrikatu du kontsigna legez Jose Luis Lizundiak berrikitan, joan den mendeko «Paz y Fueros» liberal-fueristen haritik. XIX.eko karlistekin konparatzen ditu ETAkoak eta



PELLO ZUBIRIA

hauen definizioa eskaintzen digu: «integritas de las postrimerias del siglo XX». ETA-koei eta beren aldekoiei arrapostu egiten die Lizundiak XIX.eko liberal-fueristen formula berarekin: «Bakeratu zaitetze lehenbizi, deuseztu itzazue zuen partida/komandoak eta ondoren mintza gaitzen autodeterminazioaz».

Muñagorrik gerra karlisten garaian kazetari ingeles bati deklaraturakoa bereganatzen du: «Si tengo que extinguir las llamas de la guerra no sólo debo expulsar del campo al pretendiente, sino también arreglar las cosas para echar las bases para una reconciliación, la primera e indispensable condición de lo cual debe ser un pleno reconocimiento de las viejas libertades de mi país...». Egia da, pretendientea kanpora bo-

ta eta karlistak suntsitu zituzten. Lizundiak ahaztu du «las viejas libertades» ez zituela kristok ere berrezarri.

INDEPENDENTZIARIK ez dut nahi» dinost Euskadiko Ezkerrako adiskideak eta ez nau harritu. Begebenkien. Ondorengoak harritu egin nau: «La independencia no existe». Bukaera izorratzeko modukoa da: «Y si existe no nos interesa». Hola nere amona zenak ere politika egingo zukeen. Horri jendeari adarra jotzea deitzen zaio. Eta zizismoa. Eta gauzak dauden-daudenean uztearen eta nagusi zaunkalariari obeditzearen aldarean arre esan edo iso esan berdin dela. Independentzia deitzen den mahatsa badago, ez mahats baino gehiago, baina ez eta gutxiago ere. Mahats hori dela eta Bruselgo bilkura nagusietan 12 lehendakari biltzen dira, ez bost eta ez hamabost. Eta Arnegi-Luzaiden sartzeko paperak eskatu behar dituzu. Ipuin klasiko hartako azeri hura baino urrutirako doaz gure politikari post-estatutista hauek. Mahatsa berdeegi dagoela pentsatzea ez zaio aski, nonbait, azeriari bere jauzi egiteko nagikeria edo beldurra justifikatzeko. Pentsa dezagun mahatsik ez dela. Ireteko ale handiegia? Aukera bikoitza orduan: edo mahatsik ez da, edo eta baldin bada berdeegi dago. Hori da euskaldunok subnormaltzat hartzeko postura.

Besteak bezain irрати... euskaraz... Iruñerrian

EUSKALERRIA IRRATIA


Egunez egun, urtebete aidean, bertatik bertara

Lagundu nahi al diguzu?
Euskalerría Irratia Elkartearen
partaide egin zaitez.
Urteroko kuota,
sei mila pezeta.

EUSKALERRIA IRRATIA Antso Azkarra 96 - 13° Tel. 170151 31011 IRUÑEA

ORAIN DUZU AUKERA!

Iruñerriko euskaldunek elkarren berri izan dezaten



ASISKO-88

190
Sucursales

164
Cooperativas
Asociadas

20.000
Puestos
de Trabajo

230.000
Millones
de Ahorro

Lan Kide

Aurrezkia

Herrigintzan

20.000 lanpostu.

164 Kooperatiba

Elkartu.

190 Sukurtsal

230.000 Milioiko

Aurrezkia.

Guztia, 30 urteko

fruitu emankorra.

**Euskadiko
Kutxa**